

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Giltzurruneko errenina-angiotentsina sistemaren eta  
fibroblastoen aktibazio proteina  $\alpha$ -ren ikerketa  
giltzurrun-zelulen kartzinoman**

Estudio del sistema renina-angiotensina intrarrenal y de la  
proteína de activación de fibroblastos  $\alpha$  en el carcinoma  
de células renales

Peio Errarte Yarza

Leioa, 2018

“I have not failed  
I’ve just found  
10 000 ways  
That won’t work”

*Thomas Alva Edison*



*Bizitza eman zenidatenentzat  
Eta zuen bizitzaren zati bat eskaintzen didazuenentzat*

*Hotel Kalifornian berriz elkartu arte*



## **ESKER ONAK**

Lehenik eta behin tesi honen zuzendariei nire eskerrik beroena helarazi nahi nizueke. Gorka Larrinagari aurrena, nigan jarritako konfiantzagatik eta uneoro erakutsitako prestutasun, laguntza eta inplikazioagatik. Bestetik, Iñaki Lopezi, ikuspuntu positibo ezinbestekoagatik eta elkarrizketa bakoitza lanean jarraitzeko motibazio saio bihurtzeagatik.

Baita tesi hau garatu den Fisiologia eta Erizaintzako Departamentuei eta berau osatzen duzuen irakasle, ikertzaile, tekniko eta administrariei ere. Batetik tesia garatzeko aukera eta erraztasunak ematearren eta bestetik lan honek badaukalako zuetako bakoitzaren aportazio txiki bat. Halaber nire esker ona luzatu nahi nizueke gainontzeko Departamentuetako profesionalei ere, zuen bulego eta laborategietako atea irekitzeagatik, zalantzak entzutearren eta jasotako laguntza eta aholku guztiengatik.

Maiderri, 5 urte luze iraun dituen proiektu honen pauso bakoitzean bidelagun izatearren, erabakiak hartzen laguntzearren eta egunerokoa neukan onena ateraraztearren. Lan guzti hau ulergaitza litzateke zure laguntzarik gabe. Itziar eta Iraiari, egunerokotasuna, laborategian zein arlo pertsonalean, errazagoa eta alaiagoa egitearren. Tesi honetatik zerbait esanguratsua atera bada elkarri laguntzeko eta zailtasun guztien gaintik jarrera positibo eta adiskidetsua mantentzeko gaitasunaren ondorio da zalantzarik gabe. Pozten nau laborategiko zein laborategitik kanpoko hamaika oroitzapen zuekin konpartitzeak. Laborategitik pasa zareten ikasle zein irakasle guztiei, guztiek zerbait berria irakatsi baitidazue.

BioDonostia Osasun Ikerketa Institutuko Onkologia Molekularreko taldeari, zuekin pasatako denboran taldeko partaide bat gehiago bezala sentiarazteagatik. Charles Lawrieri, zure laborategiko atea ireki eta ikerketa onkologikoaren mundua erakusteagatik eta bereziki Lorea Manterolari, nirekin horrenbeste inplikatzegatik eta nire lanaren gidaritza zure gain hartzearren. Bertan pasatako urte eta erdian

lagundu ninduzuen guztioi, bereziki Ibai, Erika, Paula, Haizea, Estitxu eta Leireri zuen adiskidetasuna da tesi honen emaitzarik esanguratsuen.

A César Echeverría del Instituto de Investigación CIBQA de la Universidad Bernardo O'Higgins por darme la posibilidad de realizar una estancia en su laboratorio que me permitió desarrollarme profesional y personalmente. En especial a Valentina y a Jordán por haberme hecho sentir como en mi propia casa durante el tiempo que pase en Santiago de Chile. Por endulzar el día con alfajores y por las noches de chorrillanas, chelas, buena conversación y carrete. ¿Cachái?

Etxekoei, bizitzako arlo guztietan bezala honetan ere zuen sostengua eta bultzada izango ez banitu bidea askoz nekezagoa izango litzatekelako. Naizena izatera iristeko baliabide, aholku, konfiantza eta maitasun guztia ematearren. Izatea nahi dudana izatera iristeko askatasuna eta laguntza eskaintzearren. Aita, ama, niretzat eredu bat zarete eta zuek emandako bizitza ulertzeko modua daukadan altxorrik handiena da. Ane, bizitzako une txarrenak eta onenak zurekin partekatzea opari bat delako, horrela izan dadila beti.

Bereziki Ainhoari, tesiaren alde ilunena jasatea tokatu zaizulako. Eskerrik asko zure konfiantzagatik, pazientziagatik, zure adiskidetasunagatik eta zure maitasunagatik. Eta batez ere, ezer ulertu gabe ere inork baino hobeto ulertu nauzulako. Horregatik eta beste mila gauzagatik.

Kaletarrei eta batez ere Gorke eta Oierri, beti mahaiaren bueltan elkartzeko arrazoi bat aurkitzearren. Arrakasta zein dezepzioak garagardotan neurtzen laguntzearren.

Tesi proiektu baten garapena gauza asko dira, lana, esfortzua, dedikazioa, inplikazioa eta sakrifizioa beste askoren artean. Hala ere, nire kasuan, prozesu aberasgarria izan da zalantzarik gabe, arlo profesional zein pertsonalean oztopoei aurre egiteko tresnez jabetzeko bidea izan den aldetik. Bizitza bera hartu-eman prozesu bat den heinean, nire aldetik ahal beste eman dut lan honen garapenean baina era berean, asko jaso dut urte guzti hauetan eta asko jasotzen dut esperientzia honek ezagutarazi dizkidan pertsonengandik. Plazer bat izan da bidea zuekin konpartitzea. Horregatik,

Mila esker denoi





## **LABURPENA. Resumen**



Giltzurrun-zelulen kartzinoma (RCC) organo honetako tubuluetako zelula epitelialetatik eratorritako minbizien taldea da. Munduko osasun erakundearen minbizi urologikoen sailkapenaren arabera, 15 RCC azpimota histologiko baino gehiago daude. Halere, intzidentzia altuena daukaten 3 azpimotek, “zelula argien giltzurrun-zelulen kartzinomak” (CCRCC), “giltzurrun-zelulen kartzinoma papilarrak” (PRCC) eta “giltzurrun-zelulen kartzinoma kromofoboak” (ChRCC) kasuen %90etik gora batzen dituzte. Lan honetan, hiru hauetaz gain, giltzurruneko onkozitoma (RO) ere aztertzen da, RCC onbera ohikoena. Gaur egun, diagnostikatzen diren minbizien %2,4 mota honetakoak dira eta minbiziak eragindako heriotzen %1,7ren erantzule dira. Bi aldiz ohikoagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino eta intzidentzia nabarmen handiagoa da herrialde garatuetan. Hematuria, saihets-aldeko mina eta masa abdominalen agerpena dira bere sintoma klasikoak baina egun, eritasunaren fase berantiarren erakusle dira. Hala, gaixotasun asintomatikoa da fase goiztiarretan eta ondorioz, zoriz diagnostikatzen dira kasuen erdia baino gehiago, irudi teknikei esker. RCCdun gaixoen pronostikoa faktore ezberdinek baldintzatzen dute. 5 urteko biziraupena %90etik gorakoa da giltzurrunaren baitan lokalizaturiko tumoreetan baina nabarmen jaisten da inbasio maila altuagoa den estadioetan. RCC lokalizatuaren tratamendu estandarra nefrektomia da, hau da, giltzurrunaren erauzketa kirurgikoa. Tratamendu honek tumorearen ezabaketa eragin arren, gaixoen %30ak metastasiak garatzen ditu. Fase metastasikoetan, terapia gidatuen erabilera gailendu da, tirosina-kinasa hartzaileen eta mTOR seinalizazio bidearen inhibitzaileak lehen eta bigarren lerroko terapia gisa erabiltzen direlarik. Tratamendu hauek aldi batez gaixotasunaren kontrola ahalbideratu arren, tumoreek hauekiko erresistentzia garatzen dute. Ondorioz, RCC gaixoen maneiorako beharrezkoak dira arrisku handiko gaixoen eta tratamendu egokiaren aukeraketarako biomarkatzaileen garapena eta tratamenduaren optimizaziorako terapia berrien diseinua.

Tesi proiektu hau kokatzen den ikerketa taldean, peptidasek minbizi mota ezberdinen garapenean betetzen duten funtzioa sakonki azertu da. Peptidasak

lotura peptidikoak hidrolisatzen dituzten entzima multifuntzionalak dira, eta zelulen mintzari atxikita zein hauen barne edo kanpo inguruneetan aurki daitezke. Minbizian, bereziki inbasio eta migrazioarekin erlazionatu badira ere, etapa guztietan parte hartzen dute. Lan honetan, hainbat peptidasek giltzurrun-zelulen kartzinomaren garapenean biomarkatzaile eta diana terapeutiko gisa izan dezaketen potentziala aztertzen da. Batetik, errenina-angiotentsina sistema aztertzen da, angiotentsina peptidoak eraldatzeko gaitasuna daukaten entzimen (NEP/CD10, APA, ACE2 eta ACE) analisitik abiatuta. Bestetik, fibroblastoen aktibazio proteina  $\alpha$  (FAP $\alpha$ ) ikertzen da, minbiziari atxikitako fibroblastoen aktibazioan mugarri den serina peptidasa.

Errenina-angiotentsina sistema (RAS), presio arteriala eta elektrolito eta fluidoaren homeostasia erregulatzen duen sistema endokrino zirkulatorio gisa da ezaguna. Halere, ehun ezberdinetan RAS lokalak deskribatu dira, non zelulen hazkuntza, diferentziazioa eta apoptosia erregulatzen duten. Gainera, sistema honen asaldurak eritasun proliferatiboekin erlazionatu dira, tartean minbiziarekin. Lan honetan, RCCko azpimota histologiko ezberdinetan RASko peptidasen espresioa asaldatuta dagoela frogatzen dugu. Are gehiago, CCRCCan, entzima hauen adierazpenak ezaugarri kliniko-patologiko ezberdinekin korrelazionatu zuen. Hala, ACEren espresioa, angiotentsina II sistemako peptido bioaktiboaren ekoizle nagusia, igo egiten zen gradu histologikoarekin. Aldiz, APArenean, angiotentsina II/angiotentsina III bihurtzearen erantzulearena, jaitzi. Honek, angiotentsina II peptido kontzentrazioaren igoera iradokitzen du, eta AT2R hartzailearen jaitzierarekin batera, ACE/Ang II/AT1R ardatzaren bidezko seinalizazioa indartzen du, APA/Ang III/AT2R ardatzarena ahultzearekin batera. Ondorioz, asaldurek aurreneko ardatzari atxikitako tumorearen aldeko efektua areagotzea iradokitzen dute, APA/Ang III/AT2R ardatzari tumorearen aurkako rola emanez. Gainera APArenean espresio galerak, RCC gaixoen biziraupen okerragoarekin korrelazionatzen du, ideia hau indartuz. Bestalde, NEP/CD10 eta ACE2 entzimak espresatzen dituzten

tumoreen kopurua igo egiten da gradua eta estadioa igo ahala. Hauek, Angiotentsina 1-7 peptidoaren ekoizle nagusiak dira, zein berriki, migrazio eta inbasioarekin erlazionatu den RCCan. Gainera, NEP/CD10en adierazpena, biziraupen okerragoarekin erlazionatzen da. Orokorrean, RCCan errenina-angiotentsina sistema asaldatuta ageri da eta litekeena da bere osagaien espresio aldaketek, abantaila bat suposatzea minbiziaren garapenean.

Halaber, RASk RCCan dauzkan asaldurak gaixoen odolean islatzen diren aztertzeko, peptidasen aktibitate serikoa neurtu zen. Hala, NEP/CD10, ACE2 eta APA entzimen aktibitatea altuagoa zen RCC gaixoetan kontrolatan baino. Aldiz, CCRCCan ACEren aktibitate serikoa jaitsi egiten zen gradu altuko tumoredun gaixoetan eta metastasidunetan. Era berean, NEP/CD10 eta ACE2ren aktibitateak aldatu egiten ziren klinikan pronostikorako erabiltzen diren UISS eta SSIGN modeloetako taldeetan sailkatzean. Bien aktibitatea baxuagoa zen gaixotasunaren garapena jasateko arrisku altuagoa zeukaten taldeetan. Hala, ehunean eta serumean jasotako emaitzek aurkako joera erakutsi zuten. Ehunean NEP/CD10, ACE2 eta ACEren espresioak gora egin zuen tumoreen agresibitatea igo ahala, aktibitate serikoa aldiz jaitsi egiten zen.

Oro har, emaitza hauek RASaren entzimen aktibitate eta espresio aldaketek esangura klinikoak daukatela iradokitzen dute eta ondorioz tresna baliagarriak izan daitezke RCCren diagnostiko, pronostiko edo tratamenduen iturri bezala.

Fibroblastoen aktibazio proteina  $\alpha$  edo FAP $\alpha$ , ia esklusiboki minbiziari atxikitako fibroblastoen (CAF) mintzean espresatzen den proteina da. Bere espresioa tumore epitelialen %90ean deskribatu da eta orokorrean, pronostiko txarreko markatzailea da. Tesi proiektu honetan aurrenekoz deskribatzen da serina peptidasa honen adierazpena RCCan, non pronostikorako erabiltzen diren ezaugarri kliniko-patologikoekin korrelazionatu zuen, hala nola, gradua, inbasio lokala eta diametroarekin. Gainera aldagai hauek bezainbesteko potentziala erakutsi zuen biziraupen okerreneko gaixoak hautatzeko.

Tumoreen agresibitatearekin erakutsitako erlazio estuaren ondorioz, FAP $\alpha$ -ren espresioaren ikerketa metastasidun CCRCC (mCCRCC) gaixoen tumore primarioko zein metastasietako ehunera hedatu zen. mCCRCCan ere, tumore primarioko FAP $\alpha$ -ren adierazpena biziraupen okerragoarekin erlazionatu zen baina ez ordea ehun metastasikokoa. Gainera, korrelazio positibo bat atzeman zen ehun primarioko eta hauen metastasietako espresioaren artean. Are gehiago, FAP $\alpha$ -ren adierazpenak, ehun primarioan zein metastasikoan, RCCko tumoreen pronostiko gaiztoko hainbat ezaugarriekin bat egin zuen, hala nola estadio altuekin, nekrosiarekin, aldaera sarkomatoidearekin, metastasi sinkronikoekin eta bereziki gongoil linfatikoetako metastasiarekin.

Emaitza hauek FAP $\alpha$ -k metastasien garapenean rol garrantzitsua joka lezakela iradokitzen dute. Prozesu horretan erabilitako mekanismo potentzialen ikerketarako, FAP $\alpha$ -k markatzaile mesenkimalekin daukan erlazioa aztertu zen. Hala, korrelazio positiboa ikusi zen FAP $\alpha$  eta bimentinaren espresioaren artean, bai ehun primarioan zein metastasikoan. Edonola honek ez du ziurtatzen FAP $\alpha$ -k epitelio-mesenkima trantsizioa (EMT) gidatzen duenik. Izan ere, bimentinak, CAFek gidatutako inbasio kolektiboan parte hartzen dutela frogatu da. Inbasio mekanismo honetan, CAFek eta tumore-zelulek batera migratzen dute agregatuak eratuz. Litekeena da FAP $\alpha$  inbasio mota honetan inplikaturik egotea baina beharrezkoa da norabide honetan sakontzea serina proteasa honek RCCan daukan rola baieztatzeko.

Ondorioz, emaitza hauek FAP $\alpha$ -k giltzurrun-zelulen kartzinomaren pronostikorako tresna potentziala izan daitekeela frogatzen dute. Baina ez hori bakarrik, FAP $\alpha$ -ren espresio patroia bereizgarriak, metastasien garapenarekin daukan erlazioak eta ehun primario eta metastasikoetan erakutsitako korrelazioak, terapia gidatuen diseinurako iturri erakargarri bihurtzen dute.

# AURKIBIDEA

Esker onak.....	I
Laburpena.....	V
Aurkibidea.....	XI
Irudien aurkibidea.....	XV
Taulen aurkibidea.....	XIX
Akronimoak eta laburdurak.....	XXIII
1. SARRERA. Introducción.....	25
1.1 GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMA (RCC).....	2
1.1.1 Giltzurruna.....	2
1.1.2 Giltzurrun-zelulen kartzinomaren ezaugarri orokorrak .....	7
1.1.3 Giltzurrun-zelulen kartzinomaren azpimota histologikoak .....	15
1.2 PEPTIDASAK .....	22
1.2.1 Peptidasen funtzioak.....	23
1.2.2 Peptidasak eta minbizia.....	25
1.3 ERRENINA-ANGIOTENTSINA SISTEMA (RAS) .....	28
1.3.1 Egitura eta funtzioa .....	28
1.3.2 RAS lokalak (IRAS): fisiologia eta patologia .....	32
1.3.3 RAS eta minbizia .....	33
1.3.4 Giltzurruneko errenina-angiotentsina sistema (iRAS) eta giltzurrun-zelulen kartzinoma .....	39
1.4 FIBROBLASTOEN AKTIBAZIO PROTEINA $\alpha$ (FAP $\alpha$ ) .....	45
1.4.1 Egitura eta funtzioa .....	45
1.4.2 FAP $\alpha$ -ren espresioa fisiologian eta patologian.....	47
1.4.3 FAP $\alpha$ eta minbizia .....	48
1.4.4 FAP $\alpha$ eta giltzurrun-zelulen kartzinoma.....	62



2.	HELBURUAK. Objetivos.....	64
2.1	1. KAPITULUA: GILTZURRUNEKO ERRENINA-ANGIOTENTSINA SISTEMAREN (IRAS) IKERKETA GILTZURRUN ZELULEN KARTZINOMAN (RCC) .....	67
2.2	2. KAPITULUA: FIBROBLASTOEN AKTIBAZIO PROTEINA $\alpha$ (FAP $\alpha$ ) ZELULA ARGIEEN GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMAN (CCRCC) .....	68
3.	MATERIALAK ETA METODOAK. Materiales y métodos .....	70
3.1	LAGINA.....	72
3.1.1	Angiotentsinen entzima bihurtzaileen espresioa eta aktibitatea RCC gaixoetan .....	73
3.1.2	Angiotentsina II peptidoaren AT1R eta AT2R hartzaileen semi-kuantifikazioa .....	75
3.1.3	FAP $\alpha$ -ren espresioa CCRCC gaixoetan .....	76
3.2	ADIERAZPEN GENOMIKOA AZTERKETZEKO TEKNIKAK.....	78
3.2.1	Geneen espresioaren kuantifikazio erlatiboa.....	78
3.3	PROTEINEN AZTERKETARAKO TEKNIKAK.....	83
3.3.1	Proteinen espresioaren analisisa IHC-P bidez.....	83
3.3.2	Angiotentsina peptido bihurtzaileen aktibitatearen neurraketa .....	87
3.3.3	Proteina adierazpenaren semi-kuantifikazioa western blot teknikaren bitartez .....	90
3.3.4	Immunofluoreszentzia (IF) .....	95
3.4	ZELULEN KULTIBORAKO TEKNIKAK.....	97
3.4.1	Lerro zelularrak.....	98
3.4.2	Zelulen bideragarritasun entseguak.....	99
3.4.3	Wound healing edo zauri entseguak.....	99
3.4.4	MAPK/ERK seinalizazio bidearen aktibazio entseguak.....	100
3.4.5	Medio baldintzatuarekin buruturiko entseguak .....	101
3.4.6	Fibroblasto eta RCC lerroen arteko ko-kultiboak .....	102
3.5	ANALISI ESTADISTIKOA.....	103
4.	RESULTADOS. Emaitzak .....	104
4.1	CAPÍTULO 1: ESTUDIO DEL SISTEMA RENINA-ANGIOTENSINA INTRARRENAL (IRAS) EN EL CARCINOMA DE CÉLULAS RENALES .....	106

4.1.1	Expresión de las enzimas del sistema renina-angiotensina en los diferentes subtipos de RCC y en tejido renal no neoplásico adyacente .....	106
4.1.2	Expresión de las enzimas del iRAS en función de las variables clínico-patológicas de pacientes con CCRCC.....	109
4.1.3	Asociación de la expresión de las enzimas del iRAS con la supervivencia de los pacientes con CCRCC .....	112
4.1.4	Expresión de los receptores AT1R Y AT2R en el CCRCC y en el tejido adyacente no neoplásico.....	115
4.1.5	Estudios <i>in vitro</i> con líneas celulares de RCC .....	117
4.1.6	Comparación de la actividad enzimática de las enzimas del RAS en el suero de pacientes con RCC y controles sanos .....	121
4.1.7	Actividad sérica de las enzimas del RAS en función de variables clínico-patológicas de pacientes con CCRCC .....	122
4.1.8	Relación de la actividad sérica de las enzimas del RAS con la supervivencia de pacientes con CCRCC.....	125
4.2	CAPÍTULO 2: PROTEÍNA DE ACTIVACIÓN DE FIBROBLASTOS $\alpha$ (FAP $\alpha$ ) EN EL CARCINOMA RENAL DE CÉLULAS CLARAS (CCRCC) .....	128
4.2.1	Análisis histológico de la expresión de FAP $\alpha$ en el CCRCC .....	128
4.2.2	La expresión de FAP $\alpha$ en función de las variables clínico-patológicas de pacientes con CCRCC.....	129
4.2.3	Asociación de la expresión de FAP $\alpha$ con la supervivencia de los pacientes con CCRCC.....	130
4.2.4	Expresión de FAP $\alpha$ en el CCRCC metastásico (mCCRCC) y su relación con variables clínico-patológicas.....	132
4.2.5	Impacto de la expresión de FAP $\alpha$ en la supervivencia a 10 años de pacientes con mCCRCC.....	135
4.2.6	Correlación de la expresión de FAP $\alpha$ con marcadores de transición epitelio-mesénquima (EMT).....	138
4.2.7	Efecto del secretoma de las líneas de RCC en la expresión de FAP $\alpha$ .....	139
4.2.8	Efecto del secretoma de los fibroblastos en la migración de líneas celulares de RCC primarias .....	140
4.2.9	Efecto del co-cultivo celular entre líneas de RCC primarias y fibroblastos.....	144

5.	DISCUSIÓN. Eztabaida .....	148
5.1	CAPÍTULO 1: ESTUDIO DEL SISTEMA RENINA-ANGIOTENSINA INTRARRENAL (iRAS) EN EL CARCINOMA DE CÉLULAS RENALES .....	150
5.2	CAPÍTULO 2: PROTEÍNA DE ACTIVACIÓN DE FIBROBLASTOS $\alpha$ (FAP $\alpha$ ) EN EL CARCINOMA RENAL DE CÉLULAS CLARAS (CCRCC) .....	162
6.	CONCLUSIONES. Ondorioak .....	176
6.1	CAPÍTULO 1. ESTUDIO DEL SISTEMA RENINA-ANGIOTENSINA INTRARRENAL (iRAS) EN EL CARCINOMA DE CÉLULAS RENALES. ....	178
6.2	CAPÍTULO 2: PROTEÍNA DE ACTIVACIÓN DE FIBROBLASTOS $\alpha$ (FAP $\alpha$ ) EN EL CARCINOMA RENAL DE CÉLULAS CLARAS (CCRCC) .....	179
7.	BIBLIOGRAFÍA. Bibliografia .....	180
8.	ANEXOS. Eranskinak .....	226

# **IRUDIEN AURKIBIDEA**

<b>1.1 Irudia.</b> Giltzurrunaren egitura .....	<b>3</b>
<b>1.2 Irudia.</b> Nefrona .....	<b>4</b>
<b>1.3 Irudia.</b> Glomerulua .....	<b>5</b>
<b>1.4 Irudia.</b> Giltzurrun-zelulen kartzinomaren intzidentzia mundu mailan.....	<b>7</b>
<b>1.5 Irudia.</b> RCCaren estadio ezberdinak eta bakoitzaren tratamendurako aukerak.	<b>10</b>
<b>1.6 Irudia.</b> CCRCCaren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B) ....	<b>16</b>
<b>1.7. Irudia.</b> PRCCaren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B).. ...	<b>18</b>
<b>1.8. Irudia.</b> ChRCCaren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B).. ...	<b>19</b>
<b>1.9. Irudia.</b> ROren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B). ....	<b>20</b>
<b>1.10. Irudia.</b> Peptidasa motak hidrolizatzen duten lotura peptidikoaren kokapenaren arabera.....	<b>22</b>
<b>1.11. Irudia.</b> Proteasek aktibaturiko hartzaileen mekanismoaren irudikapena .....	<b>24</b>
<b>1.12. Irudia.</b> Errenina-angiotentsina sistemaren (RAS) eskema orokorra eta ardatz bakoitzak maila lokalean eragiten dituen funtzio klasikoak.....	<b>29</b>
<b>1.13. Irudia.</b> Minbiziaren <i>hallmark</i> edo ezaugarri bereizgarriak eta minbizi zelulei haiek bereganatzea ahalbideratzen dieten ezaugarri gaitzaileak.....	<b>37</b>
<b>1.14. Irudia.</b> Angiotentsina peptidoen entzima bihurtzaileen espresioa giltzurruna eratzten duten zelula mota ezberdinetan (A), odol hodietako zeluletan (B) eta zelula infiltratzaileetan (C).....	<b>44</b>
<b>1.15. Irudia.</b> Tumore-zelulen eta mikroingurua osatzen duten gainontzeko osagaien arteko binoranzkoko komunikazioa ezinbestekoa da tumorearen garapenerako .....	<b>49</b>
<b>1.16. Irudia.</b> Minbiziari atxikitako fibroblastoen (CAF) jatorri ezberdinak.....	<b>51</b>
<b>1.17. Irudia.</b> Minbiziari atxikitako fibroblastoen aktibazio prozesuaren laburpena	<b>53</b>
<b>1.18. Irudia.</b> Minbiziari atxikitako fibroblastoen minbiziaren garapenean eragiten dute.....	<b>54</b>
<b>1.19. Irudia.</b> FAP $\alpha$ -k mekanismo ezberdinen bitartez minbiziaren garapena ahalbideratzen du.....	<b>58</b>

<b>3.1. Irudia.</b> Alderantzizko transkripzioaren protokoloko tenperatura zikloen irudikapena .....	<b>80</b>
<b>3.2. Irudia.</b> qPCRaren protokoloko tenperatura zikloen irudikapena .....	<b>82</b>
<b>3.3 Irudia.</b> Ehun mikroarrayen (TMA) eraikuntzaren infografia parafinaz beteriko ehunetatik abiatu eta tindaketa fasera iritsi arte .....	<b>84</b>
<b>3.4. Irudia.</b> RCC zelulen eta fibroblasto zelulen arteko ko-kultiboaren irudikapena .....	<b>102</b>
<b>Figura 4.1.</b> Tinción hematoxilina-eosina (A-E) e inmunohistoquímica (F-Y) de las enzimas del iRAS en los subtipos histológicos de RCC y en tejido renal adyacente al tumor.....	<b>107</b>
<b>Figura 4.2.</b> Expresión de las enzimas del iRAS en función del grado de Fuhrman (A), la invasión local (pT) (B) y el diámetro tumoral (C) .....	<b>110</b>
<b>Figura 4.3.</b> Curvas de Kaplan Meyer para el análisis de la supervivencia en pacientes con CCRCC en función de la expresión de NEP/CD10 (A) y APA (B) .....	<b>113</b>
<b>Figura 4.4</b> Expresión inmunohistoquímica de los receptores de AT1R (A-C) y AT2R (D-F) en tejido renal adyacente al tumor (A/D) y en CCRCCs de grado bajo (B/E) y alto (C/F).. .....	<b>115</b>
<b>Figura 4.5.</b> Estudio semicuantitativo de la expresión de AT1R en homogenados de CCRCCs y en tejido adyacente no neoplásico .....	<b>116</b>
<b>Figura 4.6.</b> Estudio semicuantitativo de la expresión de AT2R en homogenados de CCRCCs y en tejido adyacente no neoplásico .....	<b>117</b>
<b>Figura 4.7.</b> Expresión de los receptores del iRAS AT1R, AT2R y Mas1 en líneas celulares de RCC y una línea de células renales epiteliales.....	<b>118</b>
<b>Figura 4.8.</b> Análisis de la fosforilación de MAPK 44/42 (Erk 1/2) en respuesta al tratamiento con angiotensina II en líneas de RCC primarias A498 y 786O....	<b>118</b>
<b>Figura 4.9.</b> Efecto de los péptidos angiotensina II (A) y angiotensina 1-7 en la viabilidad de células de RCC primario.....	<b>119</b>
<b>Figura 4.10.</b> Efecto de los péptidos angiotensina II y angiotensina 1-7 (10 µM) en la migración de células de RCC primario .....	<b>120</b>
<b>Figura 4.11.</b> Actividad sérica de NEP/CD10 en función de los modelos pronósticos SSIGN y UISS.....	<b>125</b>

<b>Figura 4.12.</b> Curva de supervivencia de Kaplan-Meyer para pacientes con CCRCC en función de la actividad sérica de NEP/CD10.....	<b>126</b>
<b>Figura 4.13.</b> Tinción H&E e inmunohistoquímica de FAP $\alpha$ en CCRCCs con patrón de crecimiento en nidos o difuso.....	<b>129</b>
<b>Figura 4.14.</b> Curvas de Kaplan Meyer para el análisis de la supervivencia en pacientes con CCRCC en función de la expresión de FAP $\alpha$ .....	<b>131</b>
<b>Figura 4.15.</b> Tinción H&E e inmunohistoquímica de FAP $\alpha$ en CCRCC primario y metastásico.....	<b>132</b>
<b>Figura 4.16.</b> Curvas de Kaplan Meyer para el análisis de la supervivencia en pacientes con CCRCC primario (A) y metastásico (B) en función de la expresión de FAP $\alpha$ .....	<b>136</b>
<b>Figura 4.17.</b> Expresión génica relativa de FAP $\alpha$ en la línea de fibroblastos GM06114 .....	<b>139</b>
<b>Figura 4.18.</b> Análisis de la expresión proteica de FAP $\alpha$ en la línea GM06114 mediante inmunofluorescencia .....	<b>140</b>
<b>Figura 4.19.</b> Efecto del medio condicionado proveniente de células de fibroblasto en la migración de la línea de RCC primario A498 .....	<b>141</b>
<b>Figura 4.20.</b> Efecto del medio condicionado proveniente de células de fibroblasto en la migración de la línea de RCC primario 786O .....	<b>143</b>
<b>Figura 4.21.</b> Expresión génica relativa del factor de transcripción Slug en líneas de RCC primario en función del tiempo de co-cultivo con la línea de fibroblastos GM06114.....	<b>145</b>
<b>Figura 4.22.</b> Expresión génica relativa de N-cadherina y MMP2 en la línea A498 en función del tiempo de co-cultivo con la línea de fibroblastos GM06114 .....	<b>145</b>
<b>Figura 4.23.</b> Análisis de la expresión génica relativa de FAP $\alpha$ en la línea GM06114 a 24, 48 y 72 horas de co-cultivo indirecto con líneas de RCC primario .....	<b>146</b>
<b>Figura 5.1.</b> Balance entre los ejes principales del RAS en el desarrollo del RCC....	<b>154</b>
<b>Figura 5.2.</b> Diagrama de la síntesis del péptido Ang 1-7 en el RCC .....	<b>155</b>
<b>Figura 5.3.</b> Esquema de los 3 ejes centrales del RAS intrarrenal en el CCRCC.....	<b>158</b>
<b>Figura 5.4.</b> Diagrama de la invasión colectiva entre CAFs y células tumorales .....	<b>169</b>



# **TAULEN AURKIBIDEA**

<b>1.1. Taula.</b> AJCCko TNM estadioa RCCn ezartzeko sistemaren irizpideak (8. Edizioa) .....	<b>11</b>
<b>3.1. Taula.</b> Angiotentsinen entzima bihurtzaileen espresioa eta aktibitatea ikertzeko erabilitako RCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak .....	<b>74</b>
<b>3.2. Taula.</b> AT1R eta AT2R hartzaileen espresioa aztertzeke erabilitako CCRCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak .....	<b>75</b>
<b>3.3. Taula.</b> FAP $\alpha$ -ren espresioa aztertzeke erabilitako CCRCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak.....	<b>76</b>
<b>3.4. Taula.</b> FAP $\alpha$ -ren espresioa aztertzeke erabilitako mCCRCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak.....	<b>77</b>
<b>3.5. Taula.</b> Tesi proiektu honetan adierazpen genomikoa aztertzeke erabilitako, errektibo, material suntsikor eta gailuen laburpena .....	<b>78</b>
<b>3.6. Taula.</b> Alderantzizko transkripzioa burutzeko erabilitako errektiboak eta hauen bolumena .....	<b>79</b>
<b>3.7. Taula.</b> Gene espresioaren analisirako erabilitako hasleen sekuentziak .....	<b>81</b>
<b>3.8. Taula.</b> qPCR erreakzioa burutzeko erabilitako errektiboen zerrenda eta bakoitzaren bolumena .....	<b>82</b>
<b>3.9. Taula.</b> Proteinen immunohistokimika bidezko detekzioan erabilitako, errektibo, material suntsikor eta gailuen zerrenda .....	<b>83</b>
<b>3.10. Taula.</b> Immunohistokimika bidez azterturiko proteinen detekziorako erabilitako antigorputzak eta hauen protokolo optimizatuaren ezaugarriak ..	<b>86</b>
<b>3.11. Taula.</b> Angiotentsinen peptido bihurtzaileen aktibitatearen neurketarako erabilitako errektibo, material suntsikor, tanpoi eta gailuen taula.....	<b>87</b>
<b>3.12. Taula.</b> Proteinen Western Blot bidezko detekziorako erabilitako errektibo, tanpoi, material suntsikor eta gailuen zerrenda .....	<b>90</b>
<b>3.13. Taula.</b> Elektroforesi bidezko proteinen banaketarako erabilitako gelak egiteko errektiboak eta hauen proportzioak.....	<b>93</b>
<b>3.14. Taula.</b> Western Blot bidez azterturiko proteinen detekziorako erabilitako antigorputzak eta erabilitako diluzioak.....	<b>94</b>



<b>3.15. Taula.</b> Immunofloreszentzia bidez proteinak detektatzeko erreaktibo, tanpoi, material suntsikor eta gailuen zerrenda .....	<b>95</b>
<b>3.16. Taula.</b> Immunofluoreszentzia bidez azterturiko proteinen detekziorako erabilitako antigorputzak eta erabilitako diluzioak.....	<b>96</b>
<b>3.17. Taula.</b> Zelulen kultibo teknikak garatu ahal izateko erabilitako erreaktibo, material suntsikor eta gailuen zerrenda .....	<b>97</b>
<b>3.18. Taula.</b> In vitro entseguetarako erabilitako lerro zelularren zerrenda. ....	<b>98</b>
<b>Tabla 4.1.</b> Expresión de las enzimas de iRAS en función del subtipo histológico ..	<b>108</b>
<b>Tabla 4.2.</b> Valores de la P del test Log-Rank del análisis de supervivencia de expresión de las enzimas convertidoras de péptidos de angiotensinas para pacientes con CCRCC .....	<b>112</b>
<b>Tabla 4.3.</b> Análisis univariante y multivariante (modelo de Regresión de Cox) de las variables clínico-patológicas con capacidad predictiva de la supervivencia en pacientes con CCRCC junto con la expresión de NEP/CD10 y APA .....	<b>114</b>
<b>Tabla 4.4.</b> Actividad sérica de las enzimas del RAS en pacientes con diferentes subtipos histológicos de RCC y sujetos control.....	<b>122</b>
<b>Tabla 4.5.</b> Actividad sérica de las enzimas del RAS en pacientes con CCRCC en función de diferentes variables clínico-patológicas .....	<b>123</b>
<b>Tabla 4.6.</b> Actividad sérica de las enzimas del RAS en pacientes con CCRCC en función de los modelos pronósticos SSIGN y UISS .....	<b>124</b>
<b>Tabla 4.7.</b> Puntos de corte y valores log-rank para la actividad de las enzimas del RAS en la predicción de supervivencia de pacientes con CCRCC.....	<b>126</b>
<b>Tabla 4.8.</b> Análisis univariante y multivariante (modelo de Regresión de Cox) de las variables clínico-patológicas con capacidad predictiva de supervivencia en el CCRCC y la actividad NEP/CD10 .....	<b>127</b>
<b>Tabla 4.9.</b> Expresión de FAP $\alpha$ en función de variables clínico-patológicas en CCRCCs primarios .....	<b>130</b>
<b>Tabla 4.10.</b> Valores de la P del test Log-Rank del análisis de supervivencia de las variables clínico-patológicas y la expresión de FAP $\alpha$ para pacientes con CCRCC .....	<b>130</b>

<b>Tabla 4.11.</b> Análisis univariante y multivariante (modelo de regresión de Cox) de las variables clínico-patológicas con capacidad predictiva de supervivencia en el CCRCC junto con la expresión de FAP $\alpha$ .....	<b>131</b>
<b>Tabla 4.12.</b> Expresión de FAP $\alpha$ en función de variables clínicas y patológicas en CCRCCs primarios .....	<b>133</b>
<b>Tabla 4.13.</b> Expresión de FAP $\alpha$ en función de variables clínicas y patológicas en tejido metastásico .....	<b>134</b>
<b>Tabla 4.14.</b> Análisis univariante y multivariante (modelo de regresión de Cox) de las variables clínico-patológicas con capacidad predictiva de supervivencia en el CCRCC junto con la expresión de FAP $\alpha$ en tumores primarios y metastásicos .....	<b>137</b>
<b>Tabla 4.15.</b> Correlaciones entre la expresión de FAP $\alpha$ y marcadores de transición epitelio-mesénquima en tejido de CCRCC primario (FAPp) y metastásico (FAPm).....	<b>139</b>



## **AKRONIMOAK ETA LABURDURAK:**

- ACE:** angiotensin-converting enzyme
- iACE:** angiotensin-converting enzyme inhibitor
- ACE2:** angiotensin-converting enzyme 2
- AJCC:** American Joint Committee on Cancer
- Ang 1-7:** angiotensin 1-7
- Ang II:** angiotensin II
- Ang III:** angiotensin III
- APA:** aminopeptidase A
- ARB:** angiotensin II receptor blocker
- AT1R:** angiotensin II type 1 receptor
- AT2R:** angiotensin II type 2 receptor
- BMI:** body mass index
- CAF:** cancer-associated fibroblast
- CCRCC:** clear cell renal cell carcinoma
- mCCRCC:** metastatic clear cell renal cell carcinoma
- ChRCC:** chromophobe renal cell carcinoma
- CKD:** chronic kidney disease
- CM:** conditioned medium
- ECM:** extracellular matrix
- EMT:** epithelial-mesenchymal transition
- DNA:** deoxyribonucleic acid
- DPPIV/CD26:** dipeptidyl peptidase IV
- ECOG:** Eastern Cooperative Oncology Group
- FAP $\alpha$ :** fibroblast activation protein  $\alpha$
- FBS:** fetal bovine serum

**HIF:** hypoxia-inducible factor

**MAPK:** mitogen-activated protein kinase

**MMP:** matrix metalloproteinases

**NEP/CD10:** neprilysin, neutral endopeptidase

**PBS:** phosphate-buffered serum

**PI3K:** phosphatidylinositide 3 kinase

**PRCC:** papillary renal cell carcinoma

**PRR:** (pro)renin receptor

**PSA:** prostate-specific antigen

**RAS:** renin-angiotensin system

**iRAS:** intrarenal renin-angiotensin system

**IRAS:** local renin-angiotensin system

**RCC:** renal cell carcinoma.

**mRCC:** metastatic renal cell carcinoma

**RNA:** ribonucleic acid

**RO:** renal oncocytoma

**ROS:** reactive oxygen species

**RT:** room temperature

**RTK:** receptor tyrosine kinase

**SSIGN:** stage, size, grade and necrosis

**TGF- $\beta$ :** transforming growth factor beta

**TMA:** tissue microarray

**TNM:** Tumor size. Lymph Nodes affected. Metastasis

**UISS:** ucla integrated staging system

**VEGF:** Vascular-Endothelial Growth Factor

**VHL:** von-Hippel Lindau

**WHO:** World Health Organization

# **1. SARRERA. Introducción**



## 1.1 GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMA (RCC)

Giltzurrun-zelulen kartzinoma (ingeleseko *Renal Cell Carcinoma* RCC) giltzurruneko tubuluetako zelula epitelialetatik eratorritako minbizien taldea da Munduko Osasun Erakundearen tumoreen sailkapenaren arabera (WHO *classification of tumors*). Giltzurrunean ematen diren minbizien %90 zelula hauetatik eratorriak dira eta beraz, organo hauetako minbizi ohikoena da.

### 1.1.1 GILTZURRUNA

Giltzurrunak abdomeneko atzeko hormari itsatsita dauden organo pareta dira, bizkarrezurraren alde banatan kokatuak. Gizaki helduetan, 115 eta 170 gramo arteko pisua izan ohi dute eta 11 cm luze, 6 cm zabal eta 3 cm lodi izan ohi dira gutxi gorabehera.


Giltzurrunak ezinbestekoak dira barne ingurunearen homeostasia mantentzeko. Betetzen dituzten funtzio ezberdinei erreparatuz gero, organismoaren homeostasia mantentzeko lanetan diharduten organoen artean garrantzitsuenak lirateke. Izan ere, metabolismitik sorturiko hondakinak iraitzez gain, zelulez kanpotiko fluidoaren osmolaritatea, bolumena, azido-base oreka eta konposizio ionikoa kontrolatzen dituzte. Are gehiago, parametro hauek zelulen barnean ere kontrolatzen dituzte zeharka bada ere (1).

Funtzio erregulatuak hauek bete ahal izateko, giltzurrunek iragazki gisa jarduten dute, jasotako odolatik abiatuz, gernua sortuz. Honela, giltzurrunen egitura estuki erlazionatuta dago bere funtzioarekin.



## Giltzurrunaren egitura


Giltzurruna zirkulazio sistemarekin zuzenean lotuta dago giltzurrun arteria eta zainaren bitartez. Hauek, giltzurrun pelbisarekin batera hilo deritzon zirrikituaren bitartez iritsi eta irteten dira giltzurrunetik (1.1 Irudia). Halaber, giltzurrunaren ebaketa longitudinal bat aztertuz gero, bi eremu ezberdin bereizi daitezke, kanpoaldeko azala edo kortexa eta barnealdeko muina. Giltzurrun piramide deritzen masa konikoek osatzen dute muina. Hauetako bakoitzaren erpinean, giltzurrun papila kokatzen da. Papila zeharkatuz, gertu giltzurrun kalizetara isurtzen da aurrena, ondoren, giltzurrun pelbisetik ureterreraino iritsiko dena (1,2).



**1.1 Irudia. Giltzurrunaren egitura.** Giltzurrunak abdomeneko atzeko hormari itsatsita dauden organo pareta dira. Irudian organo honen egitura eta osagai nagusiak ageri dira. (\*)*OpenStax College*k sortutako *The Kidney* izeneko irudiaren egokitzapena da, eta *Creative Commons*en CC-BY-3.0 lizentziarekin erabil daiteke.

## Nefrona

Nefrona giltzurrunaren unitate funtzionala da. Giza giltzurrun bakoitza 1,2 milioi nefronak osatzen dute eta zelula bakarreko geruzaz osaturiko hodi gisa definitzen dira. Nefrona bakoitza giltzurrun korpuskuluak (glomerulua eta Bowmanen kapsula), hurbileko hodiak, Henleren lakioak, urruneko hodiak eta hodi biltzaileak osatzen dute (1.2 Irudia). Atal bakoitza garraio funtzio espezifikoak burutzeko diseinaturiko zelula ezberdinez osatuta dago. Gainera, giltzurrunaren kortez eta muinean zehar duten kokapenaren arabera, bi mota bereizten dira, gainazaleko nefronak eta juxtaglomerularrak.




**1.2 Irudia. Nefrona.** Giltzurrunaren unitate funtzionala da. Giltzurrunean zehar daukaten kokapenaren arabera bi mota ezberdindu daitezke, juxtaglomerularrak (ezkerrean) eta gainazalekoak (eskuinean). (\*)Holly Fischerek sortutako *Kidney Nephron* izeneko irudiaren egokitzapena, *Creative Commons*en CC-BY-3.0 lizentziarekin erabil daiteke.

## 1. Sarrera. Introducción

Giltzurrun-zelulen kartzinoma mota ezberdinek, nefronaren atal ezberdinetako zelulatan daukate jatorria.

### *Glomerulua*

Kapilarrez osaturiko sarea da, Bowmanen kapsulak inguratua (1.3 Irudia). Bertan arteriola aferenteetatik iritsitako odola iragazi eta gertuaren aitzindari izango dena sortzen da. Lehenengo iragazi hau, plasmaren oso antzekoa da (proteinen kontzentrazioan izan ezik) baina giltzurruneko hodietan barrena aurrera egin ahala, zenbait osagairen absortzioa eta beste hainbaten jariaketa jasango ditu giltzurrun pelbisera iritsi aurretik.



**1.3 Irudia. Glomerulua.** Odolaren iragazpen prozesua hasten duen nefronaren atala. Kapilarrez osaturiko sarea da. (\*)Holly Fischerek sortutako *Kidney Nephron Cells* irudiaren egokitzapena, *Creative Commons* CC-BY-3.0 lizentziarekin erabilgarria.

### *Hurbileko hodiak*

Bowmanen kapsularen jarraian datorren nefronaren atala da, eta 12-25 mm-ko luzera eta 70 µm diametroko hodia da. Lehen zatia, hurbileko hodi bihurtzailea, xurgapen tubularrerako gainazala areagotzen duten mikrobilo ugariko zelula kuboideek osatzen dute. Henleren lakiora hurbilduz joan ahala, zelulen mikrobilo kopurua jaitsi egiten da eta baita mitokondrioena ere, zelulek morfologia lauagoa hartzen dutelarik.

## 1. Sarrera. Introducción

### *Henleren lakioa*

Henleren lakioa hodiaren paretaren lodiera murrizten den tartean hasten da. Hala, lakioaren zati fineko zelulak ezkatatsuak dira, hots, finak eta zapalak. Are gehiago, lakioaren goranzko zein beheranzko atala osatzen duten zelulak oso antzekoak dira egiturari dagokionez, funtzionaltasunari dagokionez ezberdintasunak nabarmenak diren arren. Goranzko atal lodiko zelulak aldiz, tamainan hurbileko hodia osatzen dutenen antzekoak dira, baina ez dute mikrobilorik alde luminalean.

### *Hodi distala edo urruneko hodia*

Henleren lakioak giltzurruneko kortexean daukan jarraipena da. Honen hasierako zelulak, Henleren lakioko goranzko atal lodikoen antzekoak dira eta amaierakoak aldiz hodi biltzailea osatzen dutenen antzekoak. Zelula guzti hauek mitokondriak inguratzen dituzten inbaginazioak dituzte beraien oinaldean. Azpimarragarria da urruneko hodia eratzen duten zelula nagusien artean, zelula tartekatuta deritzen beste zelula mota bat ere ageri dela. Hauek, ez dute inbaginaziorik mintzaren oinaldean baina bai ordea zitoplasmaren luzapenak alde luminalean. Anhidrasa karbonikoaren aktibitate altuagatik ezberdintzen dira.

### *Hodi biltzailea*


Urruneko hodiarekin batera nefrona distala eratzen du. Zelula kuboideek osatzen dute baina hurbileko hodiekin alderatuz hauek ez daukate luzapenik alde luminalean. Gainera, hauen artean ere, zelula tartekatuak aurkitu daitezke. Kortexean, hodi biltzaile bakoitzak 6 hodi distal ezberdin batzen ditu eta muinean sartu ahala, hodi biltzaileak bat eginez doaz Belliniren hodia eratuz. Honek amaitzeko giltzurrun kalizetan iragazten duelarik (2).

## 1.1.2 GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMAREN EZAUGARRI OROKORRAK

### Intzidentzia eta heriotza-tasak

Mundu osoan zehar diagnostikatzen diren minbizietatik %2,4 inguru dira giltzurrun-zelulen kartzinoma eta minbiziak eragindako heriotzen %1,7ren erantzule dira (3). Beste era batera esanda, urtero 295 000 kasu berri diagnostikatu eta 134 000 heriotza eragiten ditu munduan (4). Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2090 kasu berri diagnostikatu ziren 2009-2013 urteen artean (1449 gizonezkoetan eta 641 emakumezkoetan) eta intzidentziak urteko %2,4ko gorakada esanguratsua jasan zuen bi sexuetan. Gainera, 2011-2015 urteen artean 681 heriotza eragin zituen (452 gizonezkoetan eta 229 emakumezkoetan) (5).

Giltzurrun-zelulen kartzinoma bi aldiz ohikoagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino. Halaber, intzidentzia askoz altuagoa da herrialde garatuetan, 15 aldiz altuagoa esaterako Europa iparraldeko eta mendebaldeko hainbat herrialdetan Afrikako hainbatekin alderatuz (1.4 Irudia) (6).



**1.4 Irudia. Giltzurrun-zelulen kartzinomaren intzidentzia mundu mailan.** 2012rako RCC kasuen estimazioa 100.000 biztanleko adinaren arabera estandarizatuta eta bi sexuak kontutan hartuta. (\*) Irudia Munduko Osasun Erakundearen (WHO) <http://globocan.iarc.fr> web orrialdetik ateratakoa da.

## 1. Sarrera. Introducción

Orokorrean giltzurrun-zelulen kartzinomaren intzidentzia gora doan arren, honek eragindako heriotza-tasa egonkortu edo jaitsi egin da herrialde garatuetan. Fenomeno honen arrazoietakoa bat irudi tekniken erabilera orokortuak eragin duen giltzurruneko masa txikien zorizko diagnostikoa izan liteke. Diagnostiko goiztiarra izanik, tumoreak 4 cm baino txikiagoak izan ohi dira eta oro har ez dute metastasirik aurkezten, pronostikoa hobetuz (7).

### **Arrisku faktoreak**

Giltzurrun-zelulen kartzinoma jasateko arriskua handiagoa da adinean aurrera egin ahala. Honela, 2013. urtean diagnostikaturiko giltzurrun minbizien %65 60 urtetik gorako pertsonengan jazo ziren. Halaber, heriotza-tasa altuena ere adin tarte honetan aurki daiteke, hain zuzen ere heriotza guztien %72,1 (8).

Adinak duen eragin saihestezinaz gain, beste 3 faktorek berebiziko garrantzia daukate RCCren garapenean (9):

#### *Tabakismoa*

Tabako erretzaileek giltzurrun-zelulen kartzinoma jasateko arrisku handiagoa dute ez erretzaileek baino, %50ekoa gizonezkoetan eta %20koa emakumezkoetan. Gainera arriskuaren igoera dosiaren menpekoa da (10).

#### *Obesitatea*

Gehiegizko pisua eta obesitateak giltzurrun-zelulen kartzinoma jasateko arriskua areagotzen dute. Gorputz masaren indizean (BMI) 5 kg/m<sup>2</sup>-ko igoerak arriskua %24ean handitzen du gizonezkoetan eta %34ean emakumezkoetan (11).

#### *Hipertentsioa*

Presio arterial altuak RCC jasateko arriskua areagotzen du. Obesitatea eta hipertentsioa estuki erlazionatuta dauden arren, giltzurrun-zelulen kartzinoma jasateko arriskuan duten eragina independentea da. Presio arterial altuaren kontrol eraginkorrak, anihipertentsibo bitartez esaterako, babes funtzioa betetzen dute (12).

## 1. Sarrera. Introducción

Hiru hauetaz gain, badira beste hainbat faktore kliniko RCCrekin erlazionatuak izan direnak, hala nola, diabetes mellitusa. Giltzurrun minbizia izateko arrisku areagotua frogatu da giltzurruneko gaixotasun kronikodun (CKD) pazientetan, hemodialisidunetan, giltzurrun transplantedunetan, giltzurruneko gaixotasun kistikodunetan eta aurretik giltzurrun-zelulen kartzinoma jasan dutenetan. Aldiz, ariketa fisikoak, barazki eta frutan aberatsak diren dietek eta alkoholaren neurrizko kontsumoak ( $\geq 15$  g/egun) babes gisa jokatuko lukete (9).


Faktore genetikoek ere eragiten dute. Giltzurruneko minbizi guztien %3-5 artean herentziazkoak direla kalkulatzen da. Herentziazko gaitzen ikerketak hainbat mutazio azaleratu ditu (BAP1, FLCN, FH, MET, PTEN, SDHB, SDHC, SDHD, TSC1, TSC2 eta VHL geneenak), hauetako batzuk gainontzeko minbizietan ere aurkitzen direnak (13). Gainera mutazio hauek giltzurrun minbizi azpimota jakinekin erlazionatzen dira.

### **Diagnostikoa eta pronostikoa**

Esan bezala, abdomeneko irudi teknikei esker, zoriz diagnostikatzen dira giltzurruneko minbizien %48-66 artean herrialde garatuetan. Honela, kasu hauen %80 inguruk ez dute sintomarik aurkezten (7). Hematuria, saihets-aldeko mina eta masa abdominalen agerpena dira RCCren sintoma klasikoak baina gaur egun gaixotasun aurreratuaren erakusle dira eta pronostikoa okerragotzen dute. Halaber, nekea, pisuaren galera eta anemia eritasun honi atxiki dakizkioken ezaugarri ez espezifikokoak dira (14). Diagnostiko guztien laurden batek gutxi gora-behera, metastasi sinkronikoak aurkezten dituzte, hau da, tumore primarioaren diagnostikoarekin batera, metastasiak ere detektatzen dira. Birrikak, hezurak, gibela eta garuna dira metastasiak garatzeko ehun ohikoenak. Are gehiago, tumore lokalizatuak ezabatzeko ebakuntza egin ostean, gaixoen heren batek, metastasi metakronikoak garatzen dituzte (15).

# 1. Sarrera. Introducción

RCCdun pazienteen pronostikoa faktore ezberdinek baldintzatzen dute. Edonola, badaude onarpen zabala duten predikziorako tresnak, tumorearen ezaugarri ezberdinetatik abiatuz, bizi itxaropenaren estimazio bat ahalbideratu eta tratamendurako erabakiak hartzeko erabiltzen direnak (16). Hauen artean ezagunena tumorearen estadioa da, *American Joint Committee on Canceren (AJCC)* TNM sistema delarik erabiliena RCCn (1.5 Irudia) (17).



**1.5 Irudia. RCCaren estadio ezberdinak eta bakoitzaren tratamendurako aukerak.** Estadio baxuetako tumoreak (I eta II) giltzurrunera mugatuta daude eta ez dute tratamendu sistemiko beharrik. Aldiz estadio altuetan (III eta IV), tumoreak inguruko edo urruneko ehunak inbaditu ditu, tratamendu sistemikoa beharrezkoa da eta biziraupenak nabarmen egiten du behera. (\*) Hsieh eta lankideen *Renal Cell Carcinoma* reviewtik ateratako irudiaren egokitzapena (18).

Honela, AJCC estadioak, tumoreak 4 taldetan sailkatzen ditu tumore primarioaren inbasio lokala (T edo pT), gongoil linfatikoen afekzioa (N) eta metastasien existentziaren (M) arabera (1.1. Taula). Sailkapenean gora egin ahala, tumorearen hedapena handiagoa da eta beraz pronostikoa okerragoa.



## 1. Sarrera. Introducció

**1.1. Taula. AJCCko TNM estadioa RCCn ezartzeko sistemaren irizpideak (8. Edizioa).** Estadioa, tumore primarioaren tamaina eta inbasio lokalak, inguruko gongoil linfatikoen zein urruneko ehunen inbasioa kontutan hartuta ezartzen da.

<b>Tumore primarioaren inbasio lokala (T edo pT)</b>	
pTX	Tumore primario baloraezina
pT0	Tumore primarioaren ebidentziarik ez
pT1	Giltzurrunera mugaturiko tumorea, $\leq 7$ cm dimentsio handiengan
pT1a	$\leq 4$ cm-ko tumoreak
pT1b	$>4$ cm baina $\leq 7$ cm-ko tumoreak
pT2	Giltzurrunera mugaturiko tumorea, $\geq 7$ cm dimentsio handiengan
pT2a	$> 7$ cm baina $\leq 10$ cm-ko tumoreak
pT2b	$> 10$ cm-ko tumoreak, giltzurrunera mugatuak
pT3	Odol hodi nagusietara edo giltzurrun inguruko ehunetara hedaturiko tumoreak, baina ez guruin suprarrenal (ipsilateralera), ezta Gerotaren fasziar haratago.
pT3a	Giltzurrun zainera edo honen zaina segmentarioetara hedaturiko tumoreak edo giltzurrunaren inguruko edota giltzurrun sinuko gantzerara hedaturikoak, edota sistema pelbikalizeala inbaditurikoak baina ez Gerotaren fasziar haratago.
pT3b	Kaba zainera diafragmaren azpitik nabarmen hedaturiko tumoreak
pT3c	Kaba zainera diafragmaren gainetik nabarmen hedaturiko tumoreak edo kaba benaren horma inbaditu dutenak
pT4	Gerotaren fasziar haratago inbaditu duten tumoreak (alboko guruin suprarrenal ipsilateralera hedapena barne)
<b>Inguruko gongoil linfatiko inbasioa (N)</b>	
NX	Inguruko gongoil linfatikoen inbasio baloraezina
N0	Inguruko gongoil linfatikoetan metastasirik ez
N1	Metastasiak inguruko gongoil linfatikoen
<b>Metastasiak urruneko ehunetan (M)</b>	
M0	Metastasirik ez
M1	Metastasiak urruneko ehunetan
<b>Estadioa</b>	
I estadioa	T1, N0, M0
II estadioa	T2, N0, M0
III estadioa	T1/T2, N1, M0; T3, N0 edo N1, M0
IV estadioa	T4, edozein N, M0; Edozein T, edozein N, M1

## 1. Sarrera. Introducción

Ohikoena izan arren, estadioa ez da klinikan erabili ohi den tresna pronostiko bakarra. 1982an, Fuhrmanek, tumoreak gradutan sailkatu zituen, tumore-zelulen nukleoaren tamaina, irregulartasuna eta nukleoloen prominentziaren arabera (19). Gradu sailkapen honek bere mugak dituen arren (ez da erabilgarria tumore azpimota guztietan), unibertsalki erabiltzen da RCCren prognosian. 2012an, Patologia Urologikoetarako Erakunde Internazionalak (ingelesezko ISUP), gradu bidezko sailkapena ezartzeko parametroak doitu zituen (20).

Halaber badaude tumoreari atxikitako hainbat ezaugarri pronostikoan zuzenean eragiten dutenak. Esaterako, minbizi zelulen diferentziazio sarkomatoide eta rhabdoidea, biak pronostiko okerrago baten adierazgarri dira (21,22). Antzera, nekrosiaren presentziak pronostiko gaiztoko hainbat faktoreekin korrelazionatzen du (23).

Faktore pronostiko hauen konbinazioz algoritmo eta nomograma ezberdinak sortu dira RCCdun gaixoen pronostikoa optimizatzeko helburuarekin. Modelo hauek tumorearen errekurrentzia, metastasien agerpena edota heriotza iragartzeko tresna erabilgarriak dira eta ondorioz, gaixoaren jarraipen mota edo tratamendu adjubantearen beharra zehazteko erabiltzen dira. Hauen artean esanguratsuenak Kaliforniako Unibertsitateko *UCLA Integrated Staging System* (UISS) eta Mayo Klinikaren *Stage, Size, Grade and Necrosis* (SSIGN) dira (24,25). Aurrenekoak, TNM estadioa, gradua eta *Eastern Cooperative Oncology Group* (ECOG) *patient performance status*a erabiltzen ditu gaixoak errekurrentziarako arrisku baxu, ertain eta altukoaren artean estratifikatzeko. Bigarrenak aldiz, bere izena osatzen duten parametroak darabilzki eta soilik zelula argien giltzurrun-zelulen kartzinoma (CCRCC) azpimotan aplikatzen da.

### Tratamendua

RCCarentzat tratamendu estandarra kirurgia da, sendatzeko gaitasuna duen bakarra baita eta beraz, bideragarria den kasu guztietan aplikatzen da, izan nefrektomia partzial (PN) zein erradikala (RN) (26). Kirurgia tumorearen estadio klinikoak eta gaixoaren egoera orokorrak baldintzatzen dute. Bideragarria ez den kasuetan, gaixoaren jarraipen aktiboa eta terapia ablatiboak erabiltzen dira, krioterapia eta radiofrentzia bidezko ablazioa kasu (27). Izan ere, RCC ohiko kimioterapia eta erradioterapia tratamenduekiko erresistentea da (28,29).

#### *Kirurgia*

Kirurgia tratamendu ohikoena, nefrektomia erradikala da, hots, giltzurrun osoaren, inguruko gantz eta gongoil linfatikoen eta giltzurrun gaineko guruinaren erauzketa, gaur egun laparoskopia bidez gauzatzen dena (30,31). Hala ere, nefrektomia partzialak, giltzurrunaren parenkima osasuntsua ahal bezain beste mantentzea helburu duenak, erradikalak bezain emaitza onak erakutsi ditu tumore goiztiarretan eta halaber bada ere, (giltzurrun bakarreko gaixoetan, CKDdunetan eta aldebiko tumoreen kasuan esaterako) erabiltzen da (32,33).

Giltzurrun-zelulen kartzinoma metastasikodun (mRCC) gaixoetan tumore primarioaren erauzketak (nefrektomia zitoerreduktiboa), gaixoaren biziraupena luzatzen du, 7,7 hilabetetik 17,1 hilabetera batez beste, tratamendu sistemikoa jasotzen ari diren gaixoetan (34). Halaber, metastasektomiak, hots, metastasien erauzketa kirurgikoak, bideragarria den kasuetan, biziraupena luzatzen du (35).

#### *Terapia gidatuak*

Azken hamarkadan mRCCdun gaixoei zuzendutako hainbat agente terapeutiko eta immunoterapiarako agente bat onartu dira mRCCaren tratamendua aldatuz. Agente terapeutikoei dagokienez, bi taldetan sailka daitezke; batetik angiogenesiaren kontrako terapia edo tirosin kinasa hartzaileen (RTK) inhibitzaileak, diana gisa *vascular endothelial growth factor* (VEGF)-en seinalizazio bidea dutenak eta bestetik *mammalian target of rapamycin* (mTOR)-en inhibitzaileak.

## 1. Sarrera. Introducción

Aurrenekoen artean daude, sorafenib, sunitinib, pazopanib eta axitinib esaterako. Hain zuzen ere, 2007an argitaratutako lan batek, sunitinibak ordurarteko tratamenduek (interferon- $\alpha$  eta IL-2) baino erantzun eta biziraupen tasa hobekak zituela frogatu zuen (36). Honek sunitiniba lehen lerroko tratamendu estandar gisa kokatu zuen, pazopanib eta bevacizumab/interferon- $\alpha$  konbinazioarekin batera. Tratamendu hauen arazo nagusia tumoreek hauekiko aurkezten duten erresistentzia da, batzuen kasuan berezkoa eta besteetan hartutakoa (37). Honela bigarren lerroko tratamendu gisa, beste RTK inhibitzaile batzuekin batera, everolimus eta temsirolimus mTORen inhibitzaileak erabiltzen dira (38,39). Hauen bitartez, gaixotasuna kontrolatzea lortzen da, 8-9 hilabetez lehen lerroko tratamenduan eta 5-6 hilabetez bigarrenekoan (37–39). Tratamendu hauek bereziki azpimota histologiko ohikoenerako (CCRCC) diseinatuak izan arren, RTKen inhibitzaileak azpimota denetan erabiltzen dira, eraginkortasun mugatuagoa izan arren (40).

Berriki, ikerketa ildo berri bat ireki du immunoterapiarako agenteen generazio berri batek, zeintzuek T zelula inmuunen "*checkpoint*"ak inhibitzen dituzten. Hauen artean nivolumab deritzon antigorputzak eraginkortasun handiagoa erakutsi du bigarren lerroko tratamendu gisa everolimusak baino (41). Gainera, erantzun tasa altuagoa dauka eta baita tolerantzia hobea. Honen edo antzekoen eta VEGFaren aurkako terapien konbinazioa bideragarria dela frogatu da eta mRCCren tratamenduaren oinarri izango da hurrengo urteetan.

### **Etorkizuneko perspektibak**

Tumoreen biologiaren ulermenak eta terapia gidatuen garapenak giltzurrun-zelulen kartzinomaren tratamenduan aurrerapen nabarmenak eragin ditu. Edonola, tumorearen heterogeneotasunak eta tratamenduen aurka garaturiko erresistentziak, emaitza klinikoa baldintzatzen jarraitzen dute. Guzti hau kontutan hartuta, honakoak dira gaitz honekin erlazionaturiko erronka garrantzitsuenak.

## 1. Sarrera. Introducción

### *Arrisku handiko gaixoen detekziorako eta tratamendu egokiaren aukeraketarako biomarkatzaileen garapena*

RCCko hainbat ohiko mutaziok tratamendu espezifikoaren eraginkortasuna iragartzeko gaitasuna erakutsi dute. Esaterako, KDM5C mutaziodun gaixoen sunitinibarekiko erantzuna, everolimusarenarekiko baino bi aldiz hobea da, progresiorik gabeko biziraupena kontutan izanez gero (42). Halaber, jakinda kirurgia osatzailea jasan duten gaixoen %30 inguru berriro erituko direla, fenomeno hau iragartzeko gaitasuna duten biomarkatzaileak oso eraginkorrak lirateke. Hauek guztiak pronostikorako erabiltzen diren algoritmo eta nomogrametara gehitzea, lagungarria litzateke kasuan kasuko tratamendu egokiena aukeratzeko.

### *Terapia berrien garapena eta tratamenduaren optimizazioa*

Inmunoterapiaren arloan zein beste diana batzuen aurka garapenean dauden botika berriek RCCren tratamenduan aurrerapen nabarmenak eragitea espero da. Honela, eta kontuan izanda sendagarri espezifiko hauen konbinazioa bakarrarena baino eraginkorragoa dela, erronka gaixo bakoitzarentzat hoberena den tratamendu erregimena diseinatzea izango da. Tratamenduen toxizitatea ekidin eta hauen aurka garaturiko erresistentzia saihestu eta gainditzea arrakastarako gakoak izango dira.

### 1.1.3 GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMAREN AZPIMOTA HISTOLOGIKOAK


2016. urtean Munduko Osasun Erakundeak argitaratutako gernu aparatuko minbizien sailkapenaren arabera, gutxienez giltzurruneko zelula epitelialetan jatorria duten 15 minbizi mota zenbatu daitezke (43). Ohikoenak "zelula argien giltzurrun-zelulen kartzinoma" (ingeleseko *clear cell renal cell carcinoma* CCRCC), giltzurrun-zelulen kartzinoma papilarra (*papillary renal cell carcinoma* PRCC) eta giltzurruneko zelulen kartzinoma kromofoboa (*chromophobe renal cell carcinoma* ChRCC) dira. Hiru azpimota hauek giltzurrun-zeluletako minbizien %90etik gora batzen dute (44). Lan honetan intzidentzia altueneko hiru azpimotez gain giltzurruneko onkozitoma (*renal oncocitoma* RO) ere aztertu da, giltzurruneko neoplasia onbera ohikoena.

## Zelula argien giltzurrun-zelulen kartzinoma: CCRCC

Giltzurrun-zelulen kartzinomen artean ohikoena da, kasu guztien %70 ingururekin (45). Gainera, pronostiko gaiztoena daukana da, metastasiak jasateko probabilitatea 4 aldiz handiagoa baita azpimota honetan beste bietan baino. Honela, 5 eta 10 urteko biziraupen tasa %71 eta %62koa da hurrenez hurren (46).

Makroskopikoki, ongi mugaturiko tumore biribildu, nodular eta bakartia izan ohi da (1.6 Irudia). Tubulu proximaleko zeluletan du jatorria eta beraz, giltzurrun kortexean kokatzen da, sarri bertatik nabarmenduz. Tumore-zelulen gantz kantitate altuak kolore horixka karakteristikoa ematen dio. Halaber, nekrosia, hemorragiak, eta kaltzifikazioak ohiko ezaugarriak dira.

Mikroskopikoki aldiz, zitoplasma zabal eta argi zelulek eraturiko tumoreak dira, mintz zelular ezberdinez inguratuak (1.6 Irudia). Tumore-zelulak odol-hodi sare batean txertatuta ageri dira eta egitura ezberdinak har ditzakete, solidoa, albeolarra eta azinarra kasu eta hauek sarri nahasita ageri dira (47).



**1.6 Irudia.** CCRCCaren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B). Makroskopikoki, giltzurrunaren beheko poloan kokaturiko 8 cm-ko tumorea ikus daiteke, giltzurrun kortexetik haratago hedatzen dena (A). Hematoxilina-eosina tindaketak tumore-zelulen zitoplasma zabal eta argia ikustea ahalbideratzen du. (\*) A irudia Ed Uthmanek sortutako *Renal Cell Carcinoma* izeneko irudiaren egokitzapena da, *Creative Commons*en domeinu publikorako utzia.

## 1. Sarrera. Introducción

Azpimota histologiko honen patofisiologian von Hippel-Lindau (VHL) tumoreen gene supresoreak berebiziko garrantzia dauka. CCRCCan mutazio arruntena da (48) eta hain da garrantzitsua non bere galera osoa, dela mekanismo genetiko zein epigenetiko bidez, minbizi mota honen garapenean ezinbesteko aitzindari kontsideratzen den (49). VHL genearen galerak, HIF1 $\alpha$  eta HIF2 $\alpha$  hipoxia faktoreen metaketa eragiten du, ehunen oxigenazioa arrunta izan arren. Transkripzio faktore hauen pilaketak angiogenesisia, glikolisia eta apoptosia erregulatzen dituzten geneak aktibatzen dituzte (50). Honek azaltzen du, batetik, CCRCC tumoreak lipido eta glikogenoan aberatsak izatea eta bestetik, tumoreen baskularizazio maila altua eta ondorioz, VEGF itu gisa daukaten tratamenduen eraginkortasuna.

Edonola, VHL genearen galera hutsa ez da nahikoa CCRCC garatzeko. Honela, minbiziaren genomika aztertzeko proiektuek, prebalentzia altuko hainbat mutazio detektatu dituzte, hala nola PBRM1, SETD2, BAP1, KDMC5 eta MTOR geneenak (48). MTOR genearen mutazioak aktibatzaileak izan ohi dira eta tratamenduan seinalizazio bide honen inhibitzaileek duten eraginkortasuna azaltzen dute (51).


Tumoreen analisi genetiko multiregionalak CCRCCaren izaera heterogenikoa azaleratu eta honen filogenia ulertzen lagundu du. Horrela, VHL genearen mutazioa eta 3p besoaren galera heterozigotikoa gertaera unibertsalak dira tumorean (52). Aldiz gainontzeko mutazio ohikoenek, distribuzio heterogeneoa daukate tumore primario zein metastasien gune ezberdinetan. CCRCC-aren tumore-barneko heterogeneotasun honek gaixotasunaren pronostiko ez-ziurra baldintatzen du (55).

Azken urteetan immunoterapia izaten ari den garapenak minbiziaren tratamendurako estrategia berriak proposatu ditu. Zentzu honetan, azpimarragarria da *The Cancer Genome Atlas* ikerketa programan aztertutako 19 minbizi motatatik, T zelulen infiltrazio maila altuena CCRCCan aurkitu zela (53), immunoterapiak RCCko azpimota honetan eraginkortasun handia izan dezakeela iradokitzen baitu.

## Giltzurrun-zelulen kartzinoma papilarra: PRCC

Nahiz eta CCRCctik urrun, giltzurrun-zelulen kartzinomen artean bigarren azpimota ohikoena da, kasu guztien %18,5 inguru PRCCak direlarik. CCRCcak bezala, nefronako hurbileko hodietan dauka jatorria baina honek baino pronostiko hobea dauka, 5 urteko biziraupen tasa %91n kokatzen delarik (46).

Ongi mugaturiko tumore kortikalak izan ohi dira, sarri kapsula fibrotiko sendoz inguratuak (1.7. Irudia). Hemorragia, nekrosia eta degenerazio zistikoa ezaugarri arruntak dira eta tumore foko ezberdinen agerpena gainontzeko RCC azpimotetan baino ohikoagoa da (45). Mikroskopikoki, egitura papilar eta tubularrek osatzen dute, proportzio ezberdinetan. Nukleo papilarrak geruza zelulabakarrez osatzen dira. Nukleo fibrobaskularrak diagnostiko diferentzialerako gakoak dira, gune pseudopapilarrak tumore azpimota ezberdinetan agertzen baitira. PRCCaren nukleo ezberdinak makrofago apartuz zabalduak ageri ohi dira.




**1.7. Irudia. PRCCaren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B).** Makroskopikoki, ongi mugaturiko tumorea ikus daiteke, foko hemorragiko ugariduna (A). Mikroskopikoki aldiz geruza zelulabakarrez osaturiko egitura papilarrak ikus daitezke (B). (\*) A irudi makroskopikoa, *Essentials of Anatomic Pathology* liburuko *Neoplasms of the kidney* kapitulutik egokitu da.



## Giltzurren-zelulen kartzinoma kromofoboa: ChRCC

Giltzurrun-zelulen kartzinomen artean hirugarrena da intzidentziari dagokionez, diagnostikaturiko kasu guztien %5-7 artean talde honetan sailkatu daitezkelearik (45). Pronostikoari dagokionez, 5 urteko biziraupen portzentaia %88 inguruan kokatzen da, diagnostikoa oro har estadio baxuetan gertatzea arrazoi nagusia delarik (46).

Ongi mugaturiko masa esferiko pseudoenkapsulatuak izan ohi dira, kolore marroi argidunak (1.8. Irudia). Hodi biltzaileetako zelula tartekatuetan du jatorria tumore mota honek. Nekrosia eta hemorragia ezohikoak dira eta tumore handienetan soilik atzematen da orbaindura. Mikroskopikoki, hazkuntza patroia homogeneoa duen arren, tarteka egitura tubularrak bereiztu daitezke.




**1.8. Irudia. ChRCCaren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B).** Egitura makroskopikoan masa esferiko marroikarak izan ohi dira (A). Mikroskopikoki aldiz, erraz ezberdindu daitezke zelula klasiko poligonal handiak eta zitoplasma granularreko zelula eosinofiloak. (\*) A irudia, *Essentials of Anatomic Pathology* liburuko *Neoplasms of the kidney* kapitulutik egokitu da.

Bi zelula mota ezberdinek osatzen dituzte ChRCCak, zelula klasikoek eta eosinofilikoek. Aurrenekoak, zelula poligonal handiak dira, mintz plasmatico sendodunak eta mukopolisakaridoz beteriko zitoplasma handia daukate. Eosinofilikoak aldiz, zelula txikiagoak dira, zitoplasma granular dunak eta organuluak nukleo irregularraren inguruan kokatzen dira. Tumorea soilik zelula mota honek osatzen duenean, ChRCCaren aldaera eosinofiliko gisa klasifikatzen da.

## Giltzurruneko onkozitoma: RO

Onkozitoma, hodi biltzaileetako zelula tartekatuetatik eratorritako neoplasia onbera da, giltzurruneko neoplasia epitelial guztien %5 inguru azpimota honetakoak direlarik.

Orokorrean, ongi mugaturiko neoplasia bakartiak izan ohi dira, marroi argi edo kaoba kolorekoak (1.9. Irudia). Orbaingura neoplasia guztien heren batean atzeman daiteke, bereziki tamaina handiena duten neoplasietan. Halaber hemorragia eta nekrosia ezohiko ezaugarriak dira. Mikroskopikoki, zitoplasma granular eta eosinofilo handiko zelula poligonalek osatzen dituzte, mitokondrietan oso aberatsak direnak. Hauek, tubulu, mikrokiste edo habi solidotan antolatzen dira, estroma edematsu hipozelularrean. Nukleo borobil eta uniformeak izan ohi dute, erdian kokaturiko nukleolo nabarmenduna.



1.9. Irudia. ROren ikuspegi makroskopiko (A) eta mikroskopikoa (H&E) (B). Ezkerrean, onkozitoma zirkular bakartia atzeman daiteke, erdiguneko orbain eta guzti. Eskuinean, H&E tindaketak, estroma hipozelularrean tartekaturiko habia solidoak atzeman daitezke. (\*) A irudi makroskopikoa, *Essentials of Anatomic Pathology* liburuko *Neoplasms of the kidney* kapitulutik egokitu da.


Ezaugarri makroskopiko bereizgarriak dituen arren, onkozitoma RCC azpimota ezberdinetako aldaera eosinofilikoarekin nahastu ohi da, bereziki ChRCCarenarekin. Izan ere, ChRCCK eta ROK hodi biltzaileetako zelula tartekatuetan dute jatorria eta zenbait ezaugarri morfologiko, histologiko eta immunohistokimiko dauzkate amankomunean. Esaterako, bi tumore azpimotatan aurki daitezke zelula tartekatuen ezaugarri diren mikrobikusulak, kopuru ezberdinean bada ere. Halaber, antzeko gene espresio patroia deskribatu da bi tumore azpimota hauetan (54).

## 1. Sarrera. Introducción

Gainera, ChRCC eta RO tumoreen ezaugarri histomorfologikoak dituzten tumore hibridoak ere deskribatu dira, *hybrid oncocytic/chromophobe renal tumors* (HOCT) bezala izendatu direnak (55). Hori dela eta, bi azpimota hauek ezberdintzea ahalbideratzen duen tresnen bilaketak ikergai izaten jarraitzen du (56). Are gehiago, ChRCC eta RO espektro morfologiko beraren bi ertzak direla proposatu izan da, hau da, ChRCCa ROk denboran zehar jasandako gaiztotze prozesuaren emaitza dela (57).

## 1.2 PEPTIDASAK

NC-IUBMBren (*Nomenclature Committee of the International Union of Biochemistry and Molecular Biology*) arabera, peptidasa gisa ezagutzen da lotura peptidikoa hidrolizatzeko gaitasuna daukan edozein entzima. Transkribatutako gene guztien %2k peptidasak kodifikatzen dituzte eta ondorioz, proteina funtzionalen talde handienetakoa osatzen dute. Gaur egun ehundaka peptidasa ezagutzen dira exopeptidasa eta endopeptidasak zenbatuz gero (1.10. Irudia). Aurrenekoek amino zein karboxi terminaletako -aminopeptidasak eta karboxipeptidasak hurrenez hurren- aminoazido bat eta hiru aminoazido artean hidrolizatzen dituzte. Endopeptidasek aldiz aminoazido katearen barnealdeko loturak hidrolizatzen dituzte eta hidrolisi mekanismoaren arabera, 6 taldetan sailkatzen dira: endopeptidasa aspartiko (A) eta glutamikoak (G), zisteina (C), serina (S) eta treonina (T) endopeptidasak eta metaloendopeptidasak (M). Talde hauetan sailka ezin daitezken hainbat peptidasa ere badaude (U) (58).



**1.10. Irudia. Peptidasa motak hidrolizatzen duten lotura peptidikoaren kokapenaren arabera.** Endopeptidasek, aminoazido sekuentziaren barnealdean eragiten dute, aldiz exopeptidasek amino zein karboxi muturretan. Sekuentziatik bi edo hiru aminoazido erauzten dituzten kasuetan di eta tripeptidasa izenak hartzen dituzte. (\*) Boumphreyfrek sortutako *Peptidase Action* izeneko irudiaren egokitzapena da, eta *Creative Commons*en CC-BY-3.0 lizentziarekin erabil daiteke.

## 1. Sarrera. Introducción

Azken hamarkadetan peptidasen eta hauen ezaugarrien ezagutzan izandako aurrerapenak, beraien substratu eta inhibitzaileekin batera, biologian, medikuntzan eta bioteknologian duten garrantzia nabarmendu dute. Honela, entzima proteolitikoen sailkapen eta izendatze sistemak berebiziko garrantzia hartu du. Hierarkikoki, peptidasak espezie, familia, klan eta mota katalitikoaren arabera sailkatzen dira (59). Espezieek, substratu espezifiko eta funtzio biologiko bertsuak dituzten peptidasak batzen dituzte. Halaber, hauek, familiatan elkartzen dira, aminoazido sekuentzian duten homologiaren arabera. Klanak ordea, aitzindari amankomun batetik eratorritako peptidasen familiek osatzen dituzte. Amaitzeko, klanak goian aipaturiko mota katalitiko ezberdineko taldeetan sailkatzen dira (A, G, C, S, T, M eta U). Irizpide hauek kontutan hartuz, peptidasa bakoitzak identifikatzaile espezifiko bat dauka, familiaren izena (adbz. M5) eta hiru digitu zenbakien sekuentziaz osatua (adbz M5.003) (60).


### 1.2.1 PEPTIDASEN FUNTZIOAK

Peptidasak zelulen mintzetan zein barne eta kanpo inguruetan aurkitu daitezken entzima multifuntzionalak dira. Peptido bioaktiboekin eta hauek lotzen dituzten hartzaileekin batera sistema peptidikoak osatzen dituzte. Mintzera ainguraturiko peptidasa, honetatik askatu daiteke *shedding* deritzon mekanismoaren bitartez, hau da, beste proteasa batek mintzera lotzen duen domeinutik askatuta. Horrela, peptidasa bera mintzera ainguratuta nahiz gorputzeko fluido ezberdinetan aurkitu daiteke, egoera solugarrian. Hala ere, gorputzeko fluidoetan aurki daitezken peptidasek jatorri anitza dutela onartzen da.

Peptidasek organismoen biziraupenerako ezinbestekoak diren hainbat prozesu biologiko erregulatzen dituzte, ziklo zelularra, erantzun immunologikoa, zelulen apoptosia eta proteinen degradazioa beste hainbaten artean (61). Horretarako, peptidasek beren aktibitatearen menpekoak zein honekiko independenteak diren mekanismoak erabiltzen dituzte. Mekanismo ezagunena peptido bioaktiboen eraldaketa da. Hidrolisi bidez, berauen funtzioaren aktibazio,

## 1. Sarrera. Introducción

inhibizioa edo modulazioa eragin ditzakete eta ondorioz seinalizazio zelularrean eragin, zenbait zitokina, hormona edo neuropeptidorekin ikusi den bezala. Gainera, ez dute soilik komunikazio zelularrekin erlazionaturiko peptidoengan eragiten, baita esaterako zelulaz kanpoko matrizea (ECM) eratzen duten osagaietan. Honen erakusle argienak matrizeko metaloproteinasak dira, zeintzuk zelulaz kanpoko matrizean eraginez zelulen migrazioa gidatu dezaketen (62). Are gehiago, zelula-zelula eta hauen eta zelulaz kanpoko matrizearen arteko atxikitzea erregulatzen duten molekuletan ere eragiten dute bi fenomenoak erregulatuz (63). Halaber, hainbat serina proteasek *Protease-activated receptor* (PAR) deritzen hartzaileengan eragiten dute, hauen N-terminalaren proteolisiaren bitartez, seinalizazioa aktibatzen duen N-terminal berria desmaskaratzen dutelarik (1.11. Irudia)(64).



**1.11. Irudia. Proteasek aktibatutako hartzaileen mekanismoaren irudikapena.** Proteasak, aktibitate entzimatikotik bidez, N-terminal extrazelularreko aminoazido sekuentzia bat ezabatu eta hartzaileari lotzen zaion N-terminal berria azaleratzen du. (\*) Bensaccountek sortutako 7 TM Receptors izeneko iruditik abiatuta sorturiko irudia, *Creative Commons*en CC-BY-3.0 lizentziarekin erabil daiteke.

Hala ere, zenbait prozesu fisio-patologikotan, peptidasen eragina beren aktibitate entzimatikotik haratago doala frogatu da (65). Esaterako, proteina ezberdinekin interakzionatuz ere jarduten dute. Hala, MALT1 proteasak berebiziko garrantzia dauka T zelulen aktibazio prozesuan, non beste proteinekin lotzeko daukan domeinu ezberdinei esker, *scaffold* edo aldamiu proteina gisa jokatzen duen. Adhesio molekula gisa jokatzen duen beste peptidasa talde bat ADAM (a disintegrin and metalloproteinase) familiarena da (66). Gainera, zelulen mintzera ainguratutako proteasek, beste hainbat proteinekin interakzionatuz, seinalizazio bide ezberdinak ere aktibatu ditzakete, hartzaile funtzioa burutuz. Hauen artean

## 1. Sarrera. Introducción

ezagunenetarikoa, *membrane type 1-matrix metalloproteinase* (MT1-MMP) da, zeinak mitogenoek aktibaturiko proteina kinasen/zelulaz kanpoko seinaleek erregulaturiko (MAPK/ERK) bidearen bitartez, zelulen hainbat ezaugarri erregulatu ditzaken (67).

Peptidasek zelulen funtzionamendu egokian betetzen dituzten funtzioak kontutan hartuz arrazoizkoa da sistema peptidikoen alterazioak hainbat egoera patologiko sostengatzea. Hala nola, eritasun kardiobaskular eta hanturazkoak, gaixotasun neurodegeneratiboak eta minbizia. Hori dela eta, peptidasak tratamendu ezberdinen iturri eta diagnostikorako zein pronostikorako tresna gisa potentzial handia duten molekulak dira (68). Are gehiago, zenbait peptidasen inhibitzaileak gaitz ezberdinen ohiko terapia farmakologikoan erabiltzen dira. Honen adibide esanguratsua, errenina-angiotentsina sistemaren inhibitzaileena da, zeinak presio arteriala kontrolatzen duen eta ondorioz bere blokeatzaileak hipertentsioaren tratamenduan erabiltzen dira (69). Era berean, dipeptidil peptidasa IVk (DPPIV/CD26), glucagon like peptide (GLP-1), insulinararen produkzioa estimulatzen duen hormona, hidrolizatzen du. Honela, DPPIV/CD26ren inhibitzaileak edo gliptinak, diabetesaren tratamenduan erabiltzen dira (70,71).

### 1.2.2 PEPTIDASAK ETA MINBIZIA

Peptidasek minbiziaren garapenean daukaten eginkizunaren ikuspuntua nabarmen aldatu da bi kontzeptuen ezagutzan sakondu ahala. Hasiera batean peptidasen funtzioa migrazio eta inbasioa ahalbidetzera mugatzen zela uste zen, matrice extrazelularrean eraginez. Aldiz, gaur egun ezaguna da entzima hauek minbiziaren garapenearen etapa ezberdinetan parte hartzen dutela.

Minbiziarena, mutazio ezberdinen metaketaren eraginez, kontrolik gabeko hazkuntza zelularra garatu duten gaixotasunen taldea da. Ezaguna da genetikoki eraldatutako zelula hauek hainbat gaitasun bereganatzen dituztela, *hallmarks of cancer* deritzenak, tumorea garatu eta inguruko nahiz urruneko ehunak inbaditzeko

## 1. Sarrera. Introducción

(72). Ezaugarri hauek eskuratzeko, ezinbestekoa da tumore-zelulen eta inguruko estromako zelulen arteko komunikazioa, tumore ingurune inflamatariora ezartzeko. Peptidasek, berebiziko garrantzia dute komunikazio honetan, hazkuntza faktore, zitokina eta matrize faktore ezberdinen aktibitate biologikoa erregulatuz tumorearen garapena gidatzen baitute (73). Ez hori bakarrik, hauek eragindako seinalizazio bideak erregulatu eta komunikatzen dituzte, zelulen erantzuna baldintzatuz.

Mutazio metaketaren ondorioz tumoreen aldeko geneen eta tumore-ezabatzaileen artean sorturiko desorekak proteasetan ere eragiten du. Esaterako, seinalizazio intrazelularrean erregulatzailer gisa jarduten duten peptidasen funtzio galera minbizi ezberdinetan deskribatu da (74). Zelulen mintzean zein hauetatik kanpo kokatzen diren proteasen espresioa eta aktibitatea ere aldatuta ageri dira. Gainera, aldaketa hauek ehun eta tumore motaren araberakoak direla frogatu da *in vivo* ikerketen bitartez (75).

Honegatik guztiagatik, peptidasak itu erakargarriak dira minbiziaren tratamendurako farmakoen bilaketan. Honela, estrategia ezberdinak diseinatu dira, ez soilik aktibitate entzimatikoa inhibituz, baita tumoreetan gainespresaturiko proteasen aktibitatea prodroga zitotoxikoak aktibatzeke aprobetxatuz (76). Hala ere, peptidasen inhibizioak arrakasta mugatua izan du tumoreen aurkako tratamenduan (77). Honen erakusle argiena matrizeko metaloproteinasak (MMP) dira. Minbiziaren garapenean daukaten garrantzia ezagutu eta hauen inhibizioak fase preklinikoetan emaitza ona eman arren, fase klinikoan ez dute eraginkortasunik erakutsi, neurri handi batean MMP ezberdinen arteko selektibotasun ezaren ondorioz (78,79). Aldiz proteasoma inhibitzen duen Bortezomib, mieloma multiplearen tratamendurako erabiltzen da 2003az geroztik, proteina proapoptotikoen degradazioa inhibituz eta tumore-zelulen heriotza eraginez (80).



## 1. Sarrera. Introducción

Edonola, peptidasek minbiziaren biologian duten espresio aldaketa oso erabilia izan da klinikan, tratamendurako ez bada ere, bai tresna diagnostiko edo pronostiko bezala. Adibide argiena, *prostate-specific antigen* (PSA)rena da, prostatako minbiziaren diagnostikorako tresna erabiliena, serina proteasa bat da (81). Ez da hau adibide bakarra; *urokinase plasminogen activator* sistemako osagaiak, entzima bera (serina proteasa bat), hartzailea eta inhibitzailea, bularreko minbizian tresna pronostiko eta diagnostiko gisa erabiltzen dira eta beren erabilera beste hainbat tumoretara zabaltzea proposatu da (82). Zenbait zisteina peptidasa eta aurretik aipaturiko DPPIV/CD26 ere, biomarkatzaile gisa erabiliak dira (75,83). NEP/CD10en espresio bera, beste hainbaten artean giltzurrun-zelulen kartzinoman erabilia da, CCRCC eosinofiloak ChRCC eta RO eosinofiloetatik bereizteko (84).

Hori dela eta, tesi proiektu honetan errenina-angiotentsina sistema peptidikoak eta FAP $\alpha$  peptidasak giltzurrun-zelulen kartzinomaren biologian daukaten funtzioa aztertzen da, pronostikorako, diagnostikorako zein tratamendurako jomuga gisa izan dezaketen potentziala ikertzeko.

## 1.3 ERRENINA-ANGIOTENTSINA SISTEMA (RAS)


Errenina-angiotentsina sistemaren ezagutza asko aldatu da 1898an Tigerstedt eta Bergmanek errenina deskubritu zutenetik. Hasiera batean presio arteriala eta elektrolito eta fluidoaren homeostasia erregulatzen zuen sistema endokrino zirkulatorio gisa deskribatu zena, gaur egun hori eta askoz gehiago da. RASko osagaiak ehun ezberdinetan deskribatu dira eta honek, RAS lokalen (IRAS) sorrera ekarri du (85). Are gehiago, zelulen barneko angiotentsina II-aren sintesiak, RAS intrazelularren existentzia ere iradoki du (86).

### 1.3.1 EGITURA ETA FUNTZIOA

XX. mendean zehar eta XXI. mende hasieran RASren eskema osatuz joan da, hartzaille, entzima eta peptido bioaktiboz osaturiko sarea eratuz. 1930eko hamarkadan Buenos Airesen eta Indianapolisen simultaneoki garaturiko ikerketetan, erreninaren akzioz sorturiko molekula basoaktibo bana deskribatu zuten, hipertentsina eta angiotonina gisa izendatu zituztenak hurrenez hurren. Era berean, errenina sistemaren izaera entzimatikoa (hipertentsinasak) eta hipertentsinaren izaera peptidikoa ere deskribatu ziren (87). 1957an bi ikerketa taldeetako buruek *Sciencen* argitaraturiko oharrean, bi izenen baturatik eratorritako angiotentsina izena onartu zuten peptido bioaktiboarentzat, angiotentsinogenoa aitzindariarentzat eta angiotentsinasak entzimentzat (88). Honela, 50eko hamarkada erdialderako RASaren ardatz klasikoa deskribatuta zegoen: Angiotensinogenoa /Errenina/Angiotentsina I (Ang I)/Angiotentsinaren entzima bihurtzailea (ACE) /Angiotentsina II (Ang II)/AT1R osatuta. Ang II sintetikoaren erabilerak RASaren funtzioen inguruko ikerketa ahalbideratu zuen hurrengo hogeitun urteetan zehar. Honela, RAS hipertentsioaren eta beste hainbat prozesuren garapenean zeukan rola inguruko eztabaida ACEren inhibitzaileen garapenak argitu zuten 70eko hamarkadaren amaieran (89). Are gehiago 90eko hamarkadaren hasieran angiotentsina II-ren 1 eta 2 motako hartzailleak, AT1R eta AT2R hurrenez hurren, sekuentziatu eta hauen aurkako antagonista espezifikoak garatu ostean (90).

# 1. Sarrera. Introducción

Mende berriaren hasierarekin batera angiotentsinaren entzima bihurtzailearen entzima homologo bat deskribatu zen, angiotentsinaren entzima bihurtzailea 2 (ACE2) moduan izendatu zena (91). Honek, angiotentsina II hidrolizatu eta angiotentsina 1-7 peptidoa sortzen du, zeinak Mas1 hartzailerearen bitartez, Ang II-ak AT1 hartzailerearen bitartez eragindako efektua antagonizatzen duen. Peptido bioaktibo, entzima eta hartzailere berriek RASn jokatzeko duten rola ezagutu ahal da, eskema osatuz joan da (1.12. Irudia).



1.12. Irudia. Errenina-angiotentsina sistemaren (RAS) eskema orokorra eta ardatz bakoitzak maila lokalean eragiten dituen funtzio klasikoak. Ardatzen arteko orekak prozesu fisiologikoen erregulazio zuzena ahalbideratzen du.

Honela, gaur egungo RAS gutxienez bost ardatz ezberdinek osatzen dute (92):

## Ang I/ACE/Ang II/AT1R ardatza

Angiotentsina II RASko peptido bioaktibo nagusia da eta AT1R nahiz AT2R hartzailereei lotu dakeiken arren, AT1R bidezko seinalizazioz garatzen ditu bere funtzio nagusiak. AT1R *G protein coupled receptor (GPCR)* motako hartzailere da eta seinalizazio bide ezberdinak aktibatzen ditu. Esaterako, DAG/IP3 bidez Ca<sup>2+</sup> intrazelularren mobilizazioa eragiten du, baina baita MAPK, PI3K, JNK, JAK/STAT bideen aktibazioa eta RTK hartzailereen trans-aktibazioa (93).

### **Ang II/ACE2/Ang 1-7/Mas1 ardatza**

Ardatz honen aktibazioa, oro har, Ang II/AT1R ardatzaren funtzio fisiologiko zein patologikoen aurkako efektuarekin erlazionatu da. Honela, Mas1 hartzaileak, hau ere GPCR bat, MAPK eta COX-2 bideen inhibizioz zein NO/cGMP bidearen aktibazioz Ang II/AT1Rren eragina orekatzen du. Edonola, ardatz honen efektua ez da unibertsala eta zenbait kasutan Ang II/AT1R ardatzaren antzeko efektuak ere egotzi zaizkio (94).

### **Ang II/APA/Ang III/AT2R ardatza**

Ang II-k bezala Ang III-k ere AT1R zein AT2R hartzaileak lotzeko gaitasuna erakutsi duen arren, berriki AT2R hartzailearen estekatzaile nagusia dela frogatu da, behintzat giltzurrunean. Honela AT2R bidezko seinalizazioak, batez ere NO/cGMP bitartez ematen denak, Ang 1-7/Mas1 ardatzarekin batera, ardatz klasikoaren efektuen aurkako “babes-sarea” osatzen du (92).

### **Ang III/APN/Ang IV/IRAP ardatza**

Egun, RASren ardatzik ezezagunena da eta bere funtzio nagusia ikasketa eta memoria prozesuen baitan kokatzen da. Halaber, hurbileko tubuluetako glukosaren garraioarekin ere erlazionatu da. Aipagarria da baita ere Ang IV peptidoa AT1 hartzailearen bidezko seinalizazioa aktibatzeke gai dela (94).

### **Proerrenina/errenina/Proerrenina-errenina hartzailea**

Proerrenina-errenina hartzaileak (PRR) mintza behin zeharkatzen duen domeinu bakarra dauka eta 350 aminoazidok osatzen dute. Ez soilik errenina, baizik eta proerrenina aitzindaria ere espezifikoki lotzeko gunea dauka. Honen eraginez, MAPK Erk1/2 seinalizazio bidearen aktibazioa eragiten du eta zeharka beste batzuen ere bai. Bere funtzio fisiologikoak, oro har, Ang II/AT1R ardatzak eragindakoekin lerrokatzen dira (92).

Edonola, RASren inguruko ezagutzak aurrera jarraitzen du eta osagai berriak deskribatu dira azken urteetan (95).

## 1. Sarrera. Introducción

RAS endokrinoaren funtzioa aski ezaguna da; presio arterial edo sodio kloruro kontzentrazio baxuek nahiz sistema nerbioso sinpatikoaren aktibazioak estimulaturik, giltzurruneko zelula juxtaglomerularrek errenina aktibatu eta zirkulaziora jariatzen dute. Bertan, gibelak jariaturiko angiotensinogenoa Ang I bihurtzen du, zein biriketan, kapilareetako endotelio-zeluletan eta baita giltzurrunetako zelula epitelialetan Ang II bihurtuko den, ACEren aktibitate entzimatiakoaren eraginez. Ang II-ak AT1R hartzaiaren bitartez, odol hodian uzkurdua eragiten du hauen muskulu leunaren konstriktzioz. Halaber, giltzurrunetako guriak estimulatu ditu, aldosterona jariatzen dezaten. Honek sodio/potasio homeostasia erregulatzen du giltzurrunetako hurbileko hodian sodioaren birxurgapena bultzatuz. RAS hipotalamoan ere eragiten du egarri sententzia eraginez. Mekanismo hauen eta beste batzuen bitartez, RAS odol bolumena, eta presioa erregulatzen ditu (96). RASren desorekek arazo kardiobaskularrak, hipertentsioa eta giltzurruneko eritasunak eragin ditzake eta horregatik sistema honen inhibitzaileak hipertentsioaren zein giltzurruneko hainbat eritasun kronikoren (CKD) tratamenduan farmako erabilienetarikoak dira (97).

Edonola, presio arteriala baldintza fisiologikoetan mantendu ahal izateko, Ang II-ren sintesia bezain garrantzitsua da honen degradazioa. ACE2 eta Aminopeptidasa A (APA) dira Ang II-ren hidrolizatzaile nagusiak, eta Ang 1-7 eta Ang III peptidoak ematen dituzte produktu gisa hurrenez hurren. Hauek, metabolito hutsak izateaz haratago, peptido bioaktibo izaten jarraitzen dute eta efektu espezifikokoak eragiten dituzte beren hartzaiaren bitartez. Are gehiago, Ang II/ACE2/Ang 1-7/Mas1 eta Ang II/APA/Ang III/AT2R ardatzek, RASren ardatz klasikoaren eragin kaltegarria orekatzen dute, honen eta Proerrenina/errenina/PRR ardatzaren aurkako efektuak bultzatuz (92).

### 1.3.2 RAS LOKALAK (IRAS): FISILOGIA ETA PATOLOGIA

Berriki argitaraturiko *review* batean, homeostasi eta patologiarako nonahiko sistema gisa deskribatzen dute errenina-angiotentsina sistema (98). Izan ere, organismoaren homeostasirako ezinbestekoak diren funtzioak erregulatzen ditu eta sistemaren alterazioak hainbat eritasunetan antzeman dira. Ondorioz, RAS*k* ikerketa gai izaten jarraitzen du, aipaturiko ardatzek egoera fisiopatologiko ezberdinetan duten rola ezagutzatratamendurako erabilgarri izan daitezkelakoan.

RAS sistemako osagaiak beren funtzio endokrinoarekin erlaziorik ez zuten ehunetan detektatzeak *RAS lokalak edo ehuneko RAS* deritzenen aurkikuntza eragin zuen. Oro har, seinalizazio autokrino, parakrino eta intrakrino bidez, zenbait funtzio erregulatzen dituzte, zelulen hazkuntza, diferentziazioa eta apoptosia kasu (85,86). Gaur egun giza organismoko ehun ugarietan deskribatu dira IRASak, hala nola bihotzean, garunean, ugalketa eta digestio ehunetan, nerbio sisteman eta baita giltzurrunetan ere. RAS lokal hauek, RAS zirkulatorioarekin elkarrekintzan jardunez garatu ditzakete beren funtzioak, bihotzean eta giltzurrunetan gertatzen den bezala, edota aldiz era autonomoan, garunean bezala. Bien eragina osagarria izan ohi da eta ehun ezberdinen funtzio fisiologikoak garatzeko erregulatuzaile garrantzitsuak dira.

Zelula zein ehunen fisiologian daukaten garrantzia kontutan izanda ez da harrizkoa RASren asaldurek egoera patologiko ezberdinei bide ematea. Izan ere, ehunen hanturan, fibrosian eta beste hainbat prozesu kaltegarritan parte hartzen dute (99). Ondorioz, RAS lokalak izaera guztiz ezberdineko eritasunekin erlazionatu dira. Hauen artean aurkitzen dira Parkinsona eta Alzheimerre bezalako gaixotasun neurodegeneratiboak (100), antzutasuna eta erreprodukzio organoekin erlazionaturiko hainbat gaixotasun (101), gibekeko eritasun kronikoak (102) eta baita minbizia ere (103). Hauetan guztietan RAS ardatzen desoreka batek Ang II-ren seinalizazioa areagotuz gaixotasunaren garapena ahalbideratzen du (100,101,103,104).

## 1. Sarrera. Introducción

Hori dela eta RAS sistema mota ezberdinetako eritasunen tratamendurako iturri gisa proposatu da (105). RASren inhibitzaileak giltzurruneko gaixotasun kronikoen tratamenduan oso erabiliak dira, honen fase terminalerako garapena geldotzen baitute, eragindako efektu antihipertentsiboez haratago (106). Are gehiago, RASaren blokeoak diabetes mellitus zein hipertentsiodun gaixoek CKDak garatzea ekidin dezakela proposatu da, ikusitako emaitzak kontrajarriak diren arren (106,107).

Gainera, RASren eskema berriak, tratamendu potentzialen aukera Ang I/ACE/Ang II/AT1R ardatz klasikoaren inhibizioetik haratago zabaltzen du, honen efektu kaltegarrien inhibizioaz gain, ardatz babesgarrien agonismoa tresna terapeutiko erabilgarri gisa proposatu delarik (92,99).

### 1.3.3 RAS ETA MINBIZIA

Minbizi zelulek egoera fisiologikoan homeostasia mantentzen duten sistema erregulatuak bereganatzen dituzte beraien garapenerako. Errenina-angiotentsina sistema ez da salbuespena. XX. mende amaieran argitaraturiko ikerketa erretrospektibo batean, ACEren inhibitzaileek minbiziaren jasateko arriskua gutxitzeko gaitasuna daukatela iradokitzen zen (108). Gainera, hipertentsioaren aurka erabiltzen diren gainontzeko tratamenduek ez zuten horrelako abantailarik erakutsi, efektua, presio arterialaren gutxitzean baino RASren inhibizioan kokatuz.

Honek eta aurrerago garaturiko antzeko ikerketek RAS lokalek tokian tokiko minbizian daukaten rola eztabaidagai bihurtu zuten, gaur eguneraino dirauen ikerketa lehen berri bat zabaltzen. Honela, meta-analisi bidezko azterketa epidemiologikoen, RASren inhibitzaileek ez soilik minbiziaren jasateko arriskuan baita honen errekurritzean eta gaixoen biziraupenean ere eragin onuragarria daukatela frogatu dute (109–112). Hala ere, eragin hau zenbait ezaugarri baldintzatzen dute. Honela, biziraupenaren hobekuntza handiagoa da angiotentsina II hartzaileen blokeatzaileen (ARB) kasuan ACEren inhibitzaileetan (iACE) baino (112). Gainera, emaitzak ezberdinak dira tumore motaren arabera. Honela, kolon eta ondesteko

## 1. Sarrera. Introducción

minbizian, pankreakoan, prostatakoan eta gernu aparatuko hodietakoetan biziraupen orokorra altuagoa da RAS blokeatzaileak hartzen dituzten gaixoetan. Ez ordea, esaterako, bularreko minbizidun pazienteetan (111,112).

Antzera, RASko osagaien geneen polimorfismoak, batez ere ACErenak, minbizia jasateko arriskuarekin erlazionatu dira. Honela, ACEren odol eta ehun kantitatean eragiten duen (I/D) polimorfismoaren kasuan, zeinetan D/D genotipodunek I/I-dunek baino bi aldiz ACE gehiago daukaten, aurreneko genotipoa edo I/D heterozigotikoa hainbat minbizi egoerarekin erlazionatu dira, minbizi gastrikoarekin edo prostatakoarekin esaterako (113,114).

Bestalde, hainbat ikerketek RASko osagaien espresioa minbizi egoeratan aldatuta ageri dela baieztatu dute. Orokorrean, tumoreen aldeko ardatzetako osagaiak Errenina-ProErrenina eta batez ere ACE/Ang II/AT1R ardatza gainespresatuta ageri dira tumore ezberdinetan, endometrioan, maskurikoan, prostatakoan eta giltzurrunekoan esaterako eta zenbait kasutan pronostiko gaiztoarekin erlazionatu dira bularrekoan eta laringekoan kasu (115–120). Aldiz, ACE2/Ang 1-7/Mas1 ardatzeko partaideen adierazpena, orokorrean, jaitsi egiten da. Hala deskribatu da ACE2rekin gibeledu zelulen kartzinoman eta pankreakoan esaterako eta baita Mas1 hartzailearekin bularretako hodietako kartzinoma inbaditzailean (121–123). Mas1 ordea koloneko minbizian gainespresatuta ikusi da (124).

Hauekin batera, *in vitro* zein *in vivo* garaturiko esperimenduek RAS tumore biologian daukan rolari buruzko informazioa osatu dute. Honela, sistema hau minbizi zelulek garatzen dituzten ezaugarri bereizgarri edo *hallmarkekin* estuki erlazionaturik dagoela frogatu da (1.13. Irudia) (93,103).



### **Proliferazio seinaleen mantentzea eta hazkuntza inhibitzeko seinaleekiko desentsibilizazioa**

RASk proliferazioan duen eragina luze ikertu da. Honela, Ang II-ren AT1R bidezko seinalizazioak zelulen mitosia bultzatzen du tumore zein estomako zeluletan eraginez eta baita zeharka endotelio-zelulen hazkuntzaren bitartez (93). Efektu hau, beste hainbat artean, urdaileko minbizian, gibelakoan, bularrekoan zein prostatakokoan deskribatu da (125–128) eta seinalizazioarako bide zelularrak ere ezagunak dira, MAPK eta PI3K eta  $Ca^{2+}$  intrazelularrena kasu. Berriki, Ang II/ACE konplexuak, zelulan barneratu eta nukleora translokaturaz proliferazioa bultzatzeko gaitasuna daukala ikusi da (129).

Alderantziz, Ang II-k AT2R bidez, proliferazioaren kontrako propietateak garatzen ditu (130,131). Honela, minbizi ezberdinetan bi ardatz hauetako osagaiek jasaten duten espresio galera hazkuntza inhibitzeko seinaleak gainditzeko mekanismo gisa uler daiteke. Esaterako, ACE2ren adierazpenaren murrizketak, angiotentsina II peptidoaren gainespresioarekin korrelazionatzen du eta zelulen proliferazioa areagotzen du pankreako minbizian (122).

### **Apoptosia saihestea**

Proliferazioan ikusirikoari jarraiki, AT1R bidezko seinalizazioak minbizi zelulen biziraupena sustatzen du, gutxienez, bi seinalizazio bide ezberdinetatik. Batetik NF- $\kappa$ B eta honen seinalizazioz sorturiko BCL-XL eta survivin apoptosiaren aurkako proteinen bitartez eta baita PI3K-Akt bidezko kaspasen inhibizioz (132,133). Are gehiago, AT1R hartzailearen antagonistak agente apoptotiko gisa deskribatu dira (134). Halaber, AT2R hartzailearen aktibazioak tumore mota ezberdinetan apoptosia eragiten duela deskribatu da (135,136). Ang 1-7/Mas ardatzak ere apoptosia bultzatzen du hainbat minbizitan (137).

### **Angiogenesiaren indukzioa**

RASk tumoreetako odol hodi berrien sorreran daukan garrantzia sakonki aztertu da, oso erlazionatua baitago tumorearen garapenarekin eta baita honi atxikitutako inflamazioarekin ere. Honela, Ang II-k angiogenesiaren aldeko faktore ezberdinen espresioa sustatzen duela deskribatu da, tartean VEGF, AT1R hartzaillearen inhibizioz blokeatzen dena (138,139). AT2R hartzaillearen rola ez da hain argia, izan ere, hainbat minbizi motatan angiogenesia inhibitzeko gaitasuna erakutsi arren (131,135) efektu guztiz antagonikoak ere deskribatu baitira (140). Mas1 hartzaillearen tumoreen aurkako efektua, hein handi batean, bere angiogenesiaren aurkako efektuari atxikitu zaio (137,141,142). Aipatzekoa da halaber, RASko peptido aitzindariak, angiotensinogenoak, efektu antiangiogenikoa daukala (143).

### **Migrazioa, inbasioa eta metastasien garapena**


Metastasien garapena mugarri da minbiziaren garapenean, minbiziaren heriotza gehienak metastasiak eragiten baititu. RASren ardatz klasikoaren aktibazioa fenotipo inbaditzailearekin erlazionatu da minbizi mota ugarian (144–146) eta honen inhibizioak, izan iACE zein ARB bidez, metastasien aurkako potentziala erakutsi du (147,148). Ang 1-7/Mas1 hartzaillearen ardatzak aldiz, orokorrean, metastasien aurkako babes funtzioa erakutsi du (149–151).

### **Metabolismo energetikoaren birprogramazioa**

Minbizi zelulek beren energia produkzioa egokitzen dute gaiztotze prozesuan harturiko gaitasunei bide emateko. RASko peptidoek zuzenean eragiten dute energiaren metabolismoan eta ondorioz RAS sindrome metabolikoarekin erlazionatu da. Gainera, alderantzizko efektua ere deskribatu da, hots, egoera energetikoak RASrengan ere eragiten du. Honek guztiak RASk minbizi zelulen nahiz tumore-mikroinguruko beste zelulen energiaren kudeaketan rol bat izan dezakela iradokitzen du (152–154).

## Erreakzio immunologikoaren saihespena

Tumorearen garapena ekiditeko helburuarekin, organismoak erantzun immunologikoa garatzen du tumore-zelulen aurka. Edonola, hauek, estrategiak garatzen dituzte, ez soilik erantzunari aurre egiteko, baizik eta honen eragileak, beren garapenerako aprobetxatzeko. Testuinguru honetan, Ang II-k, AT1R hartzailaren bidez, *macrophage/monocyte chemoattractant protein 2* (MCP-2) proteinaren sintesia bultzatu eta tumorearen makrofago infiltrazioa areagotzen du eta efektu hau, AT2Rren inhibizioz areagotzen da. Halaber, ARBek aipaturiko infiltrazioa gutxitzeko gaitasuna daukate (155,156).



**1.13. Irudia.** Minbiziaren *hallmark* edo ezaugarri bereizgarriak eta minbizi zelulei hauek bereganatzea ahalbideratzen dieten ezaugarri gaitzaileak. RAS lokalak minbiziaren *hallmark* ezberdinekin erlazionatu dira, batez ere ACE/Ang II/AT1R ardatza hauen garapenerekin erlazionatu delarik. (\*) Philippe Hupék sortutako *Hallmarks of cancer* izeneko irudiaren egokitzapena, *Creative Commons*en CC-BY-3.0 lizentziarekin erabil daiteke.

Edonola, RASko osagaien adierazpenaren asaldurak, sistemaren blokeatzaileen efektua eta *in vitro* zein *in vivo* ikusitako efektuak ez dira unibertsalak, ezberdintasunak atzeman baitira ehun ezberdinetatik eratorritako minbizietan. Hala, kolonean esaterako angiotentsina II-ak proliferazioan eraginik ez duela deskribatu da (124). ACE2/Ang 1-7/Mas1 ardatza ere ez da beti tumorearen aurkako efektuekin

erlazionatu, apoptosiaren aurkako eta migrazioa eta inbasioaren aldeko efektuak ere garatzen baititu, giltzurrunean kasu (157,158). Ondorioz, RAS lokalen efektua ehunaren araberakoa izan litekela proposatu da.

### **Ezaugarri gaitzaileak**

Hantura, ezegonkortasun genomikoarekin batera, minbiziaren *hallmarken* oinarrian dago. Izan ere, hanturazko tumore-mikroinguruak minbizi zelulek beren gaitasun bereizgarriak bereganatzea ahalbideratzen du. RASren ardatz klasikoaren aktibazioa hanturaren bitartekari nagusietako bat da. Izan ere, zenbait egoera patologikotan, arteriosklerosian, CKDetan edo sindrome koronario akutuetan esaterako, hantura eta oxidazio ekintzak betetzen ditu, batez ere Ang II/AT1R bitartez eta iACE zein ARBek efektu hau antagonizatzen dute (159).

Gaixotasun hauen ikerketak RASk hantura sustatzeko erabiltzen dituen mekanismo ezberdinak bistaratu ditu. Laburki, Ang II-k AT1R hartzailearen aktibazioaren bitartez hantura sustatzen duten hainbat zitokina, kimiozina, transkripzio faktore eta adhesio molekularen espresioa eragiten du. Ondorioz, zelula inflamatorioak odoletik ehunera igarotzen dira, infiltrazioa handituz. Aldi berean, sistema immuneko leukozito, endotelio-zelula eta odol hodietako muskulu lehuneko zelulengan hanturaren aldeko efektuak eragiten ditu bitartekari ezberdinen bitartez. Esaterako, Ang II/AT1R ardatzak, tumorearen perfusioa eta ondorioz oxigenazioa erregulatzeko gaitasuna du, mikroinguruaren hipoxia eta azidosi egoerak bultzatuz. Honek halaber tumore-mikroinguruaren izaera immunoezabatzailea indartzen du (160). AT2 eta Mas1 hartzaileen ardatzak aldiz, Ang II-k gidaturiko hanturaren aldeko efektua orekatzen dutela deskribatu da hainbat kasutan, aspektu honetan ere emaitza kontrajarriak lortu diren arren (161). Honela, RASk tumore-mikroinguruaren izaera inflamatorioan laguntzen du, minbizi zelulei garatu ahal izateko ezaugarriak bereganatzea ahalbideratuz (162).

## 1. Sarrera. Introducción

RASren ardatz ezberdinak erregulatzen dituzten konposatuak minbiziaren tratamendu potentzial gisa identifikatu dira (163–165). Are gehiago, berriki garatu diren entsegu klinikoek tratamenduen bideragarritasuna frogatu dute eta Ang 1-7 peptidoaren kasuan, hainbat tumore solidotan eta bereziki sarkoma metastasikoaren tratamenduan erabilgarri izan daitekela frogatu da (166–168). Gainera, tumore desmoplasian eta mikroinguruaren izaera immunoezabatzailean duen eragina kontutan izanda, RASren inhibitzaileak gaur egun bogan dagoen immunoterapiaren osagarri ideal gisa proposatu dira (160). Horregatik, RASren inhibitzaileek, minbiziaren aurkako tratamenduaren aurkako entsegu klinikotan parte hartzen jarraitzen dute gaur egun (NCT01821729 clinicaltrials.gov).

### 1.3.4 GILTZURRUNEKO ERRENINA-ANGIOTENTSINA SISTEMA (iRAS) ETA GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMA

Azken hamarkadetan garaturiko ikerketek, giltzurrunak angiotentsina peptidoen bidezko seinalizazioa garatu ahal izateko osagai ezberdinak sintetizatzeke gaitasuna duela nabarmendu dute. Hori adierazten du giltzurruneko angiotentsina II peptidoaren kontzentrazioa plasmakoa baino 1000 aldiz handiagoa izateak (169). Honela, giltzurruneko RASak (iRAS), efektu hemodinamiko garrantzitsuak garatzen ditu, RAS zirkularrarekin elkarlanean, presio arterialaren erregulatzaile nagusia delarik. Baina ez hori bakarrik, giltzurrun zelulen proliferazioa eta ehunaren birmoldaketa ere erregulatzen ditu oxigenoaren espezie erradioaktiboen (ROS)en produkzioa iraunarazi eta honen ondoriozko hazkuntza faktore eta zitokina profibrotikoen sintesi bidez. Halaber, kolagenoaren deposizioan ere eragiten du, hau degradatzen duten entzimengan eraginez (170). Ondorioz, iRASren hiperaktibazioa egoera patologiko ezberdinekin erlazionatu da, hipertentsioarekin, nefropatia diabetikoarekin, CKDeekin eta fibrosiarekin esaterako (171).

RASk giltzurrun-zelulen kartzinomaren sorreran eta garapenean daukan inpaktua ere sakonki aztertu da. Adibidez, ikerketa epidemiologikoen erakutsi dute RASko hainbat generen polimorfismoek, eta bereziki AGTR1 genearenek, RCC

## 1. Sarrera. Introducción

jasateko arriskuan eragiten dutela (172). Aldiz, aipaturiko ACEren I/D polimorfismoa ChRCCarekin erlazionatu da, ez ordea PRCC eta CCRCCrekin (173).

RASren inhibitzaileen erabilera emaitza kliniko hobetuarekin erlazionatu da RCCn. Hala, nefrektomia jasandako gaixoen artean RASaren inhibitzaileak hartzen zituztenetan metastasien agerpena berantiarragoa zen eta ondorioz biziraupena hobe (174). Gainera, RASaren inhibizio espezifikoaren ondorio dela frogatu da, biziraupenaren hobekuntza handiagoa baita hauen kasuan beste antihipertentsibo batzuekin alderatuz (175). Are gehiago, mRCCan, angiogenesiaren aurkako tratamenduz gain RASaren inhibitzaileak hartzen zituzten gaixoen biziraupena hobe zen hartzen ez zituztenekin alderatuz (175–177) Beraz, RASaren blokeoak tumorearen garapena geldotzen du fase goiztiar nahiz metastasikoetan eta terapia antiangiogenikoekin efektu sinergikoa duela frogatu da.

XX. mendearen amaierarako ezaguna zen AT1R eta AT2R hartzaileen presentzia giltzurrun-zelulen kartzinoman (178). Hartzaile hauen espresioa, faktore pronostiko gisa proposatu da CCRCCn tumorearen agresibitatearekin eta biziraupen okerragoarekin korrelazionatzen baitute (117). Hala ere, ez dira giltzurrun-zelulen kartzinoman asaldatuta ageri diren RASko osagai bakarrak. Hala, ACE eta ACE2 entzimen aktibitatearen jaitsiera detektatu da CCRCC, ChRCC eta RO azpimota histologikoen kohorte txiki batean, inguruko ehun normalarekin alderatuz gero. Adierazpenari dagokionez, ACE, CCRCCko tumore hodietan atzeman da. ACE2ren espresioaren galera hiru tumore azpimotatan ikusi da, partziala CCRCCren kasuan eta totala ChRCC zein ROn (179). APA entzimaren aktibitatea, Ang II/Ang III eraldaketaren erantzule nagusia, nabarmen baxuagoa da giltzurrun-zelulen kartzinoma azpimota histologiko ezberdinetan ehun normalarekin konparatuz (180).

*In vivo* garatutako entsegetan ere, iACE eta ARB ezberdinek RCC tumoreen hazkuntza eta metastasien kopurua murrizteko gaitasuna erakutsi dute (181,182). Gainera murrizketa, angiogenesiaren inhibizioarekin erlazionatu da (148). Are

## 1. Sarrera. Introducción

gehiago, RASaren inhibitzaileek *adenosine monophosphate (AMP)-activated protein kinase (AMPK)* seinalizazio bidearen inhibizioa ekidinez eragiten dutela deskribatu da (183).

*In vitro*, ARB ezberdinek RCC zelulen eta giltzurruneko zelula arrunten proliferazioan eragiteko duten gaitasuna aztertu da. Soilik Telmisartanak, apoptosi bidez, erakutsi zuen zelulen hazkuntza gelditzeko gaitasuna, baina efektu hau, AT1R hartzailearen inhibizioari baino, PPAR- $\gamma$  aktibatzeke gaitasunari egotzi zaio (184,185).

RASaren beste ardatzei dagokienez, 2015ean Zheng eta lankideek Ang 1-7 peptidoak bere Mas1 hartzailearen bitartez RCC zelulen migrazioa eta inbasioa eragiten duela frogatu zuen, Akt bidezko seinalizazioaren ondorioz (158).

Fase preklinikoetan RAS sistemaren inhibizioak giltzurrun-zelulen kartzinomaren tratamendurako erakutsitako potentzialak entsegu klinikoei bide eman die. Honela, RASren inhibizioak, betiere beste tratamendu batzuekin batera, hainbat terapia zuzenduekin alderagarriak diren emaitzak eman dituzte mRCCn (186,187).

Ebidentzia hauek guztiek giltzurruneko RAS lokala RCCrekin erlazionatzeaz gain, sistemaren erregulazio maila konplexu bat iradokitzen dute. Izan ere, RAS lokal bakoitzak profil entzimatico ezberdina dauka eta ondorioz angiotentsina peptidoen sintesia ezberdina da ehun bakoitzean. Hala, giltzurrunak angiotentsina peptidoak degradatzeko gaitasun berezia dauka, ACE eta ACE2 entzimez gain, peptido hauek eraldatzeko gaitasuna daukaten hainbat aminopeptidasa eta endopeptidasa espresatzen baititu (188). Are gehiago, animalia modelo baten arabera, giltzurrunak Ang I eta Ang II peptidoak degradatzeko daukan gaitasuna biriketakoa eta zirkulaziokoa baino handiagoa da eta hauen efektu parakrinoarekin erlazionatuta dago (189). Halaber, hipertentsiodun gaixoetan, giltzurruneko arteriatik jasotako Ang I peptidoaren %9 soilik eraldatu zen Ang II-ra, gainontzeko %70 inguru, beste

## 1. Sarrera. Introducción

peptido batzuetara metabolizatu zirelarik (189). Ondorioz, angiotentsina peptidoak eraldatzeko gaitasuna daukaten peptidasak giltzurruneko RASren funtzioaren erregulatzailer nagusiak dira, peptido bioaktiboen sorreraren erantzuleak baitira. Honakoak dira peptidasa garrantzitsuenak (1.14. Irudia):

### **Angiotentsinen entzima bihurtzailea (ACE)**

Entzima honen aktibitatea angiotentsina II peptidoaren iturri nagusia da egoera fisiologikoetan. Karboxi terminaleko bi aminoazido erauzten ditu eta beraz dipeptidil-karboxipeptidasa bat da. Bi domeinu katalitikodun proteina monomerikoa da. Giltzurrunean, basoetako endotelio-zelulatan, hurbileko hodiedetan eta zelula interstizialetan espresio altua du. Mintz zelularrean kokatzen da, domeinu katalitikoak kanpoalderantz orientatuta. Bertatik jariatua izan daiteke, giltzurrun hodiedetako fluidoetara esaterako non aktibitate entzimatikoa mantentzen duen. Aipaturikoaz gain, beste substratu batzuegan ere eragiten du, Ang 1-7, P substantzia, bradikinina 1-9 eta beste hainbat kininengan esaterako. Bere funtzio entzimatikoz gain, hartzaile gisa ere joka dezake zenbait kinasaren aktibazioa eraginez, endotelio-zeluletan ikusi den bezala (190).

Klinikan, entzima honen inhibitzaileak (iACE), hipertentsioaren zein CKDen tratamendurako terapia gisa erabiltzen dira. Gainera, CD143 bezala ere ezagutzen da, eta zelula ama hematopoietikoen markatzailea da (191).

### **Angiotentsinen entzima bihurtzailea 2 (ACE2)**

Sekuentzia genomikoan ACE entzimaren %42ko homologia izan arren, propietate katalitiko guztiz ezberdinak dauzka. Zink dependentea den domeinu katalitiko bakarra dauka, ACEren inhibitzaileek eragiten ez diotena. Karboxi terminaleko aminoazido bakarra ezabatuz eragiten du bere substratuengan. Antzeko efizientziarekin eragiten du apelin 13, dinorfina eta Ang II-rengan. Edonola, bere funtzio ezagunena eta ikertuena Ang II/Ang 1-7 hidrolizazioa da nahiz eta RASn bertan, Ang I Ang 1-9 bihurtzeko gaitasuna ere baduen. ACE bezala, mintz zelularrari



atxikita zein modu solugarrian aurki daiteke. Giltzurrunean, hurbileko hodian zeluletan espresio altua deskribatu da, glomeruluan eta odol-hodietan ere detektatu den arren (190).

### **Neprilisina edo endopeptidasa neutroa (NEP/CD10)**


ACE eta ACE2 bezala, zinkarekiko dependentzia daukan metaloproteinasa da. Hasiera batean entzefalina degradatzeko gaitasunagatik “entzefalinas” gisa ezagutu arren, endopeptidasa honek, adrenomedulina, angiotentsinak, kininak, endotelinak, P substantzia eta peptido natriuretikoak degradatzeko gaitasuna erakutsi du. Angiotensinei dagokionez, angiotentsina 1-7 peptidoaren sintesian parte hartzen du, Ang I zein angiotentsina 1-9 peptidoetatik abiatuz. Halere, sintetizatzen duen peptidoaren eta Ang II-ren degradazioan ere hartzen du parte.

NEP/CD10 eta ACEren inhibitzaile dualak hipertentsioaren tratamendurako proposatuak izan diren arren, ez dute ACEren inhibitzaileek baino eraginkortasun handiagoa erakutsi eta angioedema kasuekin erlazionatu dira. Giltzurrunean espresio altua dauka, batez ere hurbileko hodietako zelulen mintzetan eta zelula glomerularretan. RCCari dagokionez CCRCCan espresatzen da, ChRCC eta ROn aldiz ez (190). Hori dela eta, CCRCCaren aldaera eosinofiloa beste azpimota histologikoetako imitatzaileetatik bereizteko markatzaile gisa erabiltzen da (192).

### **Aminopeptidasa A (APA)**

Zink dependentea den metaloproteinasa honek aminoazido glutamiko eta aspartikoak hidrolizatzen ditu N-terminaletik. Bere funtzio ezagunena, Ang II/Ang III angiotentsina peptidoen eraldaketa den arren, beste hainbat peptido bioaktiborengan ere eragiten du, hala nola, neurokinina B, kromogranina A eta kolezistokinina-8rengan. Bere espresioa ezberdina da gizaki ehunetan eta bereziki altua giltzurruneko hodi eta glomeruluetan non Ang II-ren degradatzaile nagusietakoa den. Mintzari atxikitako homodimero gisa ezagutu arren, bere aktibitate entzimatikoa plasman ere detektatu da (193).

# 1. Sarrera. Introducción



**1.14. Irudia. Angiotentsina peptidoen entzima bihurtzaileen espresioa giltzurruna eratzen duten zelula mota ezberdinetan (A), odol hodietako zeluletan (B) eta zelula infiltratzaileetan (C). (\*) Juan Carlos Q. Velezen *The importance of the intrarenal renin-angiotensin system artikulutik* moldatutako irudia (188).**

Peptidasa hauen funtzioa sakonki aztertu da giltzurrunean, bereziki hipertentsioarekin eta gaixotasun kardiobaskularren harira. Honela, beren espresio zein aktibitatearen asaldurak egoera patologiko ezberdinekin erlazionatu dira. Giltzurruneko RAS lokala minbiziaren garapenean inplikaturik aurkitu denez, arrazoizkoa da hau erregulatzen duten peptidasek rol garrantzitsua joko dezaketela pentsatzea.

## 1.4 FIBROBLASTOEN AKTIBAZIO PROTEINA $\alpha$ (FAP $\alpha$ )

Fibroblastoen aktibazio proteina  $\alpha$  (FAP $\alpha$ ) prolina eta beste aminoazido batzuen arteko loturen hidrolisiaren bitartez, peptido bioaktiboak eraldatzen dituen serina proteasa da. 80. hamarkadaren bigarren erdialdean deskribatu zuen aurrenekoz, fibroblastoen aktibazioa karakterizatzeko antigenoen bilaketan ziharduen talde batek (194). Hauek garaturiko F19 antigorputz monoklonalak minbizi eta granulosa ehunetako fibroblastoetan erakutsitako espresio maila altutik datorkio izena. Bigarren talde batek, zelulaz kanpoko matrizea degradatzen duten mintzeko proteasen ikerketa baten baitan, 170 KDa-eko gelatinasa aktibitatedun peptidasa deskribatu zuten, *sephrase* moduan deskribatu zutena (195,196). Bi proteinen klonazio eta sekuentziazio prozesuek FAP $\alpha$  eta *sephrase* mintzeko glikoproteina bera zirela frogatu zuten (197,198). Ordutik, FAP $\alpha$  egoera patologiko ezberdinetan deskribatu da eta ez soilik fibroblastoetan. Gainera, FAP $\alpha$ -ren isoforma solugarri eta intrazelularrak ere deskribatu dira egun izaera multifuntzionaleko peptidasatzat hartzen delarik (199,200).

### 1.4.1 EGITURA ETA FUNTZIOA

FAP $\alpha$  II motako mintz proteina integrala da, mintza zeharkatzen duen eta honen barnealdean kokatzen den 18 eta 6 aminoazidoz osaturiko bi domeinuk eta 736 aminoazidodun zelulaz kanpoko domeinu batek osatua. Domeinu katalitikoa azken honetan kokatzen da serina (S624), aspartato (D702) eta histidinak (H734) serina proteasa izaera ematen dioten triada katalitikoa eratzen dutelarik (201). Izan ere S624 aminoazidoa funtsezkoa da FAP $\alpha$ -ren aktibitate entzimatiakoan, dipeptidil peptidasa zein endopeptidasa aktibitateak gidatzen baititu. Halaber, dimerizazioa eta glikosilazioa ezinbestekoak dira aktibitate entzimatiakoarentzat (202).

## 1. Sarrera. Introducción

Dipeptidil peptidasa 4,6,8,9, prolil endopeptidasa, prolil karboxipeptidasa eta beste hainbatekin batera, post-prolil peptidasen familiaren baitan kokatzen da. Gainera, estuki erlazionatuta dago DPPIV/CD26arekin. Biek domeinu egitura bera daukate, izan ere, bi peptidasen sekuentziak berdinak dira %50ean eta homologia %70era igotzen da domeinu katalitikoan (197). Hala ere, aktibitate katalitikoari dagokionez aldea nabarmena da. Biek dipeptidil-peptidasa aktibitatea daukaten arren, FAP $\alpha$ -k gelatina, I motako kolagenoa eta beste hainbat degradatzea ahalbideratzen dion endopeptidasa aktibitatea ere badu (203). Ezaugarri honek familiako gainontzeko peptidasengandik bereizten du. Gainera, FAP $\alpha$  eta DPPIV/CD26k heterodimero funtzionalak eratu ditzakete eta beren funtzioak garatu ahal izateko era kooperatiboan jarduten dutela proposatu da (204). Are gehiago, gene beraren bikoizketatik eratorritako proteinak direla baieztatu da (205).

FAP $\alpha$ -ren dipeptidil peptidasa eta endopeptidasa aktibitate dualak substratu ezberdinen eragiteko gaitasuna eskaintzen dio. Honela, 2011. urtean Keane eta lankideek argitaraturiko ikerketa batean, zenbait peptido neurologiko, hala nola Y neuropeptidoa (NPY), YY peptidoa, B motako peptido natriuretiko eta P substantzia FAP $\alpha$ -ren dipeptidil peptidasa aktibitatearen substratu gisa deskribatzen dira, neurobiologian rol bat izan dezakeela iradokiz (206).

Edonola, endopeptidasa aktibitateak bereizten du FAP $\alpha$  familiako gainontzeko entzimengandik eta ondorioz, arrazoizkoa da aktibitate hau bere funtzioen garapenean garrantzitsua dela pentsatzea. Zentzu honetan, gelatina eta I motako kolagenoa dira bere substratu ezagunenak. Hori dela eta, FAP $\alpha$ -k matrizeko metaloproteinasekin (MMP) elkarlanean, kolagenoaren degradaziotik eratorritako peptido bioaktiboen sorreran parte hartzen duela proposatu da, esanahi biologikoa guztiz argitu gabe dagoen arren (207). Halaber, FAP $\alpha$ -ren lehen substratu ezaguna  $\alpha$ 2-antiplasmina ( $\alpha$ 2-AP) da, eta digeritzean, fibrinari atxikitzen zaio honen egonkortasuna areagotuz (208). SPRY2 ere, tirosina kinasa hartzaileen inhibitzaile natural bat, FAP $\alpha$ -ren substratu gisa deskribatu da (209). Berriki, FAP $\alpha$ -k *Fibroblast*

## 1. Sarrera. Introducción

*Growth Factor* 21-engan (FGF-21) ere eragiten duela ikusi da. Hau, glukosa eta lipidoen metabolismoaren erregulatzailerik garrantzitsua izanik, FAP $\alpha$  II motako diabetesaren eta metabolismoaren nahasmenduen tratamendurako jomuga gisa proposatu da (210,211).

Edonola, aipaturiko aktibitate entzimatikoa bereizgarria ez da FAP $\alpha$ -k bere funtzioak garatzeko daukan mekanismo bakarra. Mutante katalitikoaren bidezko ikerketek aktibitate entzimatikoz haratagoko funtzioak atxiki baitizkiote (212).

Honela, FAP $\alpha$ -k mintz zelularreko seinalizazio molekulekin proteina konplexuak eratuz hainbat funtzio gidatzeko aukera aztertu da. Zentzu honetan, FAP $\alpha$ -k ez soilik DPPIV/CD26rekin baita  $\beta$ 1 integrinekin eta *urokinase Plasminogen Activator Receptor* (uPAR) ere konplexuak eratu ditzakela frogatu da eta hauen bidezko seinalizazioak funtzio zelularren erregulazioan eragin dezakela (213).

### 1.4.2 FAP $\alpha$ -ren ESPRESIOA FISILOGIAN ETA PATOLOGIAN

FAP $\alpha$ -k giza ehunean espresio patroi karakteristikoa dauka. Batetik, bere adierazpena enbriogenesiarekin erlazionatu da, fetuetako zenbait ehun mesenkimaletan detektatu baita (194). Bestetik, salbuespenak salbuespen, gizaki helduen ehunek ez dute peptidasa hau espresatzen. Gizaki helduetan, soilik endometrioan, hezur muineko zelula ama mesenkimaletan, muskuluan eta pankreako A zelulatan deskribatu da (214–216).

Aldiz, estroma aktiboarekin erlazionaturiko egoera patologiko ezberdinetan FAP $\alpha$ -ren espresioa induzitzen dela baieztatu da. Honela, FAP $\alpha$  izar-itxurako gibelego zelulatan detektatu da gaixo zirrotikoetan (217). Halaber biriketako fibrosi idiopatikodun gaixoen fibroblastoen fokoetan eta interstizio fibrotikoetan ere espresatzen da (218). Hanturarekin estuki erlazionatuta ere ikusi da, artritis eta arteriosklerosi kasuetan esaterako (219,220). Baita Crohnen gaixotasunean ere (221). Minbizian ere detektatu da, tumore-zelulatan, baina batez ere estromako zelulatan, tumore epitelialen %90ean espresatzen dela baieztatu delarik (222).

Patologia guztiek *tissue remodeling* deritzon fenomenoak daukate amankomunean, hau da, ehunen berrikuntza eta berrantolaketa, eta FAP $\alpha$ -ren funtzio biologikoa honekin lotu da (223).

Espresio patroi bereizgarri honen ondorioz, non FAP $\alpha$ -ren espresio ia egoera patologikoetara soilik mugatzen duen, peptidasa hau gaitz ezberdinen tratamendurako jomuga erakargarri bilakatu da.


### 1.4.3 FAP $\alpha$ ETA MINBIZIA

Tumoreak sekula ixten ez diren zauri gisa deskribatu dira. Izan ere, tumoreak ebolutiboki ehunen birsorkuntza eta birmoldaketarako garatu diren mekanismo babesleak bere garapen propiorako bereganatzen ditu (224). Fibroblasto aktiboen eta FAP $\alpha$ -ren beraren adierazpena ehunen birmoldaketan inplikaturiko egoera fisiopatologikoen markatzaile gisa deskribatu izanak minbiziaren garapenean ere rol garrantzitsuak izan ditzaketela pentsarazten dute.

### **Tumore-mikroingurua**

Minbiziaren ikuspegia nabarmen aldatu da tumore-zelulaz osaturiko masa soiletik gaur egun ezagutzen den zelula mota ezberdinez osaturiko ehun konplexuetara. Honela, tumoreak mikroinguru konplexu baten baitan sortu eta garatzen dira non tumore-zelula eta estromako zelulen arteko komunikazio bidirekzionala ezinbestekoa den tumorearen garapenerako (1.15. Irudia) (225).

Beraz, tumore-zelula epitelialez gain, endotelio-zelulek, zelula immuneek, fibroblastoez, zelulaz kanpoko matrizeak eta hauen arteko komunikaziorako zitokina eta hazkuntza faktoreek osatzen dute tumorearen mikroingurua. Edonola, mikroinguruaren konposizioa ezberdina da osatzen duten zelulen proportzioaren eta hauen aktibazioaren arabera. Are gehiago, tumorearen mikroingurua eraldaketa konstantean dagoela proposatu da eta tumore-zelulei beren ezaugarri bereizgarri edo *hallmarkak* bereganatzea ahalbideratzen die (226). Modu honetan, minbiziaren hazkuntza, inbasio eta metastasi prozesuak babesten ditu (227).



**1.15. Irudia. Tumore-zelulen eta mikroingurua osatzen duten gainontzeko osagaien arteko binoranzkoko komunikazioa ezinbestekoa da tumorearen garapenerako.** Tumorearen hastapenetan, sistema immunologikoko zelulek, fibroblastoek eta makrofagoek tumorea erasotzen dute baina denborarekin tumorearen garapena bermatzeko “hezten” ditu tumoreak. (\*) Quail DF eta Joyce JA.ren *Microenvironmental regulation of tumor progression and metastasis* artikulutik moldatua (227).

Tumore-mikroinguruaren ezaugarri nagusienetako bat bere hanturazko izaera da. Tumoreetako zelula immuneen infiltrazioa XIX. mendetik ezagutzen den arren, inflamazioak minbiziaren garapenean daukan rola ikergai izaten jarraitzen du (224). Hasiera batean tumorearen aurkako erantzuntzat hartu arren, egun ezaguna da minbiziaren garapena ere ahalbideratzen duela (1.15. Irudia) (228). Izan ere, minbizia eragiten duten zenbait kanpo eragile eta baita hainbat arrisku faktore ere inflamazio kronikoarekin erlazionatu dira, bakterio eta birusen infekzioa eta tabakismoa esaterako (229,230). Horregatik, gaur egun, “ezaugarri gaitzaile” gisa ezagutzen da, hots, minbizi zelulei beren gaitasun bereizgarriak bereganatzea ahalbideratzen dien baldintza gisa (72).


## 1. Sarrera. Introducción

Hori dela eta, tumorearen mikroingurua tratamendurako jomuga potentzial izan daitekeenaren ideia indartzen joan da azken hamarkadetan. Izan ere, estromako zelulak genetikoki egonkorragoak dira tumore-zelulak baino eta ondorioz ez dute hauen erresistentzia garatzeko gaitasunik. Honela, estrategia ezberdinak garatu dira tumorearen baso-sistemaren aurka edo honi atxikitako inflamazioa jomuga dutenak, VEGFren aurkako bevacizumab antigorputza kasu (231). Ez hori bakarrik, mikroinguruko zelula ezberdinak suntsitzeaz gain, hauek tumorearen aurkako akzioak garatu ditzaten birprogramatzea ere proposatu da (227). Zentzu honetan, immunoterapiak, aurrerapen nabarmenak eragin ditu hainbat minbizi motatan eta garatzen jarraitzen du (232,233). Honela, tumore eta estromako zelulen aurkako tratamendu dualek, sistema immune naturalaren estimulazioarekin batera, minbizia tratatu ahal izateko estrategia integrala osatzea espero da (234).

### **Minbiziari atxikitako fibroblastoak (CAF)**

Minbiziari atxikitako fibroblastoak, fibroblasto aktibatuak dira eta tumore-mikroinguruaren osagai nagusienetako bat dira. CAF kontzeptuak, jatorri ezberdineko zelula populazio heterogeneo bat biltzen du (1.16. Irudia). Oro har CAFen jatorri nagusia bertako fibroblastoen aktibazioa den arren, inguruko hainbat endotelio eta epitelio zelulek transformazio mesenkimala jasan dezakete, hurrenez hurren endotelio/epitelio-mesenkima trantsizioa (EndMT/EMT) deritzen prozesuen bidez. Are gehiago, tumore-mikroinguruko beste hainbat zelula mesenkimal, perizito adipozito eta VSMCak kasu, CAFen jatorri izan daitezkeela proposatu da (235).





**1.16. Irudia. Minbiziari atxikitako fibroblastoen (CAF) jatorri ezberdinak.** (\*) Alice Ayresek sortutako *Cancer Associated Fibroblasts* izeneko irudiaren egokitzapena da, eta *Creative Commons*en CC-BY-4.0 lizentziarekin erabil daiteke.

Fibroblastoen aktibazioa ohiko fenomeno da zenbait egoera fisiopatologikotan, esaterako ehunen narriaduraren eraginez. Honen erantzun gisa, fibroblastoen aldaketa fenotipiko bat jasan eta lesioa kokatzen den gunera migratzen dute non beren funtzioak garatzen dituzten. Behin hauek amaituta zelulaz kanpotiko matrizearen degradazioak fibroblasto aktibatuen apoptosia eragiten du (236). Tumoreetan, “sekula ixten ez diren zauriak” izanik, fibroblastoen aktibazioa kroniko bihurtzen da, ikerketa ezberdinen arabera mekanismo epigenetikoek gidatuta, CAFei bide emanez. Hala, beste egoera patologiko batzuetako fibroblasto aktibatuen eta CAFen artean ezberdintasun nabarmenak deskribatu dira (237).

Fibroblastoen aktibazio prozesua tumore motaren arabera diren mekanismo ezberdinen bitartez ematen da. Ezagunena, tumore-zelula epitelialek eta baita estomako beste zelula batzuek jariaturiko zitokina eta hazkuntza faktoreek eragindakoa da (1.17. Irudia) (238). Hauen artean *transforming growth factor*  $\beta$  (TGF-


## 1. Sarrera. Introducción

β) bereziki garrantzitsua den arren, beste hainbat ere ezagutzen dira, *bone morphogenic protein* (BMP)ak, *platelet-derived growth factor* (PDGF), *epidermal growth factor* (EGF), *fibroblast growth factor* (FGF) and *sonic hedgehog* (SHH) kasu (239). Halaber, zelula-zelula interakzio bidezko aktibazioa ere deskribatu da (240) eta baita microRNA bidezko erregulazioak rol bat duela aktibazio prozesuan (241).

Aktibazio honen eraginez fibroblastoen hainbat aldaketa fenotipiko jasaten dituzte, beren funtzioak garatzeko ezinbestekoak diren ezaugarriak bereganatuz (1.17. Irudia). Honela, CAFen markatzaile bereizgarriena *α smooth muscle actin* (αSMA)ren espresioa da, uzkurdua indarrekin erlazionatu dena. Honekin batera, beste hainbat markatzaile diferentzial ere deskribatu dira, hala nola, bimentina, *fibroblast specific protein 1* (FSP1), S100A4 gisa ere ezaguna, *platelet derived growth factor* (PDGF)ren hartzaileak (PDGFR), desmina eta abar (242). FAPα-ren adierazpena ere mugarri da fibroblastoen aktibazioan. Edonola, markatzaile hauek ez dira CAFen markatzaile espezifikoak, beste hainbat zelulatan ere espresatzen baitira. Are gehiago, fibroblastoen guztiek ez dituzte uneoro markatzaile guztiak espresatzen, egitura eta funtzio ezberdineko zelula populazio zabalari bide emanez (243).


Beraz, CAFek, jatorrizko zelula motaren eta aktibazio prozesuaren eraginez, zelula populazio heterogeneoa eratzen dute. Honek, tumorearen garapenean zehar funtzio ezberdin eta kasu batzuetan kontrajarriak betetzea ahalbideratzen die. Hori dela eta, akzio espezifikodun fibroblastoen azpimota ezberdinen existentzia proposatu da (244). Azpimota hauek ezberdindu eta funtzio espezifikoak erregulatzea minbiziaren tratamendurako mugarri izan daiteke.

## 1. Sarrera. Introducción



**1.17. Irudia. Minbiziari atxikitako fibroblastoen aktibazio prozesuaren laburpena.** Fibroblasto normalek, zitokina eta hazkuntza faktore ezberdinen eraginez, aldaketa fenotipikoa jasaten dute, zenbait markatzaile bereizgarri espresatuz. Jatorrizko zelula eta aktibazio prozesuaren arabera, funtzio espezifikoak garatzen duten CAFak egon litezkelako proposatu da.

Fibroblastoen aktibazioak sinbiosi erlazio bat sortzen du CAF eta minbizi zelulen artean. Honela, CAFek minbiziaren garapenean daukaten rola ikergai izaten jarraitzen du gaur egun. Tumorigenesia eta tumorearen garapena modu aktiboan gida dezaketela deskribatu den arren, tumorearen aurkako funtzioak ere garatu ditzaketela ikusi da (245,246). Hazkuntza faktore eta zitokina ezberdinen jariatzearen bitartez eta zelulaz kanpoko matrizean eraginez, minbiziaren hastapenak, garapena eta metastasi prozesuak erregulatzen dituzte (236). Horretarako, tumorearen hazkuntza, angiogenesia eta ezaugarri inbaditzaileak indutzten dituzte (247–251). Halaber, tumoreen garapeneko fase bakoitzera egokituriko efektu immunoezabatzaileak garatzen dituzte (252). Gainera, CAFek eta minbizi zelulek elkarren metabolismoaren birprogramazioa eragin dezaketela frogatu da (253). Fibroblasto aktibatuen haren beste funtzio garrantzitsu bat tratamenduen aurkako erresistentzia indutztea da (254). Horretarako, hazkuntza faktoreen jariatzea, tumore-zelulekin elkarrekintza eta ECMren birmoldaketa eragiten dituzte (255–258). Horregatik, fibroblastoen minbizian rol integrala garatzen dutela onartzen da (1.18. Irudia).



**1.18. Irudia. Minbiziari atxikitako fibroblastoek minbiziaren garapenean eragiten dute.** Horretarako, zuzenean tumore-zelulen proliferazioa, inbasioa eta biziraupena indutzen dituzte, tumore-zeluletan edo ECMean eraginez. Halaber, zeharka ere sustatu dezakete tumorearen garapena, mikroinguruko gainontzeko zelulengan eraginez. (\*) Brennen EN eta lankideen *Rationale behind targeting FAP $\alpha$  protein expressing CAFs* artikulutik moldatutako irudia(259).

CAFek minbiziaren garapenean daukaten garrantzia kontutan hartuta ez da harrizkoa haiek jomuga dituzten tratamenduak minbizi zelulen aurkako tratamenduekin batera erabiltzea proposatu izana. Zentzu honetan, estrategia ezberdinak proposatu dira. CAFen markatzaileak zuzenean jomuga gisa erabiltzea, FAP $\alpha$  esaterako, edota CAFen seinalizazio parakrinoarengan eragitea, hala nola, PDGF/PDGFR, HGF/Met edota TGF- $\beta$  bidezkoetan (242). Fase prekliniko zein klinikoetan buruturiko entseguek, emaitza itxaropentsuak eman dituzten arren, CAFak jomuga dituzten tratamenduak garapenean daude oraindik (260,261).

Halaber, CAFen aktibazioaren markatzaile diren hainbat proteinaren espresioa,  $\alpha$ SMA, bimentina edo FAP $\alpha$ -rena kasu, minbizi ezberdinen diagnostikorako tresna bezala proposatu dira (262).

### **FAP $\alpha$ eta tumore biologia**

FAP $\alpha$  tumore epitelialetak estromaren %90ean espresatzen da, hain zuzen ere CAFetan. FAP $\alpha$  CAFek betetzen dituzten funtzio ezberdinetan inplikatur dagoela frogatu da eta hauek bezala, tumorearen garapenarekin nahiz tumorearen aurkako efektuekin erlazionatu da (263). Ondorioz, FAP $\alpha$ -ren funtzioa kontestuen arabera izan daitekeela proposatu da, eta espezifikoki elkar-ekintzarako eskuragarri dituen seinalizazio molekulu arabera.

2015ean Fang Liu eta lankideek *Plos One* aldizkarian argitaraturiko meta-analisi batean, tumore ezberdinetan immunohistokimika bidez FAP $\alpha$ -ren adierazpena aztertzen duten 15 ikerketa biltzen dira (264). Espresioa jatorri ezberdineko tumoreen estroman aztertzeaz gain, zenbait tumore-zelulatan ere detektatzen da, obulutegikoan, pankreakoan, esofagokoan, endometriokoan eta osteosarkoman kasu. Bertan frogatzen da FAP $\alpha$  gainespresatzen duten gaixok gongoil linfatikoetarako metastasiak jasateko arrisku handiago dutela FAP $\alpha$  espresio baxua dutenek baino eta ondorioz baita pronostiko gaiztoagoa eta biziraupen laburragoa ere. Are gehiago, pronostiko gaiztoarekin duen korrelazioa sendoagoa da FAP $\alpha$  tumore-zeluletan espresatzen duten gaixotan, estroman espresatzen dutenetan baino. Berriki, antzeko emaitzak deskribatu dira urdaileko minbizian ere (265). Oro har FAP $\alpha$ -ren adierazpena tumoreen izaera agresiboarekin eta pronostiko gaiztoarekin erlazionatu bada ere, badira aurkako emaitzak jasotzen dituzten ikerketak ere. Hala, bularreko hodietako kartzinoma inbaditzailean, biziraupen hobearrekin korrelazionatzen du (266).

Hori dela eta FAP $\alpha$ -ren espresioa, hainbat minbiziren diagnostikorako tresna potentzial gisa proposatu da (265,267). Ez soilik tumore ehunetan, plasmako FAP $\alpha$  mailak ere balio diagnostikoa erakutsi du, non oro har, jaitsi egiten den minbizi pazienteetan pertsona osasuntsuekin alderatuz gero (268,269). Are gehiago, berriki argitaraturiko artikulu batean FAP $\alpha$ -ren aktibitatearekiko sentikorrek diren zundadun nanopartikulak gernuan detektatzeko metodo bat deskribatzen da tumore

## 1. Sarrera. Introducción

solidoen diagnostikorako (270). Halaber, FAP $\alpha$ -k aktibaturiko immunoliposoma fluoreszenteak, era intraoperatiboan tumore eta metastasien detekziorako tresna erabilgarriak direla frogatu da, hauen erauzketa kirurgikoa optimizatzeko erabilgarri izan daitezkelarik (271).

*In vitro* zein *in vivo* ikerketek, FAP $\alpha$ -k tumorearen garapenean eragin integrala daukala frogatu dute, CAFek parte hartzen duten funtzio guztietan parte hartzen baitu. Honela, urdaileko, pankreako edota obulutegiko minbizien modelo ezberdinetan esaterako, FAP $\alpha$ -k minbizi zelulen biziraupena, proliferazioa, migrazioa eta tratamenduekiko erresistentzia bultzatzen dituela frogatu da (272–275). Gainera, modelo ezberdinetan, FAP $\alpha$ -ren espresioa tumoreen izaera inbaditzailearekin estuki erlazionatuta dagoela frogatu da (276–278). Halaber, FAP $\alpha$ -ren inhibizioa zein adierazpenaren murrizketa, estrategia eraginkorrak dira minbiziaren garapena eta metastasien agerpena ekiditeko orduan (279–281).

FAP $\alpha$ -k garaturiko funtzio espezifikoak ezagutu ahala, akzio hauek burutzeko mekanismo molekularren ezagutza ere argituz doa (1.19. Irudia). Hala, bularreko minbiziko bi modelotan, non FAP $\alpha$  tumore-zeluletan espresatzen den, tumore-zelulen hazkuntza, mugikortasuna eta inbaditzeko ahalmena, aktibitate entzimatikorekiko independenteak direla frogatu da mutante katalitikoaren bitartez (282,283). Aldiz, HEK293 zelulekin garaturiko modelo batean aktibitate entzimatikorik gabeko mutante katalitikoak, tumorearen hazkundera moteltzen du (284). Ondorioz, FAP $\alpha$ -ren funtzio biologikoak aktibitate entzimatiaren menpekoak izan daitezke edo ez, kontestuen arabera:

### *Zelulaz kanpoko matrizearen eraldaketa*

FAP $\alpha$ -k tumore-zelulen inbaditzeko gaitasuna areagotzen du ECMean eraginez. Horretarako, aktibitate entzimatiaren menpeko zein independenteak diren funtzioak garatzen ditu. Batetik, koleganasa aktibitatearen bitartez ECMeko proteinen maila eta kolageno eta fibronektina zuntzen organizazioa areagotuz bultzatzen du inbasioa, pankreako minbizian edo melanoman deskribatu den bezala

## 1. Sarrera. Introducción


(285,286). Bestalde, proteina ezberdinen interakzioz ere eragiten du, hauekin konplexuak eratuz, modu sinergikoan jardunez (integrinekin esaterako) edota ECMean eragiten duten proteinen espresioa indultuz, MMP-2 eta MMP-9 kasu (207,213,282,287).

### *CAFen sekretomaren erregulazioa*

Berriki argitaraturiko artikuluko batean FAP $\alpha$ -ren adierazpenak CAFek jariaturiko proteinak erregulatzen dituela frogatzen da (288). Bereziki, TGF- $\beta$  seinalizazioarekin, zelulaz kanpoko matrizearekin eta angiogenesiarekin erlazionaturiko proteinak dira asaldatuta ageri direnak. Batetik, emaitza hauek bat datoz, FAP $\alpha$ -k ECMrengan erakutsitako akzioekin. Bestalde, FAP $\alpha$ -ren angiogenesiaren aldeko eragina hainbat ikerketatan deskribatu da. Hala, bere adierazpena, tumoreetako odol-hodi dentsitate handiagoarekin erlazionatu da bularreko minbiziko modelo batean eta VEGF espresioarekin korrelazionatzen du pankreako minbizian (289,290). Gainera, FAP $\alpha$ -ren inhibizio farmakologiko zein adierazpenaren jaitsierak, tumoreetako odol-hodien dentsitatea murrizten du (291). Halaber, ezaguna da TGF- $\beta$ -ren FAP $\alpha$  indultzeko gaitasuna (292,293). Aktibazio erreziprokoak efektu sinergikoak iradokitzen ditu.

### *Substratu fisiologikoen degradazioa*

FAP $\alpha$ -ren substratu fisiologikoen aztergai izaten jarraitzen duten arren, zenbait peptido ezagunen degradazioak tumore biologian rol bat joko dezaketela proposatu da. Hala, Y neuropeptidoa eta bere Y2R hartzailea, urdailean, parenkima/estroma interfaseko minbizi zelulatan gainespresatuta ageri dira, non fibroblastoetako FAP $\alpha$ -rekin elkarrekin dezaketen (294). Halaber, FAP $\alpha$ -ren beste substratu batek, FGF21ak hain zuzen ere, urdaileko minbiziaren aurkako babes funtzioak dituela deskribatu da *in vivo* garaturiko entseguetan (295).



**1.19. Irudia. FAP $\alpha$ -k mekanismo ezberdinen bitartez minbiziaren garapena ahalbideratzen du.** Batetik, ECMrengan eragiteko gaitasuna dauka. Gainera, CAFek jariaturiko zitokina eta beste hainbat faktore erregulatzen ditu. Honela, erantzun immunea ezabatu eta hanturazko ingurunea sortuz. Ondorioz, tumorearen fenotipo agresiboa bultzatzen du.(\*). Fuming Zi eta lankideen *FAP $\alpha$  in tumor microenvironment: recent progression and implications review*-tik moldatutako irudia (296).

### *Immunoiezabatzea*

FAP $\alpha$ -k tumoreen garapena bultzatzeko darabilen mekanismo garrantzitsuenetariko bat bezala deskribatu da tumorearen aurkako erantzun immunearen ezabaketa (297). Hala, berriki, koloneko minbiziari eta gibelego kolangiokartzinomari buruz argitaraturiko bi artikulutan, FAP $\alpha$ -k erantzun immunea ezabatzeko mekanismo berdintsuak deskribatzen dira (298,299). Laburki, FAP $\alpha$ -dun zelulek, hanturazko ingurunearen sorrera bultzatzen dute CCL2ren gainespresio bidez. Honek, zelula mieloideen erakarpina eragiten du eta aldi berean T-zelulen aktibitatea murriztu. Halaber, pankreako minbizian, FAP $\alpha$ -dun zelulak ezabatzeak *checkpoint* immunologikoen tumorearen aurkako efektua berreskuratzen du (300). Hau, CXCL12ren jaitsierarekin zuzenean erlazionaturik dago, zein lehenago ere CAF eta minbizien garapenarekin erlazionatu den (301). Honela, FAP $\alpha$ -dun estromako zelulek, oztopo desmoplasiko bat ezartzeaz haratago, T zelulen aurkako estrategia biokimikoa ere garatzen dute (302,303).



## 1. Sarrera. Introducción

### *Tratamendu ezberdinekiko erresistentziaren indukzioa*

Tumorearen garapena ahalbideratzeko mekanismoez gain, FAP $\alpha$ -k tratamendu ezberdinen aurkako erresistentzian ere eragiten duela deskribatu da. Hala mieloma anizkoitzaren (MM) *in vitro* modelo batean, hezur muineko zelula ama mesenkimaletan (BMMSC) espresaturiko FAP $\alpha$ -ak bortezomibak MM tumorezelulatan eragindako apoptositik babesten du (304). Halaber, obulutegiko kartzinoma epitelialean, estomako zelulen FAP $\alpha$  espresioa, zisplatinoarekiko erresistentziaren markatzaile da eta baita errezidiba bizkorrago baten adierazle ere (305). Gainera, FAP $\alpha$ -ren inhibizioak kimioterapiaren eraginkortasuna areagotu dezakela frogatu da (306).

### **FAP $\alpha$ jomuga duten estrategia terapeutikoak**

FAP $\alpha$ -ren adierazpena batez ere tumoreetako zelula estromaletara mugatuta egoteak eta tumore epitelialen %90ean deskribatu izanak, bere aktibitate entzimatik bereizgarriarekin batera, minbiziaren tratamendurako iturri interesgarri bihurtzen dute. Ondorioz, FAP $\alpha$ -k tumore biologian daukan funtzioa antagonizatzeke estrategia ezberdinak diseinatu dira.

### *FAP $\alpha$ -ren aktibitate entzimatiakoaren inhibitzaileak*

Saiakera ezberdinak burutu dira serina proteasa honen aktibitatearen inhibitzaileak diseinatzen (307). Zentzu honetan, eta FAP $\alpha$ -ren inhibitzaile espezifiko bano dipeptidil peptidasa aktibitatearen inhibitzaile den arren, PT100 edo Talabostat bezala ezagutzen den inhibitzailea izan da erabiliena. Hala, azido borikoan oinarrituriko inhibitzaile honek FAP $\alpha$  eta DPPIV/CD26 inhibitzen ditu eta independenteki, tumorearen aurkako erantzun immunologikoa ere bultzatzen du (308). Konposatu honekin II. faseko entsegu klinikoak garatu dira fase aurreratuko minbizi ezberdinetan, koloneko minbizi metastasikoan, *non small cell lung carcinoman* (NSCLC), IV estadioko melanoman eta leuzemia linfomatikoan (308–311). Zenbait erantzun partzial eta NSCLCren kasuan erantzun total bat ere erregistratu arren, oro har, lorturiko emaitzek ez dute tratamendu klasikoekiko

## 1. Sarrera. Introducción

abantaila handirik erakutsi. Halere, dosia muga lezaken toxizitaterik ezean, *Point Therapeutics* enpresak III. faseko entseguak ere garatu ditu. Hauek, bertan-behera gelditu ziren biriketako minbizidun gaixoetan erakutsitako eraginkortasun ezagatik (259).

Talabostatarekin gertatu bezala, simultaneoki FAP $\alpha$  eta protil oligopeptidasa inhibitzen dituzten inhibitzaileen tumoreen aurkako efektua ere frogatu da (312). Hala ere, FAP $\alpha$ -ren inhibitzaile espezifikoen garapenak erronka izaten jarraitzen du, potentzial terapeutikoz gain, bere rol biologiko espezifikoen ezagutzarako ezinbesteko baita. Hainbat saiakera itxaropentsu burutu diren arren, oraindik ez da hauen emaitza prekliniko edo klinikorik argitaratu (33,307,313).

### *FAP $\alpha$ -ren aurkako antigorputzak*

FAP $\alpha$ -k tumore biologian daukan efektua, bere aktibitate entzimatikotik haratago doa. Hala, beste hainbat estrategia ere erabili dira FAP $\alpha$ -ren aurka. Hauen artean, antigorputzak dira ezagunenak. Hala, Boehringer Ingelheim etxearen sibrotuzumab, FAP $\alpha$ -ren aurkako F19 antigorputzaren bertsio gizatiartuarekin, I eta II faseko entsegu klinikoak garatu dira. Koloneko eta NSCLC-dun gaixoetan tolerantzia ona eta segurtasun maila altua erakutsi arren, ez da tumorearen erantzun esanguratsurik atzeman (314,315). Hemendik abiatuta, FAP $\alpha$ -rekin erlazionaturiko antigorputz ezberdinak garatu dira. Hala, FAP $\alpha$ -ren aurkako antigorputz inhibitzaile berriek honen funtzioak deuseztatzeko gaitasuna erakutsi dute (316). Berriki, FAP $\alpha$  eta beste proteina bat jomuga dituzten antigorputz bi-espezifikoek emaitza itxaropentsuak eman dituzte (317,318). Ondorioz, egun entsegu klinikoak garatzen ari dira hauekin tumore solidodun gaixoetan NCT02558140 eta NCT02627274. Antzera, erradionukleidoekin konjugaturiko FAP $\alpha$  antigorputzek ere emaitza onak eman dituzte fase preklinikoetan (319).

## 1. Sarrera. Introducción

### *FAP $\alpha$ -k aktibaturiko pro-drogak*

FAP $\alpha$  engaiatzen duen minbiziaren aurkako beste estrategia bat, bere aktibitate entzimatiakoaren bidezko pro-droga kaltegabeen aktibazioa da. Izan ere, peptidasa honen espresio selektiboak, droga zitotoxikoaren efektua tumorearen ingurunera mugatzea bermatzen du. Zentzu honetako lehenengo saiakera erle pozoitik abiatuta sintetizaturiko pro-toxina bati, FAP $\alpha$ -k hidrolizatzeko sekuentzia gehituz burutu zen eta bularreko zein prostatako minbiziko *in vivo* modeloetan tumorearen hazkuntzaren inhibizio nabarmena erakutsi zuen (320). Ordutik, doxoerrubizina, tapsigargina, emetina eta beste hainbat konposatu zitotoxikotan oinarrituriko pro-drogekin garaturiko entsegu preklinikoek estrategia seguru eta eraginkorra izan daitezela frogatu dute (321–327). Are gehiago, berriki, FAP $\alpha$ -k ezagutzeko diseinaturiko nanopartikulak, droga terapeutikoak tumore-mikroinguruan modu espezifiko eta seguruan kontzentratzeko estrategia eraginkor gisa frogatu dira (328), eta baita immunoliposomak ere (329).

### *FAP $\alpha$ jomuga daukaten minbiziaren aurkako txertoak*

Minbiziaren aurkako txerto terapeutikoak, pazientearen sistema immunologikoa indartuz tumorearen aurkako erantzuna garatzeko estrategiak dira eta beraz immunoterapiaren barnean kokatzen dira (330). Hala, *in vivo* garaturiko entsegu preklinikoetan emaitza itxaropentsuak lortu dira. 2005ean jada, FAP $\alpha$  jomuga zuen txerto batek, tumore-zelulen aurka diseinaturiko txertoek bezain besteko tumore aurkako efektua zeukala ikusi zen (331). Ordutik, zelula dendritikoetan oinarrituriko zein azido desoxirribonukleiko (DNA) bidezko txerto ezberdinek, tumorearen garapena ekiditeko gaitasuna erakutsi dute (332–335). Are gehiago, berriki, txerto hauek erantzun immunea erregula dezaketen beste zenbait konposaturekin konbinatzeak tumorearen aurkako eraginkortasuna areagotu dezaketela deskribatu da (336–339).

### *FAP $\alpha$ -ren aurka zuzendutako Chimeric Antigen Receptor T Cells*

CAR T-cell terapia deritzona, *adoptive cell transfer* (ACT) immunoterapiaren azpimota bat da. Laburki, gaixoaren T zelulak jaso eta laborategian genetikoki eraldatzen dira, beren mintz zelularrean tumoreetako antigenoak ezagutuko dituzten CARak espresa ditzaten. Zelula hauek hazi eta berriz gaixoari inokulatzen zaizkio, aipaturiko antigenoa espresatzen duten zelulak ezabatzeko. Gainera, T zelula hauek gaixoaren organismoan mantentzen dira, errekurrentzia ekidinez. Berriki onartu du FDAk teknika honetan oinarrituriko lehen tratamendua. Estrategia honetan oinarrituz FAP $\alpha$  jomuga daukaten T zelulak sortu dira, hauekin *in vivo* entseguak garatuz. Hala, hauekin trataturiko saguetan FAP $\alpha$  espresatzen duten estromako zelulen gutxitzea eta ondorioz tumore ezberdinen garapenaren geldotzea frogatu da (340–342). Ondorioz, Zuricheko Unibertsitatea entsegu kliniko baten hastapen faseetan dago eraldatutako T zelulak FAP $\alpha$  espresatzen duen mesotelioma pleurala tratatzeko (NCT01722149).

#### 1.4.4 FAP $\alpha$ ETA GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMA

FAP $\alpha$ -k minbizi ezberdinen garapenean daukan garrantzia inongo zalantzaz kanpo dagoen arren, giltzurrun-zelulen kartzinoman izan lezaken rola erabat ezezaguna da. Hala ere, tumorearen mikroinguruak RCCaren garapenean duen garrantzia ezaguna da eta minbiziari atxikitako fibroblastoen giltzurruneko minbizi zelulen proliferazioa, migrazioa eta everolimus tratamenduaren aurkako erresistentzia areagotzen dituztela frogatu da (343). Gainera, CCRCC zelulen eta fibroblastoen arteko elkarrekintzak zelulaz kanpoko matrizearen eraldaketa eragin dezakeela ere frogatu da (344).

Honek, FAP $\alpha$  RCCarekin erlazionatuta egon litekela iradokitzen du, batik bat CCRCCarekin. Izan ere, CCRCCan, VHL genearen galerak Hif 1 $\alpha$ -ren metaketa eragiten du. Jakina da hipoxia faktore honek zenbait seinalizazio molekula faktoreren jariatzea erregulatzen duela zeintzuek aldi berean zelula aitzindariak CAF bilakatzea eragiten duten (345–347).

## **1. Sarrera. Introducción**

## **2. HELBURUAK. Objetivos**



## 2. Helburuak. Objetivos

Ikerketa hau, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Sailean garatu da, Komunikazio Zelularreko ikerketa taldearen baitan, zeinak ibilbide luzea daukan peptidasen ikerkuntzan. Izan ere, talde honek hainbat hamarkada daramatza peptidasek fisiologiaren alor ezberdinetan garaturiko funtzioa aztertzen. Hala, entzima hauek, ugalkortasun, garapen eta zahartze prozesuetan duten eskuhartzea deskribatuz artikulu ezberdinak argitaratu dira.

XXI. mendearen hasieran, peptidasen ikerketa minbiziaren alorrera hedatu zen. Hala, azken hamarkadan, peptidasa ezberdinek giltzurrun-zeluletako, koloneko, tiroideko eta beste hainbat ehunetako minbizietan dauzkaten rola aztertu dira, emaitza esanguratsuak lortuz. Giltzurruna bereziki, peptidasetan oso aberatsa den ehuna da eta hauetako hainbaten aktibitatea asaldatuta deskribatu da prozesu neoplasikoetan. Hori dela eta modelo egokia da tesi honetan ikergai diren peptidasen ikerketarako.

Hain zuzen ere, talde honek, errenina-angiotentsina sistemako zenbait peptidasen aktibitatea asaldatuta deskribatu dute giltzurrun-zelulen minbiziko ehunetatik eratorritako homogenatuetan (179,348). Antzera, DPPIV/CD26 entzimaren aktibitatea ere, FAP $\alpha$ -rekin estuki erlazionatuta dagoena, desorekatuta antzeman da (349).

Hori dela eta, tesi proiektu honen helburua giltzurruneko errenina-angiotentsina sistema peptidikoak eta fibroblastoen aktibazio proteina  $\alpha$  (FAP $\alpha$ ) peptidasak giltzurrun-zelulen kartzinomaren garapenean biomarkatzaile eta tratamendurako iturri gisa izan dezaketen potentziala aztertzea da.

Horretarako, honako helburu espezifikoak diseinatu dira ikerketa proiektuaren garapenaren baitan:



### 2.1 1. KAPITULUA: GILTZURRUNEKO ERRENINA-ANGIOTENTSINA SISTEMAREN (iRAS) IKERKETA GILTZURRUN ZELULEN KARTZINOMAN (RCC)

1. Angiotentsina peptidoak eraldatzeko gaitasuna daukaten ACE, ACE2, NEP/CD10 eta APA peptidasen espresioaren azterketa RCCko lau azpimota histologiko ohikoenez osaturiko 144 laginen seriean. Tresna pronostiko bezala izan lezaketen potentziala ikertzeko, hauen adierazpena parametro kliniko-patologiko ezberdinekin eta gaixoen biziraupenarekin erlazionatuko da.
2. Angiotentsina peptidoak eraldatzeko gaitasuna daukaten ACE, ACE2, NEP/CD10 eta APA entzimen aktibitatearen azterketa giltzurrun-zelulen kartzinoma daukaten gaixoetatik eratorritako serumean. Entzimen aktibitatearen emaitzak gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoekin eta pronostikorako erabiltzen diren modeloekin konparatuko dira, gaixotasunaren biomarkatzaile ez inbaditzaile gisa izan dezaketen erabilgarritasuna baloratzeko.
3. Errenina-angiotentsina sistemaren aktibitatearen ondorioz sorturiko peptido nagusiek (Ang II/Ang 1-7) RCCko lerro zelularren proliferazioan eta migrazioan daukaten efektuaren azterketa.

**2.2 2. KAPITULUA: FIBROBLASTOEN AKTIBAZIO PROTEINA  $\alpha$  (FAP $\alpha$ ) ZELULA ARGIEEN GILTZURRUN-ZELULEN KARTZINOMAN (CCRCC)**

1. FAP $\alpha$ -k CCRCCan daukan espresioaren azterketa 208 tumore primarioz osaturiko seriean. Parametro kliniko-patologikoekin eta gaixoen biziraupenarekin daukan erlazioaren azterketa burutuko da FAP $\alpha$ -ren adierazpenaren esanahi klinikoa ulertzeko.
2. FAP $\alpha$ -ren espresioaren analisia CCRCC metastasikoan. Minbizi honetan tresna pronostiko gisa daukan potentzialaren balorazioa parametro kliniko-patologikoen eta epitelio-mesenkima trantsizio (EMT)ko markatzaileekin daukan harremana erlazionatuz.
3. FAP $\alpha$ -k giltzurrun-zelulen kartzinomaren ezaugarri ezberdinetan daukan rolaen analisia CCRCCko eta fibroblasto lerro zelulekin buruturiko *in vitro* entseguen bitartez.



### **3. MATERIALAK ETA METODOAK.**

Materialles y métodos



## 3.1 LAGINA

Ikerketa proiektu honetan erabilitako lagina eta pazienteen informazioa bi instituzio mediko ezberdinetatik bildu ziren. Laginaren zatirik handiena, Ikerketarako Euskal Biobankutik (OEHUN) jaso zen. Instituzio honetan dute jatorria lehenengo kapituluari aztertutako parafinan finkaturiko lagin guztiek, plasma laginek eta baita ehun freskoak ere. Bigarren kapituluari dagokionez, giltzurrun-zelulen kartzinomako tumore primarioen seriea, Nafarroako Unibertsitatetik eratorritako laginekin osatu zen, aztertutako CCRCen lagin kopurua 208ra igoz. FAP $\alpha$ -ren espresioaren ikerketarako erabilitako tumore primario zein metastasikoz osaturiko serieak ordea Ikerketarako Euskal Biobankuan (OEHUN) du jatorria.

Paziente orori jakinarazi zitzaion bere kirurgiatik eratorritako laginen ikerketarako erabilera potentziala eta denek beraien onospena eman zuten Euskal Osasun Zerbitzuko (Osakidetza) Etika eta Ikerkuntzarako batzordeek onetsitako dokumentu bat sinatuz (CEIC 2015/060, CEIC-E PI2015101 eta CEIC 11-51).

Lagin guztiak bi patologok berrikusi zituzten Fuhrman gradua (19) eta tumore primarioaren inbasio lokala berresteko (17).

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.1.1 ANGIOTENTSINEN ENTZIMA BIHURTZAILEEN ESPRESIOA ETA AKTIBITATEA RCC GAIXOETAN

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean 1997 eta 2001 urteen artean artaturiko 144 RCC paziente ezberdinetatik eratorritako formalinaz finkaturiko eta parafinaz beteriko laginetan aztertu zen angiotensina peptidoak eraldatzeko gaitasuna duten entzimen adierazpena. Ikerketaren atzera begirako izaera kontutan izanda, gaixoen jarraipen klinikoak 2015. urteko abenduaren 31n itxi zen, biziraupena aztertu ahal izateko.

Entzimen aktibitatearen neurketarako aldiz Basurtuko Unibertsitate Ospitalean 2012 eta 2016 urteen artean RCCrekin diagnostikaturiko 128 gaixori kirurgia burutu aurretik ateratako odoletik erauzitako seruma erabili zen. Hauekin batera gaixotasun neoplasikoen aurrekaririk ez zuten 40 pertsona osasuntsutatik eratorritako serumean ere neurtu zen aktibitatea kontrol moduan. Gaixo hauen jarraipen klinikoak 5 urteak gainditzen ez zituela kontutan hartuta (32,27 hilabete batez-beste), aktibitatearen potentzial pronostikoa aztertzeko hurrenez-hurren errezidiba eta heriotza arriskuak baloratzen dituzten SSIGN eta UISS modelook erabili ziren (24,25).

Espresio zein aktibitatearen analisisan erabilitako giltzurrun-zelulen kartzinomadun gaixoen ezaugarri kliniko eta histologikoak 3.1. Taulan laburbiltzen dira.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

**3.1. Taula. Angiotentsinen entzima bihurtzaileen espresioa eta aktibitatea ikertzeko erabilitako RCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak.** Adierazpena, tumore primarioetako parafina laginetan aztertu zen eta aktibitatea aldiz, gaixoen serumean.

CCRCC	Ehun laginak	Serum laginak
	Batezbestekoa (tartea)	Batezbestekoa (tartea)
<b>Adina</b>	70,69 (39-93)	61,42 (36-82)
<b>Generoa (G/E)</b>	76/26	60/29
<b>Jarraipena (hilabetetan)</b>	110,3 (7-204)	32,27 (1-57)
<b>Biziraupena</b>		
Bizirik	64 (%63)	75 (%84)
Gaixotasunez hilak	38 (%37)	14 (%16)
<b>Diametroa</b>		
≤4 cm	35 (%35)	28 (%31)
>4 to 7cm	33.(%32)	39 (%44)
>7 cm	34 (%33)	22 (%25)
<b>Gradua</b>		
G1	21 (%21)	2 (%2)
G2	45 (%44)	46 (%53)
G3	22 (%21)	30 (%34)
G4	14 (%14)	10 (%11)
<b>pT</b>		
pT1	59 (%58)	59 (%66)
pT2	13 (%13)	12 (%14)
pT3	28 (%27)	16 (%18)
pT4	2 (%2)	2 (%2)
<b>PRCC</b>		
<b>Adina</b>	74,79 (58-89)	54,0 (26-80)
<b>Generoa (G/E)</b>	17/4	17/4
<b>ChRCC</b>		
<b>Adina</b>	73,41 (58-94)	64,625 (47-74)
<b>Generoa (G/E)</b>	11/6	7/1
<b>OR</b>		
<b>Adina</b>	84,25 (74-93)	63,45 (40-84)
<b>Generoa (G/E)</b>	4/0	3/7



### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.1.2 ANGIOTENTSINA II PEPTIDOAREN AT1R ETA AT2R HARTZAILEEN SEMI-KUANTIFIKAZIOA

AT1R eta AT2R hartzaileen kuantifikazio erlatiborako, ehun freskotik eratorritako proteinen homogenatuak erabili ziren. Hain zuzen ere, CCRCCdun 47 gaixoren tumore biopsiak eta hauen inguruko ehun ez neoplasikoa homogeneizatu ziren, 3.3.3 atalean deskribatzen den protokoloa jarraituz. Lagin hauen ezaugarri kliniko eta patologikoak 3.2. Taulan laburtzen dira.

**3.2. Taula. AT1R eta AT2R hartzaileen espresioa aztertzeko erabilitako CCRCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak.** Bi hartzaileen adierazpena ehun freskoan aztertu zen, tumore ehunetan eta inguruko ehun ez neoplasikoan.

CCRCC	Ehun laginak
	Batezbestekoa (tartea)
<b>Adina</b>	61,1 (36-80)
<b>Generoa</b>	
Gizonezkoa	34 (%72)
Emakumezkoa	13 (%28)
<b>Diametroa</b>	
≤ 7cm	23 (%49)
> 7cm	24 (%51)
<b>Gradua</b>	
G1	0 (%0)
G2	20 (%43)
G3	19 (%40)
G4	8 (%17)
<b>pT</b>	
pT1	23 (%49)
pT2	10 (%21)
pT3	14 (%30)
pT4	0 (%0)

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.1.3 FAP $\alpha$ -REN ESPRESIOA CCRCC GAIXOETAN

FAP $\alpha$ -ren adierazpena CCRCCko tumoreen bi serie ezberdinetan aztertu zen. Aurrena, CCRCCko 208 tumore primarioz osaturiko serie batean analizatu zen. Hauetatik 179 nefrektomia erradikala jasandako pazienteetatik eratorriak ziren eta aldiz gainontzeko 29ak nefrektomia partziala jasandakoetatik. Biziraupenaren analisirako, 177 pazienteen jarraipen klinikoa 2014ko abenduaren 31n itxi zen. 3.3. Taulak gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak batzen ditu.

#### 3.3. Taula. FAP $\alpha$ -ren espresioa aztertzeko erabilitako CCRCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak.

CCRCC	Batezbestekoa (%)
<b>Adina (tartea)</b>	66 (25-93)
<b>Generoa</b>	
Gizonezkoa	157 (%75,5)
Emakumezkoa	51 (%24,5)
<b>Jarraipena (hilabetetan)</b>	89,7 (1-240)
<b>Biziraupena</b>	
Bizirik	97 (%54,8)
Gaixotasunez hilak	80 (%45,2)
<b>Tumore primarioa</b>	
<b>Diametroa</b>	
≤ 4cm	67 (%32,2)
> 4cm	141 (%68,8)
<b>Gradu taldekatua</b>	
Baxua (G1-G2)	134 (%64,4)
Altua (G3-G4)	74 (%35,6)
<b>pT taldekatua</b>	
Baxua (pT1-pT2)	148 (%71,2)
Altua (pT3-pT4)	60 (%28,8)

Bestetik, FAP $\alpha$ -ren espresioaren analisisan sakontzeko helburuarekin, serina peptidasa honen adierazpena CCRCC metastasikoa (mCCRCC) zeukaten 59 gaixoren tumore primario zein metastasietako ehunean aztertu zen. Ehun kantitate mugatuaren ondorioz, soilik 54 gaixoren ehun metastasikoan izan zen posible FAP $\alpha$ -ren azterketa immunohistokimikoa.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

Egoera metastasikoari dagokionez, 14 gaixo metastasi sinkronikoekin diagnostikatu ziren, hau da, tumore primarioa diagnostikatzeko unean bertan metastasiak ere aurkitu ziren. Gainontzeko 45ek aldiz, tumore primarioa ezabatzeke kirurgia burutu ostean garatu zituzten metastasiak. Biziraupena aztertu ahal izateko jarraipen klinikoa 2014ko abenduaren 31n itxi zen. Pazienteen ezaugarri klinikoak eta patologikoak 3.4. Taulan laburtzen dira.

3.4. Taula. FAPα-ren espresioa aztertzeke erabilitako mCCRCC gaixoen ezaugarri kliniko-patologikoak.

CCRCC	n (%)
<b>Adina (tartea)</b>	59 (25-83)
<b>Generoa</b>	
Gizonezkoa	45 (%76)
Emakumezkoa	14 (%24)
<b>Jarraipena (hilabetetan)</b>	65 (1-240)
<b>Biziraupena</b>	
Bizirik	21 (%36)
Gaixotasunez hilak	38 (%64)
<b>Tumore primarioa</b>	<b>n (%)</b>
<b>Diametroa</b>	
≤ 7cm	34 (%58)
> 7cm	25 (%42)
<b>Gradu taldekatua</b>	
Baxua (G1-G2)	24 (%41)
Altua (G3-G4)	35 (%59)
<b>pT taldekatua</b>	
Baxua (pT1-pT2)	32 (%54)
Altua (pT3-pT4)	27 (%46)
<b>Sarkomatoidea</b>	
Ez	55 (%93)
Bai	55 (%93)
<b>Nekrosia</b>	
Ez	29 (%49)
Bai	30 (%51)
<b>Metastasiak</b>	<b>n (%)</b>
Sinkronikoak	14 (%24)
Metakronikoak	45 (%76)
<b>Lokalizazioa</b>	
Guruin linfatikoak	12 (%20)
Ehun epitelialak	31 (%53)
Ehun bigunak/hezur ehunak	16 (%27)

## 3.2 ADIERAZPEN GENOMIKOA AZTERKETZECO TEKNIKAK

3.5. Taula. Tesi proiektu honetan adierazpen genomikoa aztertzeko erabilitako, erreaktibo, material suntsikor eta gailuen laburpena.

<b>Erreaktiboak</b>	<b>Erreferentziak</b>
TRizol erreaktiboa	#15596026, ThermoFisher Scientific
Kloroformoa CHCl <sub>3</sub>	#CL01981000, Scharlau
Biologia Molekularrerako Isopropanola	#A3928, PanReac AppliChem
Analisirako etanol absolutua	#121086, Panreac AppliChem
DEPCrekin trataturiko ur ultrapurua	#750023, ThermoFisher Scientific
iScript cDNA sintetizatzekeo Kita	#1708891, BioRad
iTaq Universal SYBR Green Supermix	#1725121, BioRad
<b>Material suntsikorra</b>	<b>Erreferentziak</b>
96 putzuko polipropileno mikroplakak	#PCR-96M2-HS-C, Axygen
Microseal B, PCR plakak zigilatzekeo filma	#MSB-1001, BioRad
<b>Gailuak</b>	<b>Etxe komertziala</b>
Bortize nahasgailua	2x <sup>3</sup> , VELP scientifica
Heraeus Fresco 21 Zentrifuga	ThermoFisher Scientific
Nanodrop ND1000 espektofotometroa	ThermoFisher Scientific
MyCycler termozikladorea	BioRad
CFX96 Realt Time PCR detekzio sistema	BioRad

### 3.2.1 GENEEN ESPRESIOAREN KUANTIFIKAZIO ERLATIBOA

#### **RNA erauzketa**

Kultibo zeluletatik eratorritako RNA totalaren erauzketa TRizol erreaktiboaren bitartez burutu zen. Zelulak, fosfato eta gatzeko tanpoi (PBS) hotzarekin birritan garbitu ondoren, TRizol erreaktiboaren mililitro (ml) batean homogeneizatu ziren, giro tenperaturan (RT) 10 minutuz inkubatuz. Jarraiki,

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

homogeneizatua 1,5 ml-ko edukiera duten eppendorfetan jaso eta 200 mikrolitro ( $\mu\text{l}$ ) kloroformo gehitu zitzaizkion. Bortize bidez nahastu ondoren, 10 minutuz inkubatu zen RTn. Ondoren, aurretik  $4^{\circ}\text{C}$ -tara girotutako zentrifugan, 12000 g-tara (indar zentrifugo erlatiboa) zentrifugatu zen 10 minutuz, homogeneizatua goiko fase urtsu garden, interfase eta behealdeko fase arrosan banatuz. RNA-dun fase urtsua 1,5 ml-ko eppendorf berri batera transferitu eta 500  $\mu\text{l}$  isopropanolekin nahastu zen. 10 min-z RTn inkubatu ostean, RNA 12000 g-tara 10 minutuz zentrifugatu zen prezipitatu zen. Gainjalkina deuseztatu eta RNA pelleta birritan garbitu zen, %75eko purutasuneko etanolarekin eta 7600 g-ko zentrifugazio bitartez. Etanola deuseztatu, RNA garbia lehortzen utzi eta nukleasarik gabeko uretan disolbatu zen. RNAren kontzentrazioa eta kalitatea Nanodrop espektrofotometroaren bidez neurtu ziren.

#### Alderantzizko transkripzioa

Erauzitako RNA-tik gene adierazpena aztertu ahal izateko cDNA sintetizatzeke BioRad merkataritza etxeko iScript cDNA sintetizatzeke Kita erabili zen. Honek mikrogramo ( $\mu\text{gr}$ ) bat RNA erretrotranskribatzeko gaitasuna dauka 20 mikrolitroko bolumenean. 3.6. Taulak erreakzioa burutzeko mixaren osagaiak jasotzen ditu.

3.6. Taula. Alderantzizko transkripzioa burutzeko erabilitako erreaktiboak eta hauen bolumena.

Erreaktiboa	Erreaktiboaren bolumena $\mu\text{l}$ -tan
5x iScript erreakzio mixa	4
iScript alderantzizko transkriptasa	1
RNA	1 $\mu\text{g}$ -raino iristeko behar adina
Nukleasarik gabeko ura	15 - RNA $\mu\text{l}$ -ak
<b>Bolumen totala</b>	<b>20</b>

Erreakzioa, MyCycler termoziklagailuan burutu zen, etxe komertzialak gomendaturiko protokoloa jarraituz (3.1. Irudia). Amaieran, cDNAren kontzentrazioa 50 ng/ $\mu\text{l}$ -takoa zen.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

		95°C	
		1'	
25°C	46°C		
5'	20'		
			4°C
			∞

#### 3.1. Irudia. Alderantziko transkripzioaren protokoloa temperatura zikloen irudikapena.

#### ***Real Time Polymerase Chain Reaction (qPCR)***

Intereseko geneen adierazpena modu semi-kuantitaboa analizatu zen *Real Time Polymerase Chain Reaction* bidez, detekzioarako iTaq Universal SYBR Green Supermix zunda fluoreszentea erabiliz.

#### *Hasleak*

Gene ezberdinen detekzioarako jatorri ezberdineko hasleak erabili ziren. Batetik, Harvardeko Unibertsitateak, Massachusettsko Ospitale Orokorrek (MGH) eta Biologia Konputazional eta Integratiborako Zentroak (CCIB) elkarlanean garaturiko PrimerBank hasle basea kontrastatutako primer iturri gisa erabili zen (350). Bestetik, Primer3 softwarea erabili zen hasle ezberdinen diseinurako (351). Kasu bietan, hautaturiko hasleen sekuentziaren ezaugarriak *Integrated DNA technologies (IDT)* etxearen *OligoAnalyzer Tool*, softwarearekin analizatu ziren, hauen egokitasuna baieztatuz 3.7. Taulak hasleen sekuentziak jasotzen ditu. Gainera, hasleen efizientzia eta espezifikotasuna hurrenez hurren kurba patroiak eta disoziazio kurbak erabiliz analizatu ziren. FAP $\alpha$ -ren espresioaren azterketarako hasle komertzialak erabili ziren (QT00074963, Qiagen).

Hasleak jasotzean (liofilizatuta), spin bitartez zentrifugatu eta 100  $\mu$ M-eko kontzentziora doitzeko nukleasarik gabeko haina uretan disolbatu ziren. Hauetatik abiatuz, lanerako diluzioak prestatu ziren, gene bakoitzaren *Forward* eta *Reverse* stock disoluzioetatik hamarna mikrolitro 180  $\mu$ l nukleasarik gabeko urarekin nahastuz. Stock nahiz lanerako diluzioak hozkailuan mantendu ziren -20°C-tan.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.7. Taula. Gene espresioaren analisisirako erabilitako hasleen sekuentziak.

Genea	Sekuentzia 5'--> 3'
E-cadherina	(f) CGAGAGCTACACGTTACGG (r) GGGTGTGAGGGAAAAATAGG
N-cadherina	(f)AGCCAACCTTAACTGAGGAGT (r) GGCAAGTTGATTGGAGGGATG
$\alpha$ SMA	(f) CTATGAGGGCTATGCCTTGCC (r) GCTCAGCAGTAGTAACGAAGGA
Vimentina	(f) AGTCCACTGAGTACCGGAGAC (r) CATTTCACGCATCTGGCGTTC
Snail	(f) TCGGAAGCCTAACTACAGCGA (r) AGATGAGCATTGGCAGCGAG
Slug	(f) CGAACTGGACACACATACAGTG (r) CTGAGGATCTCTGGTTGTGGT
VEGF	(f) GCAGAAGGAGGAGGGCAGAATG (r) GGGCACACAGGATGGCTTGAAG
HIF1 $\alpha$	(f) ATCCATGTGACCATGAGGAAATG (r) TCGGCTAGTTAGGGTACACTTC
HIF2 $\alpha$	(f) GGACTIONACAGGTGGAGCTA (r) TCTCACGAATCTCCTCATGGT
TGF $\beta$ 1	(f) CTAATGGTGGAAACCCACAACG (r) TATCGCCAGGAATTGTTGCTG
MMP2	(f) AGCTCCCGGAAAAGATTGATG (r) CAGGGTGCTGGCTGAGTAGAT
MMP9	(f) CCTGGAGACCTGAGAACCAATC (r) GATTCGACTCTCCACGCATCT
GAPDH	(f) ACCCACTCCTCCACCTTTGA (r) CTGTTGCTGTAGCCAAATTCGT
$\beta$ -actina	(f) GGCACCCAGCACAAATGAAG (r) CCGATCCACACGGAGTACTTG
hTBP	(f) GGATAAGAGAGCCACGAACCAC (r) TTAGCTGGAAAACCCAATTCTG

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### *Erreakzio mixaren prestaketa*


Erreakzio bakoitzaren 3 erreplika burutu ziren, 20 ng cDNAtik abiatuta eta 10 µl-ko bolumen finalean. 3.8. Taulak mixaren osagaiak eta bakoitzaren proportzioa jasotzen ditu.

**3.8. Taula. qPCR erreakzioa burutzeko erabiliko erreaktiboen zerrenda eta bakoitzaren bolumena.**

ERREAKZIO MIXaren osagaia	Bolumena (µl)
iTaq Universal SYBR Green Supermix 2x	5
F&R hasleen lanerako diluzioa	0,17
Nukleasarik gabeko H <sub>2</sub> O	0,83
cDNA (5ng/ µl)	4
<b>Bolumen totala</b>	<b>10</b>

#### *Protokoloa*

qPCR BioRad etxe komertzialeko CFX96 Real Time PCR detekzio sistemarekin gauzatu zen, hasleen ezaugarrietara egokituriko protokoloarekin (3.2. Irudia).



**3.2. Irudia. qPCRren protokoloaren tenperatura zikloen irudikapena.** Azken bi pausoek disoziazio kurba irudikatzen dute.

#### *Emaitzen analisia*

3 erreplikaren batez bestekoa erabili zen emaitzen analisirako. Desbiderapen estandarra 0,2 unitate baino txikiagoa zen kasuetan soilik eman zen ontzat. Gene adierazpenaren kuantifikazio erlatiboa  $2^{-\Delta\Delta Ct}$  metodoaren bitartez burutu zen (352).



### 3.3 PROTEINEN AZTERKETARAKO TEKNIKAK

#### 3.3.1 PROTEINEN ESPRESIOAREN ANALISIA IHC-P BIDEZ

3.9. Taula. Proteinen immunohistokimika bidezko detekzioan erabilitako, erreaktibo, material suntsikor eta gailuen zerrenda.


<b>Erreaktiboa</b>	<b>Erreferentzia</b>
Etanola	#121086, Panreac
Xilenoa	#1.0861.1000, Merck
Envision FLEX + bisualizazio sistema	#K8002, Dako Agilent
<ul style="list-style-type: none"> <li>• pH altuko soluzio antigeno berreskuratzailea</li> <li>• pH altuko soluzio antigeno berreskuratzailea</li> <li>• Erreaktibo peroxidasa blokeatzailea</li> <li>• Antigorputz diluitzailea</li> <li>• FLEX+ Untxitik eratorritako antigorputz sekundarioa</li> <li>• FLEX+ Sagutik eratorritako antigorputz sekundarioa</li> <li>• FLEX/HRP ahuntzetik eratorritako untxi eta saguaren aurkako antigorputza</li> <li>• FLEX DAB+ kromogenoa</li> <li>• FLEX hematoxilina</li> <li>• FLEX garbiketa tanpoia</li> </ul>	#K8004 #K8005 #SM801 #K8006 #K8009 #K8021 #SM802 #DM827 #K8008 #DM831
DPX histologiarako muntaia medioa	#44581, Sigma-Aldrich
<b>Material suntsikorra</b>	<b>Erreferentzia</b>
Mikroskopiorako FLEX portak	#K8020
Beirazko estalkiak	C7931, Sigma-Aldrich
<b>Gailua</b>	<b>Etxe komertziala</b>
Hotcold S Inkubagailu lehorra	Selecta
Mikrotomoa	Shandon Finesse
Varistain Gemini ES porta tindatzaile automatikoa	ThermoFisher Scientific
Manual Tissue Arrayer	MTA-1, Beecher
PT Link tindaketa aurretiko modulua	Dako Agilent
AutoStainer Link 48	Dako Agilent
Nikon Eclipse 80i mikroskopioa	Nikon Instruments

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### Ehun mikroarrayen (TMA) eraikuntza

Ehun mikro arrayek lagin kopuru handien analisia simultaneoki eta kostuen murrizketa nabarmenarekin burutzea ahalbideratzen dute eta ondorioz, tresna eraginkorrak dira ikerketa patologikoan. Tesi proiektu honetan aztergai diren proteinen adierazpena parafinaz beteriko laginetan burutu da, horretarako ehun mikroarrayak eraiki direlarik. 3.3 Irudiak mikroarrayen eraikuntzaren fase ezberdinak jasotzen ditu.

Lehenik eta behin, mikrotomo bidez, lagin bakoitzaren 5 mikrometroko ( $\mu\text{m}$ ) zabalerako ebaketak burutu ziren, hauek portatan jaso eta 16 orduz 37°C-tan lehortu zirelarik. Jarraiki, Thermo Fisher etxe komertzialeko Varistain Gemini ES tindatzaile automatikoarekin hematoxilina-eosina tindaketak burutu ziren. Prestakin hauetan, patologoak tumore bakoitzaren erakusgarri den lagina hautatu zuen.



**3.3 Irudia. Ehun mikroarrayen (TMA) eraikuntzaren infografia parafinaz beteriko ehunetatik abiatu eta tindaketa fasera iritsi arte.**

Patologoak tumore bakoitzean hautaturiko lagin erakusgarriak parafinazko bloke garbi batean elkartuz eraiki ziren ehun mikroarrayak. Horretarako Beecher Instruments etxearen Manual Tissue Arrayer (MTA-1) erabili zen. Hala, 1,5 mm diametroko puntzoiekin lagina jaso eta bloke hartzailera transferitu zen. Tumore

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

bakoitzeko 2 lagin transferitu ziren, eta bloke bakoitzean 42 tumore ezberdinez gain, giltzurruneko ehun osasuntsua eta tindaketetarako kontrol ehunak ere gehitu ziren. Behin mikroarraya osatuta, 37°C-tan 30 minutuz berotu eta porta baten laguntzaz zigilatu zen. Hauetatik, 5 mikrometroko ebaketak burutu ziren tindaketak egiteko.

#### **Immunohistokimika (IHC-P)**

Intereseko proteinaren espresioa automatizaturiko immunohistokimika bidez aztertu zen eta horretarako DAKO Agilent *Pathology Solutions* etxearen AutoStainer Link 48 tindatzailea erabili zen.

Aplikaturiko protokolo estandarra antigorputz bakoitzaren ezaugarri espezifikotara egokitu zen. Honela, TMA ezberdinetatik eratorritako ebaketak, 65°C-tara berotu ziren ordubetez, parafina soberakina ezabatzeko. Hurrena, DAKO Agilent *Pathology Solutions*en PT Link tindaketa-aurretiko moduluan, ehun laginen desparafinazioa, rehidratazioa eta antigeno berreskurapena gauzatu ziren, helburu hori pauso bakarrean egin ahal izateko optimizaturiko tanpoien bitartez. Modulu honetan laginak pH azido (pH = 6) edo basikoko (pH = 9) tanpoietan (antigorputz ezberdinek ezagaturiko epitopoaren arabera) murgildu eta 95°C-ko 20 minutuko zikloa aplikatu zitzairen. Jarraiki, portak PT Link modulutik atera eta garbiketa tanpoian mantendu ziren giro tenperatura berreskuratu bitartean.

Tindaketa prozesua modu erabat automatikoan burutu zen AutoStainer Link 48an. Lehenik eta behin peroxidasa entzimak blokeatu ziren H<sub>2</sub>O<sub>2</sub>rekin 5 min-z inkubatuz, emaitzan interferentziak ekiditeko. Jarraiki, TMA bakoitzaren ebaketak antigorputz primario ezberdinekin inkubatu ziren, 3.10. Taulan jasotzen diren baldintzetan. Hau deuseztatu ostean, antigorputz primarioaren jatorri espeziaren arabeko antigorputz sekundarioarekin inkubatu zen 30 minutuz, beharrezkoa zen kasuetan. Ondoren, porta guztiak HRP entzimadun antigorputzekin inkubatu ziren 20 minutuz eta gero, honen substratu DAB gehitu zitzairen. Entzimaren eraginez, DABk prezipitatu marroi bat sortzen du. Amaitzeko portak hemotaxilinarekin

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

inkubatu ziren, zeinak nukleoaren tindaketa urdinaren bitartez zelulen egiturak ikustea errazten duen. Kontrol negatiborako, antigorputz primarioa beharrean, antigorputz diluitzaile hutsez inkubatu ziren portak.

Behin tindaketa amaituta, portak hurrenez-hurren etanol kontzentrazio gorakorreko soluzioetan (%50/%70/%100) 5 minutuz inkubatuz deshidratatu eta xilenotan inkubatuz finkatu ziren. Amaitzeko DPX muntaia medioa gehitu eta estalkia kokatuz, mikroskopia bidezko analisirako prestatu ziren.

**3.10. Taula. Immunohistokimika bidez aztertutako proteinen detekzioarako erabilitako antigorputzak eta hauen protokolo optimizatuaren ezaugarriak. (\*)AR Antigen Retrieval edo berreskurapena.**

Antigorputza	Jatorrizko espeziea	AR*	Diluzioa	Inkubazio denbora	Ab 2 <sup>º</sup> a
<b>Anti CD10 (SPM118) sc-52994</b>	Sagua (monoklonala)	pH=9	1:100	20'	Ez
<b>Anti ACE2 (AC18Z) sc-73669</b>	Sagua (monoklonala)	pH=6	1:50	30'	Bai
<b>Anti Aminopeptidase A ab109775</b>	Untxia (poliklonala)	pH=6	1:250	50'	Ez
<b>Anti ACE ab11734 (2E2)</b>	Sagua (monoklonala)	pH=6	1:20	30'	Bai
<b>Anti FAP<math>\alpha</math> ab53066</b>	Untxia (poliklonala)	pH=9	1:70	50'	Ez
<b>Anti Vimentin (Vim3B4) #760-2512</b>	Sagua (monoklonala)	pH=9	RTU	20'	Ez
<b>Anti E-cadherin (36) #760-4497</b>	Sagua (monoklonala)	pH=9	RTU	20'	Ez
<b>Anti N-cadherin (D4R1H) #13116S</b>	Untxia (monoklonala)	pH=6	1:100	20'	Ez
<b>Anti Beta-catenin (14) #760-4242</b>	Sagua (monoklonala)	pH=9	RTU	20'	Ez
<b>Anti WT1 (6F-H2) #</b>	Sagua (monoklonala)	pH=9	RTU	20'	Ez

#### Immunohistokimika bidezko tindaketaren analisia

Inmunohistokimika bidez burututako tindaketaren analisia kualitatiboa izan zen. Hau da, RCCko tumoretan aztertutako peptidasen presentzia edo ausentzia ikertu zen modu absolutuan.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.3.2 ANGIOTENTSINA PEPTIDO BIHURTZAILEEN AKTIBITATEAREN NEURKETA

3.11. Taula. Angiotentsinen peptido bihurtzaileen aktibitatearen neurketarako erabilitako erreaktibo, material suntsikor, tanpoi eta gailuen taula.

Erreaktiboa	Erreferentzia
Fosfatozko gatzak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <math>\text{NaH}_2\text{PO}_4 \cdot \text{H}_2\text{O}</math></li> <li>• <math>\text{Na}_2\text{HPO}_4</math></li> </ul>	#106346, Merck Millipore S8076, Sigma-Aldrich
Trizma-base	T1503, Sigma-Aldrich
Behitik eratorritako serumeko albumina (BSA)	A7906, Sigma-Aldrich
H-Glu- $\beta$ -naphtylamina APA substratua	K1265, Bachem
$\beta$ -naphtylamina	N8381, Sigma Aldrich
N-Dansyl-D-Ala-Gly- <i>p</i> -nitro-Phe-Gly NEP substratua	D2155, Sigma-Aldrich
Dansyl Chloride fluoroforoa	D39220, Sigma-Aldrich
Abz-Gly-Pro- <i>p</i> Nitro-Phe-Pro-OH ACE substratua	M-1100, Bachem
Abz-Ser-Pro-3-Nitro-Tyr-OH ACE2 substratua	M-2660, Bachem
Abz-Gly-OH-HCl fluoroforoa	E-2920 ,Bachem
DL-Thiorphan	T-6031, Sigma-Aldrich
1-10 Phenanthroline	131377, Sigma-Aldrich
Captopril	C4042, Sigma-Aldrich
DX600	AS-62337, AnaSpec
Material suntsikorra	Erreferentzia
96 putzuko fluoreszentziarako plaka beltzak	#3915, Corning
Tanpoiak	Osagaiak
Fosfatozko tanpoia	$\text{NaH}_2\text{PO}_4 \cdot \text{H}_2\text{O}$ 0,1M, $\text{Na}_2\text{HPO}_4$ 0,1M, BSA 1mgr/ml
Tris-tanpoia	Tris 0,1M, BSA 1 mgr/ml
Gailua	Etxe komertziala
FluoStar OPTIMA microplate Reader	BMG Labtech

### 3. **Materialak eta metodoak.** Materiales y métodos

Aktibitatearen neurketa entzimek substratu espezifikoak hidrolizatzean askatzen dituzten molekula fluoreszenteen detekzioan oinarritzen da. Entseguak, plasma lagina substratuaren kontzentrazio aseko disoluzioetan inkubatuz egiten dira entzimen aktibitate maximoa bermatzeko. Produktu fluoroforoaren kontzentrazio gorakorrekin eginiko zuzenek, fluoreszentzia erlatiboaren datuak sorturiko produktuaren pikomolekulara eraldatzea ahalbideratzen dute. Honela, aktibitatearen emaitzak, peptidasa unitateak (UP)/plasma litroko unitatean aurkezten dira, non peptidasa unitate bat, minutuko produktuaren pikomol bat sortzeko behar den entzima kantitatea den. Erreakzio bakoitza hirutan errepikatu zen P96ko plaketan detekziorako FluoStar OPTIMA *microplate Reader* espektrofluorimetroa erabiliz.

#### **NEP/CD10 aktibitatea**

Endopeptidasa neutroaren (NEP/CD10) aktibitatea Florentin eta lankideek diseinaturiko metodoa baliatuz neurtu zen (353). Hala, serum laginaren 30  $\mu\text{l}$  N-dansyl-D-Ala-Gly-pNO<sub>2</sub>-PheGly (DAGNPG, dansyl-aren deribatu bat, Sigma-Aldrich) substratuaren 1 mM Tris tanpoiarekin inkubatu ziren, 100  $\mu\text{l}$ -ko bolumen totalen, 37°C-tan eta 30 min-z. NEP/CD10 aktibitatearen eraginez sorturiko [D]AGk emitituriko fluoreszentzia, 340 nm-ko uhin luzeran kitzikatu eta 560 nm-tan jaso zen. Emaitzak, [D]AGren 0.625–150  $\mu\text{M}$ -eko kontzentrazioen arteko zuzenarekin bihurtu ziren. Erreakzioaren espezifikotasuna inhibizio entsegu bidez baieztatu zen thyorphan konposatuaren 10  $\mu\text{M}$ -eko kontzentrazioan %93ko inhibizio-tasa lortuz.

#### **APA aktibitatea**

Amino-peptidasa A-ren aktibitatea neurtzeko Tobe eta lankideek deskribaturiko metodoaren egokitzapena erabili zen (354). Entsegu fluorometrikoa 10  $\mu\text{l}$  serum Glu- $\beta$ -naphthilamida, APAren substratu espezifikoaren 0,227 mM-eko fosfatozko disoluzioan 30 min-z inkubatuz egin zen, 37°C-tan eta 200  $\mu\text{l}$ -ko bolumenean.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

Askaturiko  $\beta$ -naphthilaminaren seinalea 410 nm-ko uhin luzeran jaso zen 340 nm-tan kitzikatu ostean. Fenantrolinarekin garaturiko inhibizio entseguek %87ko espezifikotasuna erakutsi zuten, inhibitzailearen 1,2 mM-eko kontzentrazioan. Emaizten estrapolaziorako  $\beta$ -naphthilaminaren 1,5 eta 500  $\mu$ M arteko zuzena erabili zen.

#### **ACE eta ACE2 aktibitateak**

ACE zein ACE2ren aktibitate entzimatiakoaren neurketa bakoitzaren aktibitatearen ondorioz sorturiko Abz-Gly-OH fluoroforoaren seinalea neurtuz burutu zen. Horretarako, Tris tanpoian disolbatutako Abz-Gly-Phe(NO<sub>2</sub>)-Pro eta Abz-Ser-Pro-NTyr-OH substrato espezifikoak erabili ziren hurrenez hurren.

ACEren kasuan, *Nature Protocols*en Sentandreu eta Toldrák deskribaturiko metodoa aplikatu zen (355). Hala, 50  $\mu$ l plasmari 250  $\mu$ l substratu disoluzio gehitu zitzaizkion, honen amaierako kontzentrazioa 0,45 mM-ekoa zelarik. 30 minutuz 37°C-tan inkubatu ostean, produktuaren fluoreszentzia 410 nm-tan neurtu zen, 310 nm-ko uhin luzeran kitzikatu ondoren. Captopril 10  $\mu$ M-eko kontzentrazioan eginiko inhibizio entseguek, espezifikotasuna baieztatu zuten.

ACE2rentzat aldiz, Yan ZH eta lankideek 2003. urtean proposaturiko metodoa egokitu zen (356). Kasu honetan 30  $\mu$ l plasmari 0,5 mM-eko substratu disoluzioa gehitu zitzaion 100  $\mu$ l-raino, 37°C-tan 2 orduz inkubatuz. Askaturiko fluoroforoa ACEren erreakzioan askaturiko bera izanik, baldintza berdinetan neurtu zen. Espezifikotasuna, DX600 inhibitzailearen 1  $\mu$ M-ekin berretsi zen. ACE zein ACE2ren kasuan, fluoreszentzia unitate erlatiboetatik produktu kontzentrazioarako konbertsioa, produktuaren 2,5 eta 300  $\mu$ M arteko kurbarekin burutu zen.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.3.3 PROTEINA ADIERAZPENAREN SEMI-KUANTIFIKAZIOA WESTERN BLOT TEKNIKAREN BITARTEZ

3.12. Taula. Proteinen Western Blot bidezko detekziorako erabilitako erreaktibo, tanpoi, material suntsikor eta gailuen zerrenda.

Erreaktiboak	Erreferentzia
RIPA tanpoia	R0278, Sigma-Aldrich
cOmplete, Mini, EDTA-free Protease Inhibitor Cocktail	04693159001, Roche
PhosSTOP	04906845001, Roche
Pierce BCA Protein Assay Kit	#23225, Thermo Scientific
Precision Plus Protein Dual Color Standards	#1610374, BioRad
30% Acrylamide/Bis Solution 29:1	#1610156, BioRad
N,N,N',N'-Tetramethylethylenediamine TEMED	T9281, Sigma-Aldrich
Amonio persulfatoa PSA	A3678, Sigma-Aldrich
Behitik eratorritako serumeko albumina (BSA)	A7906, Sigma-Aldrich
Trizma Base	T1503, Sigma-Aldrich
SDS	#142363.1209 PanReac, Applichem
Bromofenol urdinaren sodio gatza	B5525, Sigma-Aldrich
Glizina	G8898, Sigma-Aldrich
Glizerola	G7757, Sigma-Aldrich
MetOH	#141091.1214 PanReac, Applichem
NaCl	#31414, Sigma-Aldrich
Tritón X-100	X100, Sigma-Aldrich
Luminola	A8511, Sigma-Aldrich
Azido p-kumarikoa	C9008, Sigma-Aldrich
H <sub>2</sub> O <sub>2</sub>	H1009, Sigma-Aldrich



### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

<b>Tanpoiak</b>	<b>Osagaiak</b>
Tris 1M pH=8,8	121,4 gr/l H <sub>2</sub> O pH doiketarekin
Tris 0,5M pH=6,8	60,7 gr/l H <sub>2</sub> O pH doiketarekin
SDS %10 p/b	10 gr/100 ml H <sub>2</sub> O
Amonio Persulfatoa (PSA) %10 p/b	10 gr/100 ml H <sub>2</sub> O
Lagin tanpoia 5x	SDS %10 p/b, Tris pH 6,8 %25 b/b, bromofenol urdina %0,025 p/b, glizerola %50 b/b, DTT %5 p/b
Elektroforesi tanpoia 1X	Tris 25mM, SDS %0,1, Glizina 0,2M
Transferentzia tanpoia 1X	Tris 25mM, SDS %0,025, Glizina 0,192M, MetOH %20 b/b
BSA %5 blokeo tanpoia	5 gr BSA/100 ml blotto
Blotto garbiketarako tanpoia	Tris 20mM, NaCl 150mM, Triton X-100 %0,1
Kimiolumineszentzia areagotzeko substratu tanpoia (ECL)	Luminol 1,25mM, azido p-kumarikoa 0,2mM, Tris 0,1M
<b>Material suntsikorra</b>	<b>Erreferentzia</b>
Amersham Hybond P 0,2 µm PVDF	#10600021, GE Healthcare Life Sciences
Whatman papera	FT-2-527-460570N, Sartorius
<b>Gailua</b>	<b>Etxe Komertziala</b>
Heraeus Fresco 21 Zentrifuga	ThermoFisher Scientific
Micra D-1 homogeneizagailua	Micra
Heidolph GIRALT homogeneizagailua	Heidolph
Power Pac HC Power Supply	#1645052, BioRad
Mini-PROTEAN Tetra Vertical Electrophoresis Cell	BioRad
Criterion Blotter	BioRad
Chemidoc XRS+	BioRad

Kultibo zelularretatik nahiz ehun freskotik erauzitako homogeneizatueta proteinen espezifikoen adierazpena neurtzeko Western Blot teknika erabili zen. Hau, antigorputz espezifikoen erabileran oinarritzen da.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### **Proteinen erauzketa**

Erauzketa prozesua proteinen jatorriaren araberakoa da. Kultibo zelularren kasuan, P6 plaketan hazitako zelulak izotzetan kokatu eta PBS tanpoi hotzarekin garbitu ziren, birritan. Jarraiki proteasa eta fosfatasa inhibitzailearekin osaturiko RIPA tanpoiaren 100  $\mu$ l gehitu zitzaizkion. 10 minutuko inkubazioaren ostean, homogeneizatua 1,5 ml-ko eppendorf batera jaso zen, espatula baten laguntzaz. 15 min-z 21000 g-tara zentrifugatu ostean, gainjalkina eppendorf berri batean jaso zen.

Ehun freskoan aldiz honen 50 mg pisatu eta bisturi batekin zatikatu ostean, aipaturiko RIPA eta inhibitzaileez osaturiko tanpoiaren 500  $\mu$ l-tan jaso ziren. Hau, ultraturraxean (Micra D-1) 10000 rpm-tara 10 segunduz eta ondoren potter homogeneizagailuan 800 rpm-tara homogeneizatu zen. Behin homogeneizazioa gauzaturik, 45 min-z inkubatu zen 4°C-tara, proteinen erauzketa bermatzeko. Jarraiki homogeneizatua 1,5 ml-ko eppendorfera transferitu eta 14000 g-tara zentrifugatu zen, 4°C-tara eta 30 minutuz. Gainjalkina jaso, alikuotatu eta -20°C-tan gorde zen.

#### **Proteinen kontzentrazioaren neurketa**

Erauzitako proteina homogeneizatuen kontzentrazioa neurtzeko Smithek 1985ean deskribaturiko azido bizinkoninikoaren (BCA) metodoa erabili zen (357). Hau, peptido loturek soluzioko  $\text{Cu}^{2+}$  ioiak erreduzitzeko duten gaitasunean oinarritzen da, zein  $\text{Cu}^+$  bihurtzean, azido bizinkoninikoaren bi molekularekin lotzen den more koloreko konposatua sortuz. Konposatu honek 562 nm-ko uhin luzeran daukan absorbantziak, proteinen kontzentrazioa neurtzea ahalbideratzen du, proteina kontzentrazio ezaguneko soluzioekin eraikitako zuzenaren bitartez.

Erreakzioa, P96 plaketan burutu zen. Hala, laginaren 12,5  $\mu$ l azido bizinkoniniko/ $\text{CuSO}_4$  50:1 disoluzioaren 100  $\mu$ l-rekin inkubatu ziren 37°C-tan 30 minutuz. Lagin bakoitzarentzat 3 aldiz errepikatu zen erreakzioa. Aldi berean, 0,2 eta 1  $\mu$ g/ $\mu$ l arteko behitik eratorritako seroalbumina (BSA) zuzena ere eraiki zen. Absorbantzia neurtzeko, FluoStar OPTIMA mikroplaka irakurgailua erabili zen. Absorbantzia balioetatik laginen kontzentrazioa kalkulatu zen  $\mu$ g/ $\mu$ l unitatetan.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### Western Blot

Proteina espezifikoen detekziorako metodo hau 80. hamarkadaren amaieran garatu zen Harry Towbinen laborategian, Friedrich Miescher institutuan eta pauso ezberdinez osaturiko prozesua da (358). Lagin bakoitzetik 15 µgr-ko alikuotak hartu, 1,5 µgr/µl-ko kontzentrazioa doitu eta lagin tanpoia 5x gehitu zitzairen. Hauek 100°C-tara 10 minutuz berotuz desnaturalizatu ziren. Jarraiki, pisu molekular ezaguneko estandarrekin batera, akrilamidazko geletan kargatu ziren. Ikergai ziren proteinak 30 eta 70 KDa artekoak izaki, %12 akrilamidadun gelak erabili ziren, hauen konposizioa azpiko taulan laburbiltzen delarik (3.13. Taula). Proteinen tamainaren arabera banaketa gelei 120 V-etako potentzial diferentzia aplikatuz gauzatu zen, BioRad etxeko Mini PROTEAN Tetra elektroforesirako gailuarekin. Energia iturri gisa etxe bereko PowerPac HC *Power Supply* erabili zen.

**3.13. Taula. Elektroforesi bidezko proteinen banaketarako erabilitako gelak egiteko erreaktiboak eta hauen proportzioak.**

Gel banatzailea		Gel kontzentratzailea	
<b>H<sub>2</sub>O</b>	1,67 ml	<b>H<sub>2</sub>O</b>	1,5 ml
<b>Tris 8,8M pH=8,8</b>	1,25 ml	<b>Tris 0,5M pH=6,8</b>	0,625 ml
<b>Bis Akrilamida</b>	2 ml	<b>Bis Akrilamida</b>	330 µl
<b>SDS %10</b>	50 µl	<b>SDS %10</b>	25 µl
<b>PSA %10</b>	25 µl	<b>PSA %10</b>	12,5 µl
<b>Temed</b>	5 µl	<b>Temed</b>	5 µl

Proteinak banatu ostean 0,22 µm-ko porodun PVDFzko mintzera transferitu ziren. Horretarako, transferentzia semi-lehorra deritzona erabili zen Mini Trans Blot Cell unitatea erabiliz. Proteinadun gela, PVDFzko mintzarekin kontaktuan jarri, whatman paperrarekin eta kuxinekin inguratu eta korrante bat aplikatzen zaio transferentziarako tanpoi batean murgilduz. Ondorioz, proteinak geletik mintzera lekualdatzen dira. 100V-eko korrantea ordubetez aplikatu zen, elektroforesirako erabilitako energia iturri beraren bitartez.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

Ordoren, antigorputzen lotura ez espezifikoak ekiditeko helburuarekin, PVDF mintza BSA %5eko disoluzioan blokeatu zen, giro tenperaturan ordubetez inkubatu. Jarraiki, mintza antigorputz primarioarekin inkubatu zen, 4°C-tan *overnight* inkubazio bidez. Erabilitako antigorputzen ezaugarriak eta baldintzak 3.14. Taulan laburbiltzen dira.

**3.14. Taula. Western Blot bidez aztertutako proteinen detekzioarako erabilitako antigorputzak eta erabilitako diluzioak.**

<b>Antigorputza</b>	<b>Etxe komertziala</b>	<b>Jatorrizko espeziea</b>	<b>Diluzioa</b>
<b>Anti AT1 (N10) sc-1173</b>	Santa Cruz	Untxia (poliklonala)	1:500
<b>Anti AGTR2 antibody ab78747</b>	Abcam	Untxia (poliklonala)	1:1000 (1µg/ml)
<b>Anti-Angiotensin-(1-7) Mas Receptor AAR-013</b>	Alomone Labs	Untxia (poliklonala)	1:500
<b>Anti FAPα ab53066</b>	Abcam	Untxia (poliklonala)	1:500
<b>Monoclonal Anti-β-Actin-Peroxidase AC-15 A3854</b>	Sigma-Aldrich	Sagua (monoklonala)	1:25000
<b>Anti-α-Tubulin antibody T8203</b>	Sigma-Aldrich	Sagua (monoklonala)	1:3000
<b>Anti-rabbit IgG-HRP antigorputz sekundarioa sc-2004</b>	Santa Cruz	Ahuntza	1:2000
<b>Anti-mouse IgG-HRP antigorputz sekundarioa sc-2005</b>	Santa Cruz	Ahuntza	1:2000

Antigorputz primarioaren inkubazio ostean, mintzak blotto tanpoiarekin garbitu ziren, elkarren segidako 5 minutuko 3 inkubazioen bitartez. Hurrena, mintzak, antigorputz primario bakoitzari jatorrizko espeziearen arabera dagokion antigorputz sekundarioarekin inkubatu ziren (1:2000), giro tenperaturan ordubetez. Elkarren segidako beste 3 garbiketaren ostean, kimiolumineszentzia bidez errebelatu zen. Horretarako, ECL substratua erabili zen, zeinak antigorputz sekundarioei atxikitako HRP entzimarekin erreakzionatzean, argia emititzen duen. Honen detekzioarako BioRad etxeko Chemidoc XRS+ sistema erabili zen eta *Quantity One* softwarea. Emaitzen kuantifikazio erlatiborako aldiz ImageJ softwarea.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.3.4 IMMUNOFLUORESZENTZIA (IF)

**3.15. Taula. Immunofloreszentzia bidez proteinak detektatzeko erreaktibo, tanpoi, material suntsikor eta gailuen zerrenda.**

<b>Erreaktiboak</b>	<b>Erreferentzia</b>
PBS 10x	BE17-517Q, Lonza
Formaldehidoa %38	#141328, Panreac AppliChem
Tritón X-100	X100, Sigma-Aldrich
Behi fetuetatik eratorritako serum	S0415, Biochrom GmbH
DPX histologiarako muntaia medioa	#44581, Sigma-Aldrich
Hoechst 33258	#861405, Sigma-Aldrich
Fluoromount G	#00-4958-02, Life Technologies
<b>Material suntsikorra</b>	<b>Erreferentzia</b>
Estalki zirkularrak	#12893804, ThermoFisher Scientific
<b>Gailua</b>	<b>Etxe komertziala</b>
Apotome 2 mikroskopioa	Zeiss

Kultibo zeluletatik abiatutako immunofluoreszentzia garatzeko, zelulak etanolez garbitutako estalkietan erein ziren, P24ko plaketan. Behin zelulen entsegua amaituta, zelulak birritan fosfatozko tanpoiarekin garbitu eta %4 paraformaldehido kontzentrazioko soluzioarekin 10 minutuz inkubatuz finkatu ziren. Jarraiki, PBSrekin garbitu ziren, elkarren jarraikako 5 minutuko 3 inkubazioarekin. Ondoren, zelulak %0,1 Triton X-100 detergentedun soluzioarekin inkubatuz iragazkor bihurtarazi ziren. 3 garbiketa ziklo egin ostean, zelulak blokeatzeko %5 behi fetuen serumeko (FBS) soluzioarekin inkubatu ziren, 30 minutuz giro tenperaturan. Hurrena antigorputz primarioarekin inkubatu zen, zein %3 FBS soluzioan prestatu zen espezifikotasuna areagotzeko, gau guztian zehar eta 4°C-tan. Antigorputzen ezaugarriak 3.16. Taulan zehazten dira.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

3.16. Taula. Immunofluoreszentzia bidez aztertutako proteinen detekzioarako erabilitako antigorputzak eta erabilitako diluzioak.

Antigorputza	Etxe komertziala	Jatorrizko espeziea	Diluzioa
<b>Anti FAP<math>\alpha</math> ab53066</b>	Abcam	Untxia (poliklonala)	1:500
<b>Alexa Fluor 488, A21206</b>	Life technologies	Ahuntza	1:1000

Antigorputz primarioa deuseztatu ostean, PBSarekin hirutan garbitu eta Alexa Fluor 488 fluoroforoarekin konjugaturiko antigorputz sekundarioarekin (1:1000) inkubatu zen, ordubetez, giro tenperaturan eta iluntasunean. Jarraian Hoechst 33258 10 lg/ml tindatzailea fluoreszentea gehitu zitzairen, zeinak DNArri lotuz nukleoak markatzen dituen. Amaitzeko, Fluoromount G muntairako medioa erabiliz, zelulak mikroskopia bidezko behaketarako prest utzi ziren. Kontrol negatiborako antigorputz primarioaren inkubazioa PBSzko inkubazioarekin ordezkatu zen.

Mikroskopia bidezko behaketa eta irudiak Euskal Herriko Unibertsitateko EHU/UPV Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako (SGIker) mikroskopia unitatean burutu ziren.

### 3.4 ZELULEN KULTIBORAKO TEKNIKAK

3.17. Taula. Zelulen kultibo teknikak garatu ahal izateko erabilitako errektibo, material suntsikor eta gailuen zerrenda.

<b>Erreaktiboa</b>	<b>Erreferentzia</b>
PBS 10x	BE17-517Q, Lonza
Trypsin-Versene (EDTA) Mixture 1x	BE17-161F, Lonza
Kultibo medioak	Lonza
Behi fetuetatik eratorritako serum (FBS)	S0415, Biochrom GmbH
Penizilina/estreptomizina antibiotikoa	P4333, Sigma-Aldrich
L-glutamina	G7513, Sigma-Aldrich
Aminoazido ez esentzialak (NEAA)	M7145, Sigma-Aldrich
Sodio pirubatoa	S8636, Sigma-Aldrich
Angiotentsina II peptidoa	A9525, Sigma-Aldrich
Angiotentsina 1-7 peptidoa	A9202, Sigma-Aldrich
Thiazolyl Blue Tetrazolium Bromide (MTT)	M5655, Sigma-Aldrich
DMSO	D8418, Sigma-Aldrich
<b>Material suntsikorra</b>	<b>Erreferentzia</b>
75 cm <sup>2</sup> -ko kultiborako plakak	#430641, Corning
6 putzuko zelulen kultiborako plakak	#3506, Corning
24 putzuko zelulen kultiborako plakak	#3524, Corning
96 putzuko zelulen kultiborako plakak	#3596, Corning
24mm-ko 0,4 µm-dun <i>insertak</i>	#3412, Corning
Kriotuboak	#368632, Nunc
<b>Gailua</b>	<b>Etxe komertziala</b>
Fluxu laminar bertikaleko Bio48 Kanpaia	F72700350, Faster
Zelulen hazkuntzarako CO <sub>2</sub> inkubagailua	MCO-15AC, Sanyo
Bainu termostatiko analogikoa	TBN-06/100, ICT SL
Errotore baskulanteke zentrifuga	Heraeus MegaFuge 40R, Thermo
Mikroskopia alderantzikatua	Eclipse TS100, Nikon
Mikroskopiaari atxikitako kamera	D07739, Jenoptik
MrFrosty zelulak izozteko ontzia	ThermoFisher Scientific
Nitrogeno likidorako tankea	GT-40, Air Liquide

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.4.1 LERRO ZELULARRAK

Ikerketa proiektu honen garapenean giltzurrun-zelulen kartzinomatik eratorritako zelula lerro komertzial ezberdinak erabili dira. Hauetaz gain, fibroblastoen lerro bat ere erabili zen. Aurrenekoak *Cell line service* (CLS) konpainian erosi ziren eta fibroblastoak aldiz Genovako *Banca Biologica e Cell Factory-IRCCS AOU San Martino-IST*en bitartez eskuratu genituen. Bakoitzaren ezaugarriak eta erabilitako kultibo medioak 3.18. Taulan laburbiltzen dira.

**3.18. Taula. In vitro entseguetarako erabilitako lerro zelularren zerrenda. Bakoitzaren jatorriaz eta hazkuntzarako beharrezko medioa ere batzen ditu.**

Lerro zelularra	Ezaugarriak	Kultibo medioa
RC124	RCCdun gaixo baten giltzurruneko ehun ez neopasikotik eratorritako zelula epitelialak.	McCoy's 5A #12-668F
786O	CCRCCdun 58 urteko gizonezko batetik eratorritako tumore-zelula epitelialak.	RPMI #BE12-702F
Caki-1	Azaleko metastasi batetik eratorritako CCRCCdun gaixo batetik eratorritako morfologia epitelialeko zelulak.	MEM #H3BE12-611F
A498	Giltzurrun-zelulen kartzinomadun 52 urteko emakume batetik eratorritako morfologia epitelialeko zelulak.	MEM #H3BE12-611F
GM06114	20 asteko giza fetu osasuntsu baten biriketatik eratorritako fibroblastoen lerro zelularra.	DMEM H3BE12-741F

Zelulak, %10 FBS, %1 Penizilina-estreptomizina antibiotiko eta %1 L-glutaminarekin osaturiko kultibo medioetan hazi ziren, 37°C-ko temperatura eta %5eko CO<sub>2</sub>dun atmosfera mantentzen dituen inkubagailuan. Gainera, Caki-1 eta A498 lerroen medioari aminoazido ez esentzialak eta sodio pirubatoa ere gehitu zitzaizkion. Baldintza esterilak mantentzeko, zelulen hazkuntzarako filtrodun poliestirenozko T75 plakak erabili ziren.

Zelulen mantentzea, konfluentzia %90era iristean 1/6 eta 1/8 arteko diluzioak aplikatuz burutu zen, horretarako zelulak tripsinarekin altxatu zirelarik. Esperimentuetarako 20 pase baino gutxiagoko zelulak erabili ziren.



### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.4.2 ZELULEN BIDERAGARRITASUN ENTSEGUAK

Konposatu ezberdinek zelulen bideragarritasunean duten eragina aztertzeko MTT entseguak erabili ziren. Entsegu hau, zelulen mitokondriek 3-(4,5-dimetiltiazol-2-yl)-2,5-difeniltetrazolio bromida edo MTT konposatua formazan gatz disolbaezinean bihurtzeko gaitasunean oinarritzen da. Sorturiko gatz kopuruak zelula bideragarrien kopurua islatzen du eta DMSOn disolbatu eta 570nm-ko uhin luzeran duten absorbantzia neurtuz kalkulatu da.

Entseguak 96 putzuko plaketan garatu ziren. Giltzurruneko minbiziko zelulak 3000 zel/putzuko dentsitatean erein ziren, 100 µl-ko bolumenean. Gau oso batez gainazalean atxikitzeke denbora eman ostean, zelulak Ang II eta Ang 1-7 peptidoen kontzentrazio gorakorrekin tratatu ziren, %1 FBSdun disoluzioetan. Kontzentrazio bakoitzeko 3 erreplika egin ziren. 72 orduz inkubatu ostean, putzu bakoitzean 15 µl MTT gatz gehitu ziren, honen amaierako kontzentrazioa 1,5 mgr/ml-koa zelarik. 4 orduz inkubatu ondoren, zelulen media deuseztatu eta sorturiko gatzak 100 µl DMSOtan disolbatu eta absorbantzia neurtu zen Fluostar OPTIMA espektrofluorimetroan.

Entsegu bakoitza hiru esperimentu independentetan burutu zen eta lan honetan erakusten diren emaitzak hiru horien batez-bestekotik kalkulatu dira.

#### 3.4.3 WOUND HEALING EDO ZAURI ENTSEGUAK

Konposatu ezberdinek zelulen migrazioan daukaten eragina aztertzeko *Wound Healing* edo *Scratch assay* deritzon teknika erabili zen. Zelulek gainazal konfluente baten eginiko zauria ixteko duten gaitasunaren neurketan oinarritzen da.

24 putzuko plaketan gauzatu ziren entseguak. A498 eta 7860 lerroak erabili ziren, putzu bakoitzean  $2 \cdot 10^5$  zelula erein zirelarik. Zelulei gainazalari atxikitzeke denbora eman zitzaion, *overnight* inkubazioz. Jarraiki, kultibo media deuseztatu eta zelulak PBSarekin garbitu ziren, birritan. Ondoren, FBSrik gabeko medio garbia gehitu

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

zitzaien. Hala mantendu ziren 24 orduz, zelulen sinkronizazioa ahalbideratuz. Ondoren, 200 µl-ko punta hori bat erabiliz, zelulen gainazalean goitik behera zeharkatzen duen zauri bat egin zen. Zelulak PBSarekin birritan garbitu ostean, tratamenduak gehitu zitzaizkien, FBSrik gabeko medioan. Puntu honetan t=0 puntuko argazkiak hartu ziren eta era berean 6, 12, 24 eta 48 ordura ere atera ziren. Amaitzeko, zauriaren azalera denboran zehar jasandako aldaketa neurtu zen ImageJ softwarearen MRI *Wound Healing Tool* tresnaren bitartez. Entsegu bakoitza hirutan errepikatu zen eta emaitzak hauen batezbestekotik aterata daude.

#### 3.4.4 MAPK/ERK SEINALIZAZIO BIDEAREN AKTIBAZIO ENTSEGUAK

Angiotentsina II (Ang II) peptido bioaktiboak aktibaturiko seinalizazioaren transdukzio bideetako bat MAPK/ERKena da. Honen aktibazioa neurtzeko moduetako bat MAPK 42/44 edo Erk 1/2 kinasen fosforilazio egoeraren azterketa da.

Horretarako, giltzurrun-zelulen kartzinoma lerroetako  $1,5 \cdot 10^6$  zelula P6 plaketan erein ziren. 24 orduz gainazalari atxikitze denbora eman ostean, kultibo medioa deuseztatu, PBSrekin garbitu eta FBSrik gabeko medio garbia gehitu zitzaien. Hala mantendu ziren beste 24 orduz, zelulak egoera geldian ("*quiescent*") sinkronizatuz. Jarraiki, Ang II kontzentrazio ezberdineko disoluzioak gehitu zitzaizkien FBSrik gabeko medioan, 1,5, 10, 50 eta 100 µM-ekoak hain zuzen ere eta 5, 10, 20 eta 30 minutuz inkubatu ziren. Inkubazio denborak betetzean, zelula plakak izotzetara transferitu ziren, PBS hotzarekin birritan garbitu eta proteinen erauzketa burutu zen 3.3.3 atalean deskribatzen den moduan. Ang II-ren seinalea AT1R hartzailaren bitartez zuzentzen zela ziurtatzeko, zelulak honen Candesartan inhibitzailearekin (10 µM 20 min) tratatu ziren.

Erauzitako proteina homogeneousatuak 3.3.3 atalean deskribatzen den moduan kuantifikatu eta Western Blot bidez aztertu ziren, horretarako *Cell Signalling* etxeko Phospho-p42/44 MAPK (ERK1/2) (Thr202/Tyr204) antigorputza erabili zen 1:1000 diluzioan.

### 3. Materialak eta metodoak. Materiales y métodos

#### 3.4.5 MEDIO BALDINTZATUAREKIN BURUTURIKO ENTSEGUAK

Medio baldintzatua (CM) zelulekin kontaktuan egon den FBSrik gabeko medioa da eta ondorioz hauek jariaturiko zitokina, hazkuntza faktore eta beste hainbat konposaturekin aberastua dago.

